



LEHENENGO ZATIA

EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN OINARRIZKO IDEIAK

Atarikoak

Curriculum proposamenak egitea zaila eta konplexua da. Hezkuntza administrazioei, eskola erakundeei, ikastetxeei, hezkuntza komunitateari eta agente sozialei eta ekonomikoei eragiten dien lana da.

Eskola publikoa eskola sistemaren zati garrantzitsua da. Eskola publikoak hezkuntza plurala ematen die herritar guztiei, diskriminaziorik gabea, eta modu progresiboan ari da egiten aurrera kalitate estandar hobekak lortzeko bidean.

Eskola publikoen ikuspuntua ezinbestekoa da curriculumaren proposamenak zehazteko orduan; guztia ere Euskal Herriko ikasleek hezkuntza hobea jasotze aldera. Curriculumaren ikuspegia hobetzea ez da ezinbestekoa eskola sistemaren zati integratzaile eta garrantzitsu delako bakarrik, bai eta herritar guztien hezkuntzan inplikaturik dagoelako ere, inolako diskriminaziorik eta bereizketarik gabe.

Curriculumaren itxaropenak aberasten dituen beste faktore bat ikastetxe publikoetan nabari den dinamika da; izan ere, haietan integratzen baita Euskal Herrian den aniztasuna. Irakasleak pluralak dira, bai eta ikasleen jatorria eta lan egiten duten ingurua ere. Faktore horiek guztiek ikastetxeen artean elkarrizketa aberatsa ezartzen laguntzen dute; ikastetxeek erabakiak adostu eta curriculum proposamen zehatzak egin behar izaten dituzte ikasle guztien mesederako.

“Euskal Herrirako curriculumaren oinarrizko ideiak” dokumentua perspektiba eta dinamika horien barruan dago. Dokumentu honek pentsamolde eta sektore aniztetera irekia egon nahi du.



Hobe daitekeen dokumentua da, malgua, hezkuntza eta ikastetxeetako curriculum proiektuen existentzia errazten duena; izan ere, ez ditu hezkuntzako aukerak mugatzen. Haren helburua ez da ikastetxeko curriculum autonomia sano batean agertu behar dena itotzea. Ikastetxek testuinguru sozial, kultural eta legal jakin batean daukaten antolakuntza eta curriculumerako autonomia baieztatu behar da.

Oinarrizko ideia horiek irekiak dira; izan ere, eskola publikoak proposamenak Euskal Herrian dagoen ikastetxe barietatea kontuan hartuta egiten dute. Asmo nagusia eztabaida aberastea da, Euskal Herrirako curriculuma eraikitzen parte hartzea eta eskola sistemari zein ikastetxeei esperientziak eta perspektibak eskaintzea.

1.- Abiatzeko puntuetako batzuk.

1.1.- Aniztasuna

Gizarte modernoaren ezaugarrietako bat aniztasuna da, eta Euskal Herrian aniztasun hori begi-bistakoa da. Hezkuntza ulertzeko moduan dibertsitatea dago, baita hezteko eta antolatzeko moduetan ere. Eta barietate hori lotuta dago ibilbideen, ohituren, kulturen, interesen eta abarren inguruan desberdinak garen pertsonekin eta taldeekin.

Jorratutako arazoaren ezaugarriek ere aniztasunari mesede egiten diote. Hezkuntzan giza dimentsioak lantzen dira, bai eta sozialak ere. Haietan guztietan ez dago uniformetasunik. Aniztasuna aztertzeko, hainbat aspektu



hausnartu behar dugu; hala nola, giza heziketa, sentsibiltate soziala, ezaugarri kultural idiosinkrasikoak, herritarrak, inplikazio demokratikoa, zientzia, kultura, lan munduan sartzea, interkulturalitatearen aurrea den jarrera.

1.2.- Ideologia eta curriculumama

Curriculumaren egitekoa hezkuntza helburuei lotuta dago. Eskolarako garrantzitsuagoa da bizikidetzak, tolerantzia eta errespetu ideologikorako baloreak sortzea, balio zibikoak sustatzea, pertsona jakitunak eta kritikoak eraikitzeke ahaleginak egitea diskriminatzen eta engainatzen ez uzten jakin dezaten, ikasleek aukera pertsonalak egiten jakitea jakinaren gainean eta informatuta egonda, herritartasun partekatua lortzeko oinarriak sortzea, bizitzako eremuetan ditugun tresna eta produktu kulturalak asimilatzea eta berriro sortzea.

Izaki desberdinen arteko bizikidetzak elkar aberastea esan nahi du. Gizarte irekiak tradizio eta kultura desberdinetako pertsonen eta taldeen arteko topaketaren emaitza dira; era berean, tolerantzia, errespetua eta truke anitzak oinarri dituzten topaketen emaitza ere badira.

Dibertsitateak ez du axolagabekeria esan nahi. Ideologia, ikuspegi, kultura eta interes desberdinen garaiak eta espazioak aldi berean ageri dira; hori dela eta, tolerantzia eta errespetua sustatu behar dira. Lan garrantzitsua da hezkuntza dibertsitatean eraikitzea, desberdintasunarenganako errespetua izatea, giza eskubideak errespetatuta aukera pertsonalak eta taldekoak kontuan hartuta pentsatzen, sentitzen eta bizi dituzten gizakiak sortzea.

Hezkuntza sistema ikasleen eta gizartearen zerbitzura dago eta giza garapenean orientazio etikoan, gizarte eta lan esparruan txertatzean, zein ondare kulturalaren transmisioan aurrera jotzeko egiten du lan.

Era berean, eskolek bere biziko papera jokatu dute euskal kultura eta hizkuntzaren berreskuratze eta duintzean.

1.3.- Proposamen komuna eta irekia.

Euskal erantzun ofizialak gizarte guztietan, eta, bereziki, Euskal Herrian, den aniztasunari erantzun behar dio. Hezkuntza Administrazioek marko



komuna zehazten dute, eta, bertan, hainbat preskripzio, orientazio eta iradokizun ezartzen dira estrategiarik egokien inguruan aipatutako asmoetarako. Marko komunaren helburua arauak ezartzea da.

Administrazioek egindako proposamenak zabala izan behar du, malgua eta irekia, bertan ibilbide zein orientazio desberdinak dituzten eskolak sartzeko; izan ere, Euskal Herriko eskolen errealitatea anitza da eta hainbat ikuspegi eta aukera daude. Oinarrizko curriculum proiektua izan behar du.

Era berean, curriculumaren diseinu ofizialak hezkuntza-sistemaren batasuna lortzeko aukera eman behar du, bai eta legea errespetatuta, hezkuntza-proiektu desberdinak garatzeko baliabideak ere. Euskal Herrirako proiektu komunak zentroko hezkuntza eta curriculum proiektuak egokitzeko eta garatzeko aukera eman behar du.

1.4.- Hezkuntza Administrazioaren proposamena.

Euskal hezkuntza sisteman elkarren artean konkurrentzian dauden sektoreak daude. Konkurrentziak ez du esan nahi derrigorrez gatazka, eta errespetuan zein tolerantzian oinarrituta egin daiteke. Eskolen errealitatea arau-errealitate desberdinei, tradizio aniztasunari eta, batzuetan, hezkuntza-proiektu bereziei erantzuten dieten sareek eta sektoreek osatzen dute.

Ez dago sektorerik sistemaren osotasuna adierazten duenik. Lege aginduz eta agindu demokratikoz, Hezkuntza Administrazioa arduratzen da hezkuntza-sistema legalki ordezkatzear, guztientzat printzipioak, arauak zein proiektu orokorrak proposatzeaz, horiek betetzen direla ikuskatzeaz eta hezkuntzaren kalitateaz.

Gizarteak Hezkuntza Administrazioaren parte-hartzea eskatzen du proposamenak egiterakoan eta erabakiak hartzerakoan.

1.5.- Parte-hartzea

Gizarte demokratikoetan, parte-hartzea exijitu beharreko zerbait da, konpromisoa. Hainbat baldintza betetzea eskatzen du; hala nola, legea errespetatuz ekitea, arrazonamendurako eta argumentaziorako gaitasuna



garatzea, gai publikoekiko konpromisoa izatea eta askatasun arduratsu batetik ekitea.

Parte-hartzea hezkuntza-sistemari eta ikastetxeei atxikitako zerbait da. Ikastetxeek pertsona sozialak eta inplikaturakoak hezi behar dituzte; hau da, gai pribatuetan zein publikoetan ardura izateko gai direnak. Herritarrek hainbat posibilitateren eta aukeren artean erabaki behar dute, baita hezkuntza-talde horien barnean ere. Ikastetxeetan parte hartzeko aukerak badaude Eskola Kontseilu, irakasleen lan-talde, didaktika sail edota mintegien bitartez. Parte hartze hau erakunde-dokumentu edo bestelako itunetan jasotako konpromisoen bidez islatzen da.

Demokrazian biziko diren pertsonak hezi nahi baditugu, erabakiak hartzerakoan analisirako, erabakitzeko, elkarrizketarako eta parte hartzeko prozesuak sustatu behar dituzte. Ezin dugu ahaztu ondokoa dioen printzipioa: hezkuntzan oso zaila da prozesuetan egon ez dena amaierako produktuetan egotea. Parte hartzen parte hartuta ikasten da.

Parte hartzeko aukerak eta errealitateak zehazteko talde interaktibo batean ondoko aspektuak kontsideratu beharko lirateke; hala nola, ordezkaturako pertsona bolumena, nork parte hartzen duen (pertsonak, sektoreak, organoak), zertan hartzen duten parte (bizitza instituzionaleko esparruak eta arloak: ekonomia, curriculuma, elkarbizitza, curriculum materialak, atzerriarekiko harremanak, etab.), parte-hartze mailak (informazioa, kontsulta, erabakietan parte hartzea, kogestioa...) eta parte-hartze prozesuak dituzten hezkuntza-mailak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, unibertsitatea...).

2.- Euskal Herrirako curriculuma eratzeko oinarrizko erreferentzia puntuak.

2.1.- Euskal Herriko gauzatze batzuk



Curriculumama inoiz ez da hutsetik sortzen. Curriculumama eraikin bat da eta eraikinak zimendatu, eraiki, apaindu, aberastu egiten dira.

Eraikitzerakoan atzera begiratu behar da aurrera begiratu ahal izateko. Egin dena aberastasun eta irakaspen iturri da. Curriculumaren mundua ez da inoiz hutsetik hasten. Ohiturak, aurreko dokumentuak, eztabaidak, gauzatzeak, ideiak, beharrak eta eskariak daude.

Ikuspegi sozialetik begiratuta, oro har, positiboak direla esan ohi den gauzatzeen zerrenda egin daiteke:

* Haur Hezkuntzaren unibertsalizazioa. Familiek eta gizarteak, oro har, haur hezkuntza garai beharrezkotzat jo dute ikasleentzat zein familientzat; bai beharrezkoa, bai erabilgarria.

* Ingurunearekiko lotura. Hezkuntza instituzioak, oro har, inguruneari lotuak egon dira. Zentroak hainbat ingurunerekin harreman ugari ditu. Eta harreman horiek aldatu egiten dira lekuaren, hezkuntza-mailen eta ohitura propioen arabera. Esaten ari garenaren adibide hauek dira: familiekiko harremanak, zentroetan eskola-taldeen parte-hartzea, jaietan parte hartzea, inguruko baliabideak aprobetxatzea, udalerraren inplikazioa, lanbide heziketan beste enpresekiko harremanak.

* Euskara eta euskal kultura curriculumari eranstea. Euskara eta euskal kultura sartzek Euskal Herriaren manifestazio linguistikoetara eta kulturaletara hurbiltzeko aukera ematen du eta orotarako transmisio-hizkuntza maila ematen dio euskarari. Eskolak euskara duintzeko eta herritarrek hizkuntza ezagutzeko lanean laguntzen du.

* Aurreko curriculum proposamenak. Aurretik ere Euskal Herrian hainbat curriculum proposamen egin dituzte. OHOren erreforman Hezkuntza Sailak curriculumaren alor guztiak jorratzen zituen proposamen bat egin zuen (liburu urdinak deiturikoetan) eta, lehenengo aldiz, euskararen programazioa egin zuten hiru urtetik hemezortzira arte. HSAOL zela eta, Hezkuntza Sailak aldarrikatutako curriculumean ikuspuntu eraikitzaile batetik egin zen lan, eta, modu batean ala bestean, hezkuntzaren oinarritzko gaiak jorratu ziren. Bi proposamenetan jende ugari egin zuen lan, eta Euskal Herriak egindako curriculumen ondarea sortu dute.



* Lanbide heziketan kalitatea hobetzea. Euskal Herrian esfortzu berezia egin da lanbide heziketa duintzeko, hainbat adierazgarri esker ikus daitekeen bezala: ahalegin inbertitzailea, irakasleen heziketa, enpresekiko harremana eta lan mundua, Europako gauzatzeetara ikuspegiak irekitzea.

* Aholkularitza. "Berritzegune" erakundeen bidez, irakasleen lana aholkatu eta babestu da. Curriculum proposamenen gizarteratzean laguntza eta aholkularitza zentro horiek oinarrizko lana egiten dute, lan hori ingurune desberdinetara egokitzerakoan, irakasleak hezterakoan horien prestaketa egunetik egunera hobea izan dadin eta beren gaitasun profesionala handitzeko, bai eta zentroentzat zein irakasleentzat garrantzitsuak diren beste alor garrantzitsu batzuetan ere.

* Aniztasunari arreta jartzea. Aniztasuna hainbat errealitate biltzen dituen kontzeptu generikoa da: kultura, interes, jatorri eta gaitasun aniztasuna. Oinarrizko curriculum komuna herritar guztientzat erabilgarria izan dadin, errealitateetatik abiatu behar da aukerak ahalik eta gehien indartzeko. Desberdina dena errespetatzeak laguntzen eta babesen hornikuntzari lotua egon behar du, garapenean aurrera joateko baztertu edota gutxietsi gabe. Aholkulariek asko lagundu dute aniztasunaren arreta lanetan.

* Drogazaletasuna, sexualitatea, lanbide orientazioa eta abarri buruzko plangintzak eta eskuhartze proiektuak asko izan dira. Gai hauetan eta beste batzuetan sakondu beharra dago instituzioen inplikazio eta hezkuntza eragileen parte hartzearekin.

* Irakasleen heziketa-planak. Heziketa-plan ugari egon dira. Plan horiek, oro har, eskariei, ekimenei eta lan taldeei irekiak egon dira. Zentroek egindako hobekuntza eta heziketa proiektuak sustatu dira. Heziketa planetan asko ikasi da eta beharrezkoa da esperientzia kontuan hartzea aurrera jarraitzeko.

2.2.- Hezkuntzaren Europako testuingurua.

Europar, hezkuntza lehentasuna duen esparrua da. Euskal Herriak badu presentzia European eta bertako kezketan. Europa etengabe eraikitzen ari den proiektua da. Hainbat ekimen egin dira eta garaipen batzuk ere lortu dira mugikortasuna, etengabeko ikasketa, lanbide heziketa, goi mailako heziketa, kalitatearen ebaluazioa, teknologia berrien erabilera eta nazioarteko



kooperazioa bezalako aspektuetan. Europako heziketako eremuaren barruan, hiru helburu generiko garrantzitsu ezarri dira:

Europako helburuak
- Kalitatea hobetzea.
- Guztientzako irekia izan ahal izatea.
- Atzerrira irekitzea.

A) Heziketa eta hezkuntza sistemen kalitatea hobetzea. Kalitatearen bidean batera aurrera egiteko, diagnostiko komunitara iritsi nahi da eta hitzartutako akordioak ezartzen dira, Europaren aniztasuna galdu gabe.

Gizarteak hezkuntzari eta heziketari hainbat betebeharrak ematen dizkio: garapen pertsonala, bizi hobea lortzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa modu aktiboan gizarteratzea, aniztasun kulturala eta linguistikoa errespetatzea, etab. Eta modu zehatzagoan, kohesioari eta elkarbizitzari dagokionez, heziketari betebeharrak garrantzitsuak eman zaizkio: bazterketa eta kanporatzea prebenitzea, tolerantzia eta errespetua eta giza eskubideak sustatzea.

B) Denei sistema horietara iristea erraztea. Iriste horrek, beste batzuen artean, bi helburu dauzka: Europar Batasunako sistema desberdinen artean gaindi ezin daitezkeen oztoporik ez egotea, errekonozimenduan eta titulazioen zein heziketa osagarrien baliozkotzean aurrerapausoak emateko. Era berean, hezkuntzara edota heziketara iristeko inolako zailtasunik ez egotea adinari dagokionez; hots, heziketa eta hezkuntza adin guztientzat zabalik egotea.

C) Heziketa eta hezkuntza atzerrira irekitzea. Europa espazio itxi bat izan ez dadin lan egin behar da. Gainerako herrialde guztietara irekitzeko ahalegina egin behar da norabide bikoitzean: barrualdetik hasi eta kanpoalderako kooperazioa beste herrialdeen eta eskualdeen onurarako; eta barrualdetik hastea Europa ikasleen, ikertzaileen eta jakintsuen jomuga izan dadin.

Zein da helburu horien guztien azpian dagoen motorra? Aspektuen eta prozesuen mundializazioa, ezagutzan oinarritutako eta egunetik egunera dinamikoagoa eta lehiakorragoa den gizarte eta ekonomia batean oinarritutako erronkak eta Europaren kohesiotik eratorritako erronkak.



Mundu mailako ezagutzaren ekonomiak hezkuntzaren eta heziketaren ekarpena behar du. Horiek hazkunde ekonomikoan, berrikuntzan, enplegu iraunkorrean eta kohesio sozialean eragiten duten faktoreak dira.

Europaren dinamika erronka handia da Euskal Herrirentzat. Gainera, agintarien, hezkuntza-instituzioen, gurasoen, irakasleen, ikasleen eta hainbat eragile sozialen beharra dauka.

2.3.- Pertsonen aniztasuna

Derrigorrezko hezkuntzako ikasgeletan kontuan izan beharreko ikasleen aniztasun handia dago. Talde beraren barruan dagoen aniztasuna da. Eta hor hasten dira hainbat arazo; hala nola *segregazioa* eta *bazterketa*.

Ikasleak hezkuntza-espazioetan hezi nahi baditugu, *gizarteratzeko eskoletan* aurkituko dugu erantzuna. Aniztasunaren aurrean gizarteratzea behar da. *Gizarteratzea* hezkuntza-behar bereziak dituzten subjektuak baino harago doa eta edozein motatako bazterketari kontrajarria dago (interesengatik, jatorri sozialarengatik edota kulturalarengatik, sexuagatik, gaitasunengatik).

Gizarteratzearen filosofiak arazoaren izaera eta ikuspuntua gizabanakotik instituziora aldatzen du. Subjektuak egokitzen ez badira edota baztertzen badira, ez da beraien erruagatik, ezaugarriengatik, ekipamenduengatik, gaitasunengatik edota gutxitasunengatik gertatzen. Eta arazoa “beren arazoa” ez bada, irtenbidea ere ez da beraien edota beren familien eskuetan utzi behar. Eskolak planteatu behar du instituzio gisa zer egin behar duen, ez berak bazterketarik ez sortzeko, baizik eta edozein motatako bazterketa saihesteko eta, bazterketa gertatzen denean, irtenbidea aurkitzeko.

Aniztasuna ideia konplexua da. Hainbat egoera eta pertsona hartzen ditu barnean. Ondorengo laukian osatu gabea den hurbilketa eskaintzen da. Izan ere, bertan hezkuntza errealitatea era etenean adierazten da eta, sarritan, errealitateok elkarren artean nahastuak egoten dira eta hala zailtasunak nola irtenbideak jarraian ematen dira.



Interes eta jarrera desberdinak

Aniztasun kulturala

Hezkuntzaren alorreko erantzuna: aukeraketa.

Pilatutako eskola-atzerapenak

Hezkuntzaren alorreko erantzuna: prebentziorako eta errekuperatzeko ekintzak...

Egokitzeko zailtasunak

Hezkuntzaren alorreko erantzuna: neurri curricularrak eta antolatzaileak...

**** Egoera fisikoak edota psikikoak eragindako HBB***

Hezkuntzaren alorreko erantzuna: laguntzeko sistema

a) aniztasunaren lehen maila ikasle ugari taldeen heterogeneotasun normalak eta positiboak emango luke: beharrezkoa da interes desberdinak eta modu askotako ezaugarriak edota gaitasunak dituzten subjektuak izatea. Batzuek mota bateko edukietarako eta jardueretarako gehiago edota gutxiago balio dute; beste batzuek, ordea, nahiago izaten dute gai batzuetan gehiago sakondu, edota lehiakorrago eta trebatuago sentitzen dira. Desberdintasun horiek *aukeren sistemen* eta alternatibien bidez konpontzen dira ikasketa-prozesuetan.

b) bigarren motako aniztasuna ikasleen garapenean eta errendimenduan desberdintasunen etengabeko pilaketak sortuko luke. Eskolatzean aurrerapausoak ematen ari garen heinean, subjektuen arteko desberdintasunak pilatzen ari dira. Batzuetan, desberdintasunak esanguratsu bilaka daitezke. Era horretako aniztasunak prebentziorako parte-hartze positiboa behar du, eta baliabideen zein ikasle-irakasle proportzioaren arteko hobekuntza ere bai.



Arazoak finkatuak badaude, irakasleak edota instituzioak irtenbideak aurkitu behar ditu: berreskurapen jarduerak, eskola ekintzak luzatzea, lan sistema osagarriak, egokitze curricularrak, aldaketa metodologikoak.

c) hirugarren motako aniztasuna hezkuntza-fasera pasatutakoan gertatzen da. Fase horretan zailtasun larriak izaten dituzte, bai ezagutzen alorrean, bai ohituta eta ikasketa tekniketan eta bai eskola egokitzapenean. Ez dira aspektu puntualetako eskola-atzerapenak, atzerapen oso garrantzitsuak ez badira. Askotan, ikasteko oinarrizko gaitasunen hondatze larria ekartzen dute. Egoera horretan daude zailtasun linguistiko edo matematiko handiak, edota jarrera arazo larriak dituzten subjektuak edota taldeak. Hori dela eta, ezinezkoa egiten zaie ikasgeletan elkarbizitza eta lan erritmo arrunta eramatea. Era honetako aniztasunak neurri curricular, didaktiko eta antolatzaile ausartagoak behar ditu, heziketa eszenatokia hobetzeko eta egokitzeko. Helburua guztiek parte hartzeko moduko lan mota egitea da.

d) azkenik, laugarren motako aniztasun batez hitz egin dezakegu hezkuntza-behar bereziak dituzten subjektuei buruz hitz egiteko (nahiz eta deitura hori aurreko ataletan adierazitako kasuei ere aplikatzeko modukoak izan). Hezkuntza-behar bereziren bat eduki eta ikastaldeen dinamikan parte hartzeko baldintzetan dauden ikasleak (talde horiek koprentsiboak direnean), beren burua aberastu egiten dute eta, beren presentzia eta elkarbizitzari esker, besteena ere bai.

Era honetako aniztasunak laguntza-sistema berezien (irakasle espezialistak) eta gailu osagarrien beharra izaten du, pertsona horien eskariak errazago erantzun ahal izateko. Har daitezkeen neurriak asko dira: elkarlana, egokitze curricularrak, une batzuetan banatutako lana, banakako programazioak, behar izanez gero zerbitzu medikoak, familiari lotutako lana, etab. Kasu honetan ere, oinarrizko curriculumak oinarrizko erreferentzia eta komuna izan behar du (ikastetxera eta irakasleen lanetarako dagozkion egokitzapenak eginda), curriculumaren ikuspuntutik adierazitako gaitasunak lantzeko.


Badirudi “aniztasunari arreta egitea” esaten dugunean, errealitate desberdinei buruz ari garela eta jokaera oso desberdinen beharra dutela.



Derrigorrezko hezkuntzan, garrantzitsuena subjektuak elkarrekin hezi ahal izatea da, ohiko “penalizazio bikoitzeko” prozesuak gertatu gabe. Penalizazio horiek mota askotako arrazoiengatik izaten diren zailtasunak dituzte jatorrian (familiakoak, eskolakoak, etab.), bai eta eskolaren presio baztertzailak ere. Kasu askotan, eskola bera izaten da ondoren zigortu nahi dituen zailtasunak sortzen dituena.

2.4.- Aniztasun kulturala.

Indibidualismoak ez du azaltzen errealitate pertsonal eta sozial osoa. Talde batekoak gara, komunitate batekoak. Hezkuntza-instituzio bat indibidualismoa baino harago doa. Horrek baieztatzen duenez, garrantzitsuena aktore sozial nagusia bilakatzen den gizabanako isolatua eta autonomoa da. Baina kultura kolektiboak egon badaude, eta gizarteak antolatua dago. Eskubideak eta betebeharrak zein kolektiboak ere badaude.



Egia da gizakia dela aktore nagusia. Pertsona oro NBEk bezalako erakundeek aitortutako giza eskubideen subjektua da (bizitza, askatasuna, osasuna, elikadura, hezkuntza...). Eskubide horiek gizakiaren duintasuna eta dagokion errespetua bermatzen dute; gizakiak errespetatzeko eskubide horiek errekonozitu eta erabili egin behar dira, era berean. Aniztasun kulturala gizakiaren manifestazio zehatza da; izan ere, pertsonak kultura jakinetan jaiotzen eta hazten dira.



Kultura partikularrak (eta kulturak beti dira partikularrak, nahiz eta posible izan elkarrekin lotuta egotea) gizakientzat eta taldeentzat erreferentzia garrantzitsuak dira. Kulturak, berezitasunak dituzten talde bezala ikusita, elementu garrantzitsuak dira bizitza sozialerako, eta nortasun kolektiboaren oinarri dira.

Ez dago errorik gabeko, historiarik gabeko eta kulturarik gabeko gizakirik, eta bizitza sozialaren antolaketak adierazpena eta banakako zein taldekako ekimenak aurrera eramateko aukera eman behar du. Adibidez, gure kasuan, euskarak babestu eta sustatzea izatearen beharra dauka. Giza unibertsalitatea eta berezitasun kulturalak uztartu egin behar dira. Aniztasunak ideiak ikuspegi askotara eta konplexuetara irekitzea eskatzen du.

Europako Batzordearen arabera (1994), fokatze egoki bat ikasle guztiengana zuzentzen ahalegintzen da “gizadia batzen eta desberdintzen duten faktoreak deskubritzeko, gizadi horren aberastasunaz zein aniztasunaz gozatzeko, edozein kulturatan beren gizatasun propioa deskubritzeko”.

Bestalde, pertsonok eta taldeok eskubidea daukagu nortasun pertsonala eta taldekakoa bilatzeko, eta bilaketa hori oso onuragarria da. Nortasun pertsonalak edota taldekakoak pertsona beraren edota jatorri desberdineko taldeen barruan elkarbizitza, era askotako adierazpenak, etab. onartzen ditu. Nortasunak dimentsio ugari ditu: kultura, lana, familia, erlijioa, modu asoziatiboak, ikurrak, etab.

Kultura partikularrak edota gutxituak ez dira kultura orokorragoen edota jende gehiago biltzen dutenen itzulpenak edota berezitasunak. Hedapen handiagoa edota txikiagoa duten kultura guztiak, lurralde handiagoa edota txikiagoa hartzen dutenak, kultura bereziak dira eta historia daukate; gizartearen, beste taldeen eta naturaren arteko interakzioaren, truke historikoen eta giza interakzioaren zein interakzio sozialaren fruitu dira.

Euskal kultura errealitate dinamiko eta bizia da. Eskolan egoteak bere gaurkotze eta berrindartzean laguntzen du, ikasleak errealitate sozial eta kulturalean txertatzea ahalbidetuz. Hizkuntza koofizialak ezagutu eta erabiltzea Euskal Hezkuntza Sistemaren helburu garrantzitsuetako bat da.

Badira ikuspegi integratzaileetatik urruntzen diren planteamenduak: a) Gizarte eta kultura propioa kultura hedatuagoen gehigarriak direla pentsatzea; hau da, adierazpen modu desberdinak beste kultura fuerteagoen eta



hedatuagoen adarrak izango balira bezala; inongo kulturak ez dauka besteengan uniformizazio irizpideak ezartzeko eskubiderik. b) gizarte zein kultura propioak testuinguru eta lotura hedatuagoetatik isolatzea, bakardadean eta isolatuta sormen bikainak eta denboraz erabat kanpokoak balira bezala. c) kulturak ez dira pertsonen eta familien arteko komunikaziorako tresna soilak. Kultura, zientzia, arteak, ekoizpena eta komertziorako tresnak ere badauzka.

Nortasun kulturalak erlatibizatzea ere ez da onargarria; hizkuntzak, kulturak eta ohiturek inolako garrantzirik izango ez balute bezala. Era berean, ez da onargarria absolutuak eta izaera baztertzailera hartzen duten nortasunen edota nortasun aztarnen bilaketa konpultsiboa ere. Modu absolutuan eta baztertzaileran gure nortasuna finka dezakegun ezaugarriak garrantzitsuak iruditzen zaizkigun bizitzako edozein aspektu izan daitezke: lurra, ideologia, klase soziala, erlijioa, etnia, hiria, etab.

Hezkuntzak askatasun propioa ez baztertzen irakasten digu. Nolabaiteko segurtasuna ematen duten giroak eskaintzen laguntzen du. Elkarbizitzarako oinarritzko usteak baieztatzen ditu, eta aukera pertsonaletarako bidea ematen du. Hezkuntzak gaitasun kritikoaren garapenean hartzen du konpromisoa. Ikasleek erabakiak hartzen ikasi behar dute eta erabaki horiek arrazoizko aukera pertsonaletan oinarritu behar dira, egiaztatutako irizpideak hartuta eta beste pertsoneri kalterik egin gabe.

Hezkuntzak komunitate ireki eta askeetan era solidario eta autonomoan bizitzen jakingo duten pertsonen eraikuntza sustatu behar du.

2.4.1.- Nortasun pertsonala eta kolektiboa.

Euskal Herrirako curriculumaren oinarritzko ideiak planteatutakoan, ona da kontzeptu eztabaidagarri batzuk eta, ziurrenik, definizio ugari izango dituztenak bereiztea; adibidez, nortasun pertsonalaren eta kolektiboaren arteko desberdintasuna.

Pertsonak izaki partikularrak zein unitarioak gara, eta geure baitan dimentsio desberdinak dauzkagu (gorpuztasuna, kognizioa, afektibitatea, soziabilitatea, etab.). Nortasun pertsonala interakzio askoko prozesuetan eraikitzen da hainbat testuingurutan (pertsonalak, familiakoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak). Testuinguru horiek gertutik eta bat-batean hazten eta



handitzen doazen espazioak zein denborak dira, espazio eta denbora urrunagoetara, abstraktuagoetara eta sinbolikoagoetara iritsi arte.

Gizakiak gero eta atxikimendu sentimendu gehiago ditu (familia, auzoa, udalerria, eskualdea, etab.) eta esparru horietan komunikazio sistemak, kode linguistikoak, ohiturak, errealitate sozialak zein kulturalak, ekoizpenak eta harreman ekonomikoak, eta abar daude. Espazio eta denbora horietan frogatzen eta eraikitzen da Euskal Herriko kultura berezia, eta hor nortasun kolektiboak agertzen dira.

Euskal Herriko kasuan gertatzen den moduan, batzuetan nortasun horiek konplexuak izaten dira. Konplexuak pertsonalki eta kolektiboki. Definizioetan, adskripzioetan, elementu osagarrietan ez dago uniformetasunik. Hizkuntza desberdina hitz egiten duten, sustrai asko dituzten eta erreferentzia geografiko zein sozial desberdinak dituzten pertsonak badaude. Eta pertsona horiek berak hizkuntza, ohitura, bizimodu eta pentsatzeko era desberdinak nahasia diren eremuetan bizi dira.

- Edukiek eta helburuek zabalak izan behar dute guztiak sartzeko
- Partekatutako erreferentzientzat gutxieneko oinarri batzuk sortzen lagundu behar da

Galdera curricular garrantzitsua ondokoa da: helburu eta eduki curricular zabalak proposa al ditzakegu horiek guztiak sartzeko zein aniztasuna errespetatzeko, eta oinarri kulturala, zientifikoa eta kultural partekatua izateko gutxieneko ezagutza egoteko? Curriculumak giza elkarbizitzaren esparruetan eragin al dezake?

Euskal Herrirako curriculumaren erronka nagusienetako bat hori da.

2.4.2.- Kultura arteko pentsamendua

Batzuetan, kulturaren gaia homogeneoa den eta konplexutasun semantiko gutxiko zerbait bezala lantzen dugu. Espazio eta denbora berean kultura desberdinak egoteak ez dauka une eta leku guztietan jatorri bera. Presentzia horren arrazoiak aldatu egiten dira; hala nola, gutxieneko etnien



aldarrikapena; deskolonizazio prozesuen osteko kulturak suspertzea; arrazoi politikoengatik, ekonomikoengatik, sozialengatik edota pertsonalengatik gertatzen diren migrazioak; hedabideek batetik bestera eramaten dituzten fluxu informatiboak; truke komertziala zein kulturala, etab.

Kultura arteko erronka ez da uniforme den zerbait; izan ere, espazio beretan gurutzatzen diren errealitateei erantzuten die. Aniztasun kulturalari eta interkulturalitateari buruz hitz egiten dugunean, sustrai, dimentsio eta jatorri desberdina duten egoerei zein arazoei buruz ari gara. Ikus ditzagun horietako batzuk:

Aniztasun kulturalaren esanahia
<ul style="list-style-type: none">- Estatu berean dauden kulturak.- Gutxiengo etnikoak eta tradizio autoktono handikoak- Migrazioei lotutako kulturak- Europako espazioa eraikitzea

A) Beren adierazpen kulturekin edota linguistikoekin Estatu berean dauden kulturak. Espainiaren kasuan, Kataluniari, Galiziarri, Euskal Herriari, Andaluziarri, eta abarri buruz ari gara. Horrek esan nahi du aniztasun kulturala ez dela fluxu migratorioengatik soilik planteatzen. Europako gizarteetan historian oinarritutako aniztasunak egon dira, eta egun ere inplikazio sozial garaikideak izaten ari dira.

B) Tradizio autoktono handiko kulturak, ijito etniarena konparazio batera, bere berezitasun linguistikoekin, tradizio kulturekin, askotan bazterketa ekonomikoa, soziala eta eskolarra jasanez. Gauza berria da ijito etniako haurrak eskolatzea kultura arteko gai gisa kontsideratzea.

C) Inmigrazioei lotutako kulturak. Inmigrazio horiek normalean egoera ekonomikoengatik, belikoengatik, sozialengatik, erlijiosoengatik, eta abarregatik sortzen dira. Migrazio fluxu horien jatorri anitzak ez du uzten erantzun homogeen bat ematen. Baina horietako batzuetan, harrera motari eta erantzun eskolarrari lotutako arazoak sortzen dira.

D) Europako espazioa eratzea; apurka-apurka sozialagoa eta kulturalagoa izango den espazio bat, egun hain presente dagoen batasun



ekonomikoa albo batera utzi gabe. Europa eratzeak Europan topaketa kulturala egitea eskatzen du. Elkar ulertzea, truke kulturala eta soziala, herrialde desberdinen arteko kooperazioa lortu nahi dira. Europako Batzordeak dioenez, “horrek guztiak aurrera eta kanpoaldera begiratzen duen Europako kultura eraikitzen laguntzen du; Europako nortasunaren eta herritartasunaren eskeletoa estaltzeko, batez ere, gazteen artean. Hori Europaren eraikuntzako faktore garrantzitsua da herritarrak biltzeko”.

3.- Euskal Herriko ikastetxeetako elkarbizitza.

Hezkuntza espazio orotan daude arazoak, tentsioak eta gatazkak. Askatasunarekin batera taldeko elkarbizitzatik eratorritako mugak daude. Ikastetxeak antolatutako instituzioak dira, eta aurretik pentsatutako helburuak dauzkate. Taldean bizitzeak mugak jartzen ditu, orientazioak seinالاتu eta ibilbideak adierazi.

Ikastetxe eta maila guztietan ez daude gatazka berak. Tentsiorik handienak bigarren hezkuntzan egoten dira, nahiz eta bigarren hezkuntzako arazoak ez agertu era berean ikastetxe guztietan.

- Elkarbizitza ikastetxeen erronka garrantzitsua da**
- Elkarbizitza sustatzeko ez dute bat-batekotasunak, kezkarik ezak, agresibitateak edota inhibizioak balio.**
- Irakasleen, familien eta gizartearen parte-hartzea oinarrizkoa da.**



Europako hezkuntza-sistema gehienek helburuetan zein curriculumean ere kezka bera islatzen da. Ikastetxeetan gatazken konponketari eta elkarbizitza sustatzeari lotutako gaitasunak garatzeari dagokionean, kezkak daude elkarbizitzaren eta baloreen, hezkuntza etikoaren eta moralaren inguruan, bai eta ikasleak giza eskubideetan oinarrituta heztearen inguruan ere.

Europako hezkuntza-sistema askoren helburua ikasleak gizarte demokratiko batean bizitzeko heztea da. Ikasleen garapen pertsonala sustatu nahi dute; horiek subjektu orekatu, osasuntsu, arduratsu, autonomo, kooperatibo, sortzaile eta bakezale bilakatuta, eta gizarteko kide eginda.

Ikastetxeetan sustatu beharreko baloreak adosteko ahalegina egin behar da. Era berean, aldarrikatzen denak egiten denarekin bat etorri behar du. Teoria eta praktikaren arteko aldea, dokumentuek diotenaren eta eguneroko elkarrekintzan somatzen denaren artekoa, murriztu beharra dago.

Europako sistemetan honakoa ere baieztatzen da: ikasle guztiek daukate beren beharrei egokitutako curriculum zabala eta orekatua izateko garapen espirituala, morala, kulturala, mentala zein fisikoa, bai eta bizitza heldurako aukeretarako, arduretarako eta esperientziatarako prestatuak izateko eskubidea ere.

Elkarbizitza nola sustatu da oinarrizko galderetako bat. Bat-batekotasunak, koordinazio faltak, adrenalina deskargatze hutsak, erantzun errepresiboak, inhibizioak edota neurri legalak zein burokratikoak martxan jartzeak ez du balio.


Hezkuntza-ekintza elkarbizitzaren promozioari lotutako faktore guztietan zentratu behar da: a) sustatzen diren ingurunearekiko harremanak, irakasleen eta familiaren arteko harremanak, zentro bat zuzentzeko modua, arau eta gizarte harreman motak; b) zentroko irakasleen eta familien gogoeta, curriculum jarduerak, parte-hartze eta eztabaida espirituan elkarbizitzaren eta arauen argumentazioa, indarkeria erabiltzen duten ekintzak kontuan hartzea, irakasleen trebakuntza eta hobekuntza metodologikoak.

Egile ezagunek estrategia zehatzagoak adierazten dizkigute: 1) Ikasleak zentroen funtzionamenduan inplikatzeko edota horiek modu antolatuan eta sistematikoan entzutea (tutoretzak). 2) Zuzendaritzaren eta irakasleen arteko harremana eta elkarbizitza, elkarbizitza eta espiritu instituzionala. 3) Indarkeriaren pertzepzioa handitu egiten da irakasleen eta ikasleen artean



harreman gutxi dagoenean, eta ikasleen ikasteko zailtasunak handitzen direnean. Erreferentzia pedagogikoak galtzeak modu negatiboan eragiten du. 4) Zentroak ezin dira sentimendurik gabeak izan indarkeria-fenomenoen aurrean. Erreferentzia moralak jarri behar dira indarkeria arrunt bilaka ez dadin (hitzezko erasoak, arrazismoa, sexu indarkeria, eraso fisikoak, ondasunen aurkako erasoak, etab.). 5) Arauak azaltzea. Eztatuidatutako eta barneratutako bitzitarauak baieztatu behar dira. Arau horiek komunak izango dira zentro osoarentzat, eskola komunitatean taldeen bitzitarako arau partikularrek lehentasuna izan gabe.

Elkarbizitzaren tratamendu curricularrean puntu batzuk gomenda daitezke:



a) Elkarbizitza ona sustatzeak bakerako heztea esan nahi du. Bakerako hezkuntzan ondoko gaiak lantzen dira: gatazkaren tratamendua, soziabilitatearen aldeko jarrera, aldaketa pertsonala zein soziala ekarriko duten



elkarbizarako kodeei eta baloreei buruzko gogoeta, eztabaida, trukaketa, kritika, gatazka modu baketsuan konpontzea, eta ulermena zein bestearen onarpena lortzeko sentimendu enpatikoen garapena sortzeko eskola-estrukturak sortzea. Eskubide eta betebeharren onarpenak garrantzi handia dauka bakea lortzeko hezkuntzaren etorkizunean.

b) Elkarbizitzan hezteko Garapen Sozio Pertsonala beste aspektu garrantzitsuetako bat da. Pertsonen arteko harremanak, gizabanakoek instituzioekin eta gizarteko estrokturekin zein prozesuekin duten harremana, curriculumak gizartearekin duen harremana. Zehatz-mehatz, ondoko gaiak jorra daitezke: osasunerako hezte, kontsumorako hezte, sexu heziketa, gizartean bizitzeko hezte, pertsonen arteko harremanetarako hezte.

c) Kooperazioa ikasteak elkarbizitzen ikasteko ere balio du. Kooperazio lanean interakzio sozialaren eragina nabarmentzen da. Ikasleek elkarri laguntzen diote, elkarri laguntzearen eraginkortasuna ikusten dute, autoestimua handitzen da, interakzioa handitzen da, testuinguru informaletan gertatzen denaren interakzio desberdina izaten da, lankidetzaz heziketa helburu gisa hartzen da, beste ikasteko modu batzuk osatzen dira, taldeko helburuen bidez helburu pertsonalak lortzen ikasten da, ebaluazio estrokturak aldatzen dira, begiratzen ikasten da, ezagutzak handitzen dira, etab.

d) Ez dira ahaztu behar aspektu curricular eta didaktiko generikoak elkarbizitza hobetzeko. Neurri curricularrek eta didaktikoek diziplina hobetzeko balio dute. Neurri horiek honetarako balio dute: teoria eta praktika lotzeko, eskolako edukiak bizitzako gai garrantzitsuekin lotzeko, ikasgaiak interesgarriago eta praktikoago egiteko, ikasgeletan ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko.

e) Eskola-orientazioa beharrezkoa da elkarbizitza ona lortzeko. Ondoko jarduerak: tutoretzetan elkarbizitza-arazoak konpontzea, zerbait gaizki egin duten ikasleekin bakarka hitz egitea, ikasleen artean errespetuan oinarritutako jarrerak lantzea, elkarbizitza lantzea ibilaldiekin, irteerekin, jolasekin, jaiekin, etab.

f) Elkarbizitzaren tratamendua curriculumean. Garrantzitsua izango litzateke diziplinen arteko eta globalizatutako ikuspegiak sustatzea elkarbizitzaren gaia jorratzean. Askotan ikastetxeetan gauzatu ohi diren curriculum jarduera batzuk zerrenda daitezke; hala nola, eskoletan familiak eta



eragile sozialak integratzea, eskoletan elkarbizitzaren ebaluazio diagnostikoak egitea (inkestak, galdetegiak, elkarrizketak...), kasu praktiko ezagunei buruzko eztabaida, zentro interesgarrienak aukeratzea (ikuspegi globalen bidez elkarbizitza jorratzea, “helburu zehatza”, “lehentasuna duen helburua”...), zeharkako esparruak sustatzea (bakea, ingurumena, heziketa zibikoa, berdintasuna...), gai nuklearrak lantzea (etika, elkarbizitza, tutoretzak...), egokitzapen curricularrak, heziketa berdintzailea (zailtasunak dituzten ikasleei zuzendutako mintegiak...), aisialdiari lotutako neurriak (jarduera fisikoak eta kirol jarduerak), curriculumean ekimenak integratzea (hirugarren munduaren inguruko mintegiak, bakearen eguna, heziketa afektiboa eta sexu heziketa...), analisirako benetako arazoak eta kasuak erabiltzea (gerra, hondamendi ekologikoak...), heziketari lotutako bisitaldiak egitea (museoak, ikuskizunak...), etab.

4.- Curriculumak herritartasuna sustatzeko balio du.


Curriculum ireki eta dimentsio anitzeko batek pertsonen heziketa integrala hartzen du kontuan, eta subjektuen dimentsio pertsonalak, sozialak eta etikoak landu behar ditu. Galdera garrantzitsu bat honakoa da: zein da heziketaren ekarpena herritarrak eratzeko?

Herritartasunaren eraikuntza gazteekin jarduten duten eragile guztiei dagokie. Familiek, eskolek, komunikabideek eta askotariko erakundeek zeregin garrantzitsua daukate. Herritartasuna oinarrizko kultura partekatutik eta adostutako gutxieneko helburuetatik abiatutako erantzun sare batean eraikitzen da.

Herritartasunaren kontzeptuak sozializazioa gainditzen du. Herritartasunak gizartearen antolaketa demokratikoan eskubidez eta betebeharez betetako mundu bati egiten dio erreferentzia. Gizarte demokratikoak bere harreman sozialetan, ekonomikoetan eta kulturaletan parte



hartzea eta haien ordezkariak sustatzen ditu. Gainera, herritarrentzat oinarritzko zerbitzuak antolatzen ditu; hala nola, osasuna, heziketa, segurtasuna, etab.



Herritarra izatea ez da mendekoa izatea, pertsonak duintasun eta askatasun subjektuak baikara. Erreferentzia gizartean pertsona aske gisa bizi eta errespetatu beharreko eskubideak eta betebeharrak dira. Demokraziarako hezteko herritarren ideia garatzen duen kontzeptu zabala da.

Heziketak sozialki talde batekoa izateko sentimendua sustatu behar badu, gizarteratzearen aldeko jarrerak eta praktikak landu behar dira, eta sexuaren, jatorri etnikoaren, baliabide ekonomikoen eta adskripzio ideologikoen, eta abarren arabera bazterketak bertan behera utzi behar dira.

Eskubideen eta betebeharren kontzientzia eta aldarrikapena apurka-apurka sortu dira. Askatasunei eta ezaugarri pertsonalengatik eta kolektiboengatik (sexua, arraza, hizkuntza, etab.) ez baztertzeari erreferentzia egiten dien giza eskubideen aitortzea aurrerapauso handia izan zen. Handik pixka batera, aitortze hori bigarren belaunaldiko eskubideak deitzen zaienekin osatzeko beharra iritsi zen: elikagaietarako, osasunerako, etxebizitzarako, heziketarako, eta abarretarako eskubidea.

Egun, kezkatuak eta adi-adi begiratzen diegu globalitate integratzaileago batean gizakien eta gizarte zehatzen ikuspegiari. Naturaren baliabideak, oreka ekologikoak eta horrek duen harremana indar zein faktore ekonomikoekin, demografikoekin, eta abarrekin kontuan izan behar dira.



Ohartu gara eskubideek betebeharrak sortzen dituztela, eta eskubideen aitorenak zein deklarazioak horien betebeharren aitorenarekin eta onarpenarekin lagundu behar direla.

Ezagutza eta informazioa elementu garrantzitsuak dira antolaketa sozialean, ekoizpen ekonomikan eta ondasunen zein zerbitzuen banaketan. Ezagutzara eta informaziora iritsi ezin direnak edota horietara iristea mugatua dutenak baztertuagoak geratuko dira eta arrisku handiagoa izango dute baztertze soziala zein kulturala jasateko.

Herritar demokratikoen eta integratzaileen kontzepzio zein praktika on batek herritarren parte-hartze soziala bilatu ohi du. Badaude parte-hartzearen aurkariak: egungo prozesu ugarian parte hartzeko eta horiek ulertzeko heziketa falta, mundua nigan eta nire ingurukoengan hasten eta amaitzen dela uste duen indibidualismoa, kontsumoko ondasunen gehiegizko balorazioa, bizitza pribatura erretiratzea balio duen bakarra izango balitz bezala, parte-hartze ezak dakarren kontrol falta arduradunei dagokienez, exijitzen dutenen erosotasuna eta ezertaz arduratzen ez direnena, ardura propioak zerbitzuak eskaintzen dituzten beste batzuegatik ordezkatzeta, etab.

5.- Informazio eta komunikazio teknologia berrien artean.

Euskal Herriko agintaritza publikoak herritarren heziketa sustatzen ari dira informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan.

Uste da teknologia berrietara iristek eta horri esker informazioa eskuragarri eta erabilgarri edukitzeak ongizate ekonomiko maila onargarriez gozatzeko aukera emango dietela herritarrei eta taldeei. Hori dela eta, agintariak eta herritarrak ekintzak garatzeko eskatzen ari dira; ikasleak, herritarrak, oro har, eta enpresak mundu mailako komunikazio azpiegiturretara iritsi ahal izateko.



Informazio eta Komunikazio Teknologietara iritsi ahal izatea sustatzea

Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzeak erronka berriak planteatzen ditu.

Kultura digitalak baldintzak ezartzen dizkie eskolei.

Material curricular digitalen garrantzia

Irakasleen baliabideak eta heziketa falta dira

Herritar guztiei zuzendutako asmo honek garrantzia hartzen du eskolei eta irakasleei buruz hitz egitean. Eskola guztiek Internet izatea lortu nahi da, eta irakasleak ere Internet eta baliabide multimedialak erabiltzeko gai izatea. Teknologia berrien gaia ez da soilik gai berria, curriculum, materialak eta ikasteko eta irakasteko moduak eraldatzen ditu.

Inmobilismotik kanpo, teknologia berriak erabiltzen ikasteko erritmoa ikaragarri azkarra da. Ezagutza berriak hartzeak eta horiek heziketan eta eskola-antolaketan erabiltzeak heziketa-instituzioetan aspektu curricularrak berriro planteatzera eramaten gaitu.

Teknologia berrien ezagutza eta erabilera sustatzeko eta kultura digitalean sartzeko hainbat jarduera beharrezkoak dira: eskoletan Internet jartzea, entitate zientifikoak eta kulturalak elkarrekin konektatzea gaitasun handiko sareen bidez, ikasleei eta herritarrei teknologia berriak erabiltzen irakastea, heziketa-sistemak kultura berri honetara egokitzea, Internet eta baliabide multimedialak erabiltzeko gai diren irakasleak hezteak, ezagutza berri



horiek erabiltzen dakitenen eta ez dakitenen arteko desberdintasuna handitzea galaraztea, etab.

Aro digital berriari lotutako aspektuetako batek material didaktiko digitala du ardatz. Material horiek material curricularrak analizatzeko erabiltzen diren ikuspuntu guztietatik begiratuta irakurri behar dira: planteatutako helburuak, landutako edukiak, proposatutako jarduerak, ebaluatzeko elementuak, etab.

Teknologia berriak eskoletan sartzekoan, zeintzuk dira positiboki eragiten duten faktoreak? Ondokoek laguntzen dute: proiektu instituzionalek, baliabideak emateak, irakasleak trebatzeak, formatu digitalean material curricular interesgarriak eta anitzak emateak, bai eta arazo jakin batzuk saihesteko eta eskola laguntzeko sareak ere.

Edukietan eta formatuetan beharrezko material didaktiko digitalak era askotakoak dira, baita gainerako materialetako beharrak ere. Pentsa dezagun zentroaren lanetara edota zentrotik kanpora egokitutako adin, subjektu, gai, gaitasun edota sustatutako trebetasun desberdinetan, bertaratu beharreko edota distantzia bidezko heziketan, ikasleen erabakiak baimentzen dituen hipertestualitatean, baliabide multimedien integrazioan (testuak, grafikoak, soinuak, mugimenduan dauden irudiak, etab.), interaktibitatean, lankidetzan lan egiteko aukeretan, eta abarretan.

6) Enplegarritasuna

Enplegarritasunaz ari garenean gizarteratzea daukagu gogoan. Lan munduan sartzeak gizarteratzea behar du era desberdinetako gaitasunekin batera.

Enplegarritasuna oinarrizko prestakuntzarekin lotuta dago, izan ere garai bakoitzean eskatzen diren egokitzapenak ahalbidetzen duen tresna baita.




Hasierako oinarrizko prestakuntzak bizitzan zehar jaso beharreko prestakuntzaren laguntza behar du.

Lana integrazio faktore gisa eta antolaketa sozialeko sarrerako ate gisa hartu da. Lanak besteekiko dugun jarrera, gure autoestimua, gure diru-sarrerara maila eta gure bizitzetako aukerak zehazten ditu.

OCDE erakundearen "heldua izatea"ri buruzko txosten baten arabera, lanak heldua izateari lotuak dauden funtzio psikologiko batzuk betetzen ditu: nortasun pertsonalaren zentzua, autoestimua, ardura, duintasuna; komunitateari aktiboki egiten zaion ekarpena ikusteko aukera ematen du; harreman sozialak zabaltzeko aukera da; eguneko estruktura eta ohitura ematen ditu.

Eskolan, gazteak gizarteratzera bideratutako orientazioetan eta ekintzetan ardatz garrantzitsuak izan behar dira kontuan:



- **Helburuak.** Hezkuntza sistemaren helburuak, baita oinarrizko eta derrigorrezko mailetan ere, desberdinak dira gizartzeratze eta laneratzearen arabera. Prestaketa hurbila existitzen da, baina urruna eta etengabekoak ere bai.

Enplegurako hainbat errealitate behar dira. Soziabilitatea da enplegurako lehen helburua. Autonomia eta erantzukizunaren helburuak agerian egon behar dute curriculumean. Jarera soziopertsonalak ezinbestekoak dira. Egun, subjektuen hazkundeari ematen zaio garrantzia: autonomia garatzea, beren



buruarekiko konfiantza handitzea, proiektuak bilatzea, autoerrealizazio pertsonala, etab. Egokitze-aspektuak ere garrantzitsuak dira: arau sozialetara egokitzea, lege demokratikoa errespetatzea, kontratuak eta konpromisoak betetzea, bazterkeria albo batera uztea, etab. Ekintza horiek guztiak eskolek kontuan izan behar dituzte lanerako gertuko edota urruneko prestaketarako.

- **Orientazioa.** Orientazio zerbitzuek gazteen gertuko edota etorkizuneko lanbideratzea dute helburu. Ekintza batzuek etorkizuneko lanbideratze horretan laguntzen dute: nahiak eta gaitasunak ezagutzen ez dituztenentzat orientazio bilerak; zer nahi duten dakitenentzat edota lanbide heziketari heldu ostean utzi dutenentzat kualifikazio praktikak; utzitako ikasketak berriro hasteko gonbita; kasu gutxitan jarduera profesioletara orientatzea.

- **Eskolaratzea eta heziketa.** Oinarrizko ezagutzak beharrezkoak dira enplegurako. Eskola utzi duten gazteek ez dute onartzen heziketarako eskola-modeloa. Oinarrizko abiapuntua eskola-porrota eragin duten irakasteko eta ikasteko moduak albo batera utzi eta berriak lantzea da. Gauza jakina da eskola-ezagutzen ahultasuna gizarteratzeko zailtasuna dela. Egun, jakinduriari eta egoten jakiteari lotutako oinarrizko gaitasunei buruz hitz egiten da. Oinarrizko prestaketa duten pertsonak errazago gizarteratzen dira, heziketa-ekintzetan eta prestatuagoak daude lan profesional desberdinak egiteko.

- **Lehiakortasun pertsonala nabarmentzea.** Enplegurako garrantzitsuak dira lehiakortasun gaitasunak eta sentimenduak. Giza aldarrikapenari buruz ari garenean, pertsonak arazoei aurre egiteko duten gaitasunean pentsatu behar dugu, bai eta arazoak identifikatuta horien eragina murrizteko eta garaiz aurre egiteko gaitasunean ere. Egia da lehiakortasun sentimenduak eta gaitasunak sortzeko bizi prozesuan honakoak behar direla: ingurumen baldintza eraikitzaileak, itxaropen positiboak, babesteko eta laguntza sozialerako sareak, etab. Lehiakortasun pertsonala duen subjektu batek badaki zer egin nahi duen bere bizitzarekin, proiektuak sortzeko gai da, bitarteko egokiak bilatzen ditu, balio sentimenduak ditu, inguruko baliabideak modu egokian erabiltzen ditu, arrisku moderatuak gainditzeko gai dira, lotura pertsonalak eta sozialak sortzen dituzte.



7) Testuingurua eta Euskal Herrirako curriculum

7.1.- Curriculumaren testuingurua

Curriculum ez da banakako erabakien produktua soilik. Curriculum ezin da kokatu estruktura sozialaren eta bere eskola-sistemaren funtzionamendu orokorra kontuan izan gabe. Euskal Herrirako curriculum sortzeko ondokoak ezagutu behar dira: ikasleen beharrak, gurasoek lehentasuna eman dieten aukerak, arau-markoa, euskal eskolen antolaketako berezitasunak, irakasleen formakuntza eta irizpideak, arazo sozialak eta kulturalak eta ondasunetako eta zerbitzuetako behar produktiboak eta laboralak. Eta ikasleak, protagonista nagusi bezala, ahaztu gabe, haiei ere erantzun behar baitie curriculumaren elaborazioak.

Curriculum zentrotik eta eskola kanpotik diseinatzen eta garatzen da

Curriculum zentrotik eta eskola kanpotik diseinatzen eta garatzen da Ikastetxean, zehazte curricularraren prozesuak eta ikastea posible egiteko interes jakin batzuk araututako interakzioen prozesuak daude. Aldi berean, kanpoko eragina jasotzen duten prozesuak dira; izan ere, instituzio sozialen egituraren parte dira.

Curriculumaren garapena ikastetxeetan egiten da, bizitza antolatzailea duen esparru instituzionalean. Curriculum legalki ezarritako estruktura formal batean egiten da. Curriculum hainbat baldintzak eta erabakik zehazten dute: ikaslea bere berezitasun eta beharrekin, etengabe eguneratutako kulturak eta zientziak, gizartearen eta gurasoen nahiak, erabaki administratiboek, behar sozialek eta ekonomikoek, ikastetxearen baldintzek, ohiturek eta irakasleen interpretazioek, eskola-instituzio bertako edota kanpoko harremanek.



Ikastaldia curriculum bat sortzean oinarritzen da eta talde sozialetan egiten da. Horietan errealizazioek eta trukaketa fisikoek, afektiboek eta intelektualek taldearen bizitza osatzen dute eta ikasteko prozesuak baldintzatzen dituzte.

Curriculum testuinguru jakin batean diseinatzen eta garatzen da. Testuinguru horrek orientazio ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta legegileak ditu. Hala, heziketa-esparruetan, heziketaren bidez teorizatu eta operatu beharreko moduak eraikitzen dira.

Testuinguru instituzionaletan kanpoko testuinguruaren eta lan egiteko moduen arteko konexioa nabarmena da. Kanpoko aspektu desberdinetan aldaketa sakona egiteak, luzera begira, zentroetan eta ikasgeletan aldaketak egiteko baldintzak sortuko lituzke.

7.2.- Kanpoko eragina

Ezin da ahaztu curriculum egiteko faktore garrantzitsuetako batzuk gertuko zein urruneko inguruetan izandako aldaketak direla. Aldaketa filosofikoek, ekonomikoek, sozialek, kulturek zein teknologikoek eskola-instituzioetan aldaketak egitea eskatzen eta ahalbideratzen dute.

Baieztapen hori adibideen bidez ikusteko, ezinezkoa da euskarak heziketan duen garrantzia ulertzea Euskal Herrian gertatu direnen gaineko kontzientzia sozialik eta aldaketa politikorik gabe. Mundu sozialean teknologia berrien presentziarik gabe eta horiek sartu ezean, ez ziren teknologia berriak sartuko irakurtzen ikastea sustatzeko.

XIX. eta XX. mendeetan eratzen joan garen haurtzaroaren ikuspegi berria ulertu ezean, ezinezkoa da haurraren kontzepzioa eta bere harremanak zein curriculum ulertzea. Hezkuntzaren hedatzea eta demokratizazioa ezin da ulertu ezagutzari emandako garrantzia kontuan izan ezean; ez eta garapen ekonomikoaren ulermenean eta zerga-arloan aritzeko modu berrietan sakondu gabe ere. Haurren garapena eta haztea ulertzeko moduak ez dira ikertzaileen deskubrimenduetatik gehiegi urruntzen. Horiek beren jarduera profesionala, batik bat, ikasgeletatik eta beste espazio interaktibo instituzionaletatik burutu zuten (Piaget, Vygotski, Brunner).



Giza eskubideei eta haurren eskubideei emandako garrantziak, teorikoki behintzat, egun ikastetxeetan nagusitutako harreman mota berriak ulertzen laguntzen du, tratu txarrak albo batera utzita eta harreman positiboak sustatuta.

Mundializazioak, teknologia berriek, harremanak eta trukaketak hedatzeak, eta abarrek atzerriko hizkuntzak lehenagotik ikasten hastea eragin dute.

Ikasle eta irakasleen arteko komunikazio pertsonal eta didaktikoak aldaketak eduki ditu, komunikazio-teorien eboluzioaren eta haurtzaroko betebeharrak eta eskubideen sorreraren ondorioz. Aldaketa hauek roletan eta metodoetan eragiten dute.

Adibide horiek nahikoak dira aldaketa sozialen eta kulturalen garrantzia ulertzeko heziketa-aldaketen zirikatzailerik zuzen edota zeharkako gisa. Ikastetxeak etengabeko interakzio prozesuan daude gertuko zein urruneko testuinguruekin. Eta, batzuetan, rol sozial garrantzitsua hartzen dute aldaketa horiek hedatzerakoan eta gizarteratzerakoan.

8.- Curriculumama definitze aldera


8.1.- Zer da curriculumama

Definizio samur batetik abiatuko gara. ELOk dioenez, “curriculumama helburuen, oinarritzko gaitasunen, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio irizpideen multzoa da” (6.1. art.). Curriculumama definitzeko beste modu batzuek diotenez, heziketa-instituzioetan landu beharreko heziketa-proiektua da. Heziketa ezagutzak bereganatzea baino zerbait zabalagoa da. Heziketak aspektu kulturalak, sozialak zein pertsonalak hartzen ditu barnean. Heziketan



ezagutzak, prozedurak, jarrerak eta baloreak egoten dira.

Ondoko grafikoa curriculuma zer den argitzen saiatzen da:



Curriculuma herrialde zein testuinguru jakin batean zientzia, kultura, teknika eta soziabilizazio proiektua da. Laburtzeko, esan dezakegu proiektu kulturala dela (gizartea, zientzia, kultura). Gure kasuan, Euskal Herriko testuingurua izan behar dugu kontuan bertako errealitate legalekin, instituzionalekin, sozialekin, kulturekin eta ekonomikoekin. Curriculum proiektua aukeratutako helburuen zein edukien eta sortutako praktika didaktikoen arabera zehazten da.

Euskal Herrirako curriculumak esan nahi du heziketa-helburuak irakaskuntza-ikasketa prozesu bilakatzen direla, aukeratutako eta egindako helburuen zein edukien bidez. Curriculuma heziketako oinarrizko helburuak irakaskuntzako zein ikasketako prozesu bilakatzen dituen prozesua da.

Euskal Herrirako curriculuma aukeraketa kulturala da (aukera antropologikoa, kulturala, zientifikoa eta teknikoa), ikuspegi sozial zein psikopedagogiko batetik antolatua dago, eta une historiko honetan egindakoa da. Aukeraketa hori ikastetxeetako proiektua da. Aldi berean, Administrazioaren eta ikastetxeen konpromisoa beharrezkoa da bitartekoak jartzeko eta garatzen jakiteko.




Euskal Herrirako curriculumak gure ikastetxeetan ikasleengan landu eta lortu beharreko gaitasunak adierazten ditu. Konpetentzia horiek etikoak, kognitiboak, prozedimentalak, sozialak eta teknikoak dira. Eta ikasleek ikasten dutena garrantzitsua da beren buruarentzat eta gizartearentzat. Curriculumaren jartze ofizialak eta instituzionalak ez du guztia antolatu behar; espazio askeak utzi behar ditu eta familiak zein beste eragile batzuk daudela jakin behar du. Ez du sistema totalitario bat sortu behar.

Ikasleek lortzen duten ezagutza mailak eta motak ondorioak ekartzen ditu garapen pertsonalean, harreman sozialetan eta gizabanako horrek bere testuinguruko estruktura laboralean lor dezakeen estatusen. Eta gizartean, elkarbizitzaren etorkizunean eta ondasunen zein zerbitzuen ekoizpen sisteman ere izaten ditu ondorioak.

8.2.- Curriculumaren zailtasunak

Euskal Herrirako curriculuma zer den ulertzeko ondoko galdera egin behar da: zer egiten eta pentsatzen dute familiek heziketan, gizartean oro har, gobernu instituzioetan eta ikastetxeetan (gurasoak, irakasleak eta ikasleak)? Erakunde horiek curriculumaren bidezko heziketari dagozkion helburu zein intentzio sozialak benetako praktikan erakusten dituzte.



Ez da harritzekoa curriculuma dimentsio anitzeko zerbait edota konplexua dela esatea. Dimentsio anitzekoa da, bertan era askotako dimentsioak daudelako eta gurutzatzen direlako: zientzia eta kultura; etika eta



teknika; antola daitekeena eta didaktikoa; prestaketa intelektual eta lanbide heziketa; pertsonala eta materiala; gatazkak eta akordioak


Curriculumama konplexua da; izan ere, dimentsio guztiak elkarrekin lotuta daude eta elkarri eragiten diote eguneroko praktika sortzeko. Curriculumamak benetako, ikus daitekeen eta ikasleen heziketan zein hezkuntzan eragiten duen praktika bideratu eta hobetu behar du.

Euskal Herrikoa bezain gizarte dinamikoan eta anitzean, esfortzu integratzaile eta analitiko bat ahalbideratzeko harremanetarako, topaketarako eta elkarrizketarako espazioak behar dira. Bene-benetan hezkuntza hobetzeko inplikaturako subjektuak behar dira. Horien betebeharra analizatzea, eztabaidatzea eta akordioetara iristea izango litzateke heziketa, hezkuntza eta horiek benetako praktikak ulertzeko duten moduan. Gutxieneko akordioak behar dira. Eta akordioak zailak dira parte hartzen duten sektoreak edota indarrak euren planteamendu ideologiko zein pedagogiko osoak ezartzen saiatzen badira.

Ikastetxe beraren barruan lan taldearen lanak honakoak dira: gogoeta, planteamenduak, benetako praktikak eta hobekuntzarako proposamenak. Zaila da giza ekipoek modu koordinatuan lan egitea lana partekatu eta taldeko gogoeta egin ezean. Ikastetxeek eta irakasleek egingarriak diren gauzetan pentsatu behar dute, oinarritze filosofiko, kultural eta psikopedagogikoa inoiz galdu gabe.

8.3.- Curriculumaren oinarriak, zimenduak eta iturriak

Curriculumaren oinarrien eta zimenduen arteko bereizketa egitetik abiatuko gara. Euskal Herrian, curriculumaren **oinarriek** errealitateari egiten diote erreferentzia; hau da, curriculumama planteatzen eta egiten den une historikoa osatzen duten baldintza sozialei, politikoei, ekonomikoei, kulturei (horien artean linguistikoei), lege arauari, etab.



Oinarri horiek eragin handia daukate curriculumean. Curriculuma testuinguru sozial, ekonomiko eta kultural jakin batzuetan gauzaten da. Heziketa-instituzioak modu batean ala bestean erantzuten dio ingurune horri. Kontuan izateak ez du esan nahi irizpiderik gabe eta itsu-itsuan eskaerei zein aldaketa kulturei, ekonomikoari, sozialei, produktiboari, psikologikoari eta teknologikoari egokitzea.

Curriculumaren **zimenduak** ezagutza filosofiko, psikologiko, soziologiko, zientifiko eta pedagogiko teorikoari zein praktikokoari buruz ari dira. Horiek printzipio gisa hartzen dira hezkuntzaren helburuak zehazteko eta ekintza-ildoak elaboratzeko.

Atal honetan jorratzen ari garen arazoa terminologiatik eta curriculumaren **iturrien** ikuspuntutik ere jorratu izan da.


Proposamen ororen atzetik iturri batzuk dauden segurtasuna egoten da. Eskola-curriculumeko parte izango diren osagaiak erabakitzeko garaian, erabakiak zertan oinarrituko ote diren galdetzen diegu geure buruari. Nondik dator curriculuma? Erabaki curricularren oinarrian zein motatako irizpideak edota argumentuak egon ohi dira? Zergatik jarri dira lehentasun horiek? Zergatik antolatu dituzte gaiak unitate txikiagoetan zatikatutako hiru bloke handitan? Zergatik landu nahi dute ikuspuntu metodologiko hau eta ez beste bat?

Literatura pedagogiko espezializatuak galdera horiei erantzuten die curriculumaren iturriei buruz hitz eginda. Curriculum proposamen hori egiterakoan kontuan hartu diren zimenduei eta aukerei buruzko galderak dira.



8.4.- Curriculumaren iturriei buruzko argibideak.

Legitimizazio eta esanahi iturri gisa ondoko laurak aipatu ohi dira:



a) **Iturri soziologikoa:** errealitate sozialaren eta bertan eskolak izan beharreko jarreraren analisia.

b) **Iturri psikologikoa:** heziketa-proposamena eskainiko zaien ikasleen ezaugarri psikologikoak.

c) **Iturri epistemologikoa:** heziketa-eskaintzako parte diren heziketa-edukien eta ezagutzen ezaugarriak.

c) **Iturri pedagogikoa:** heziketa-prozesuaren zentzu globala, eta heziketa-eszenatokien, erabiliko diren baliabideen eta prozesuan inplikaturako pertsonen jarreraren ezaugarriak.

Hori da curriculum iturrien zentzua: une jakin batean Herrialde jakin batek erabaki curricularrak zergatik hartzen dituen hartzen dituen moduan eta zergatik antolatzen duen heziketa-eskaintza antolatzen duen moduan azaltzea. Eta beste hainbeste esan behar litzateke ikastetxeei eta irakasleei dagokienean erabaki curricularrei buruz.

8.4.1.- Iturri soziologikoa. Zein da eskolak duen rola egungo gizartean?



Termino orokorretan hitz eginda, gizarteak eskolari ematen dion funtzioa era honetara defini daiteke: haurrak eta gazteak komunitatean erabat integratzeko ezagutzekin, gaitasunekin eta jarrerekin heztea.

Gobernuetako arduradunek, familiek, gizarteak, prentsak, mugimendu sozialek eskolari nahi ez duten egoeretan aurkitzen direnean begiratzen diote: langabezia, osasun arazoak (IHESA), elkarbizitzako arazoak (bakea, arrazismoa, sexismoa), gazteen delinkuentzia, bakerako heztea, lanbide prestaketa.


Arazo horiek guztiek balio dute Euskal Herriaren kasurako. Dauzkagun irakasle motak, gurasoen eskaerak, industria, nekazaritza edota zerbitzuen ekoizpena zein etorkizuneko exigentziak ere kontuan hartu behar dira.

Gizarteak eta eskolak beti bat etortzen ez diren eskaerak egiten dituzte, eta, batzuetan, baita subjektuen heziketarekin eta garapen pertsonalarekin konprometitutako eskolek heziketa-instituzio gisa izan beharreko baloreekiko kontraesankorrak ere: subjektuak erabat heztea, baina garrantzitsuena ezagutzetan emaitza onak ateratzea izaten da; subjektuak heztea eta horien beharrei erantzutea, baina axola zaiena exigentzia curricularrak dira (programa ematea, azterketak gainditzea, etab.); pertsona autonomoak eta arduratsuak osotasunean heztea, baina espero dena da eskolak ikasleei inolako eztabaidarik gabe arau sozialak onartzen irakastea; eskolari balore zein irizpide moralak garatzeko eskatzen zaio (elkartasuna, egitasuna, arauak errespetatzea, desberdintasunak onartzea, ardura, etab.). Horiek, ordea, gizartean erabat galduak daude.

Eskolak bere irizpideak eduki behar ditu. Zer esan nahi du garapen pertsonala eta helduen mundurako integrazioa ahalbideratzeak eta indartzeak. Eskolak gizarte honetako funtzioetarako, lanetarako eta funtsezko erantzukizunetarako prestatzen du.

Garapen pertsonala eskolaren helburu nagusia helburua da. Eskolak gaitasun pertsonalak indartzean pentsatu behar du. Osotasun pertsonalean orientazio etikoa, baloreak, autoestimua, oreka eozionala, osasuna eta abar daude.

Ikus dezagun proposamen posible bat. Eskolak ondokoa egin behar du:



- Lan mundurako prestatzea. Dirudienez, balioantzeko langileak eta profesionalak beharko dira, teknologia berrietara iristeko eta horiek erabiltzeko gaitasuna dutenak, eta teknologia berriak barnean hartzen dituzten gaitasun linguistikoak dituztenak.

- Aisialdiko eta denbora libreko mundurako prestatzea. Aisialdiko aukera gehienek ekipamendu kultural indartsuen beharra daukate. Eta eskolak horietaz gozatzeko oinarriak jartzen ditu. Musikak, antzerkiak, arteak, turismoak, kirolak, eta abarrek aurretik ezarri beharreko oinarriak behar dituzte, eta horiek eskolak eraiki behar ditu.

- Harreman pertsonaletarako eta sozialetarako prestatzea. Eskolak bere ikasleei aukera aberatsak zein anitzak eskaini behar dizkie, jokaera sozialaren eta pauso moralen zein elkarbizitzakoen oinarrizko patrioiak ulertzeko.



- Demokrazian bizitzeko eta parte hartzeko prestatzea. Horrek ekarpen kultural indartsuak zein pertsonen heziketa-ekarpen globalak eskatzen ditu. Beti pentsatu izan da kultura aldetik jantziak diren herriei diktadurek eta menpekotasunek gutxiago eragiten dietela.


8.4.2.- Iturri epistemologikoa. *Eskolak zein motatako ezagutzak eman behar ditu?*

Oharra: gai hau eduki curricularren atalean sakon daiteke.

Curriculumaren aurreko kontsiderazioetarako bigarren euskarri batek eskolak bertara joaten diren ikasleei irakatsi beharreko ezagutzei egiten die erreferentzia.

Eskolaren oinarritzko funtzioa heztea da, eta hezteak subjektuei beren garapen pertsonala eta kulturala indartzeko ezagutzak zein gaitasunak ematea esan nahi du, bai eta horien gizarteratzea erraztea ere. Ezagutza mota eta ikasketa-esparrua zehazterakoan sortzen dira arazoak.

Atal honetan sortzen diren galderak honakoak dira:





a) Eskolatik zein ezagutza-esparru ireki behar dira?

Ikuspuntu baten arabera, eskolak eremu zientifikoetako eta ezagutzakoetako oinarrizko ezagutza-elementuekin konprometitu egon behar du. Baina proposamenetan kontraesanak daude.

Batetik, oinarrizkora itzultzea aipatzen da. Diotenez, adibide gisa, Lehen Hezkuntzan haur guztiek idazten, irakurtzen eta matematika-ariketak egiten dakitela ziurtatu beharko litzateke. Eskola-eduki gehiegi edukitzeak oinarrizko erreminta instrumentalak gutxiegi garatzea ekarri du. Hori dela eta, haur askorengan gutxitasun handiak sumatzen dira, eta arrazoi horrengatik goragoko hezkuntza-mailetan porrot egin ohi dute.

Ikuspuntu honek dioenez, eskolak curriculum anitzagoa eta subjektuen esperientziari lotutakoa eskaini behar du. Oinarrizko ideia curriculumean eskolatik aberats daitekeen ezagutza edota esperientzia-esparrua sartzea da. Oinarrizko galderak ondokoak dira: ikasleek zer behar dute? eskolak sustatu beharreko zein elementu berri daude?

b) Zein ezagutza-mota?

Eskola-curriculumean sartzan diren ezagutza edota esperientzia-esparruak zehazteaz gain, esparru horietako bakoitzean landu beharreko ezagutza-motak ere zehaztu behar dira: ezagutza oso orokorra edota espezializatuago bat; ikasgaietan zentratuago dagoen ezagutza edota subjektuen beharretan zein interesetan zentratuago dagoena. Oinarrizko bi aspektu nabarmen daitezke:

- orokortasunaren eta berezitasunaren edota sakontasunaren arteko dilema.

- akademizismoaren eta erabilgarritasunaren arteko dilema.

Planteamendu sinpleak eta osatu gabeak albo batera utzi behar dira. Garbi dagoela dirudi eskolak luzera begira erabilgarria izango den ezagutza eman behar duela. Ezagutza esanguratsu eta garrantzitsua sustatu behar da. Horretan laguntzen dute edukien sekuentzializazio egokiak, metodologia aktiboak, komunikazio leunak eta beste alderdi didaktiko batzuk.



Hala, "akademikoezia" den edukien ohiko estruktura berriro orientatzen ari dira egungo curriculum planteamenduetan.

Baina egoera bakoitzeko erabilgarritasuna, haur psikologia edota egoera partikularrak ikasketako edukien eta bertako antolaketa-diziplinarreko erabateko determinatzaile bilaka daitezke. Ikasgaiak gehiegi hausten baditugu, horiek ikasleentzat esanahirik eta erakargarritasunik ez duten datuen eta kontzeptuen kutxa soil bilaka daitezke.


Oinarritzkoa dirudi aukeratzen diren ezagutzak eta eskola-curriculumeko esparru zientifiko edota esperientzia bakoitzeko edukien ezaugarriak kontuan hartzea. Laburbilduz, curriculum planteamendu honetan ondoko puntuekin lotutako hainbat gai daude:

- ikasten diren edukietan azalergia sakontasunaren orde.
- ezagutza orokorrak ingurune propioko ezagutzen partez.
- ezagutza teorikoa praktikan oinarritutako ezagutzaren orde.
- eskola-ezagutzak bizitzarako ezagutzen partez.

c) Zein harreman mota edukien eta trebetasunen artean?

Eduki asko (curriculum esparruetan ikasitako informazioak zein kontzeptuak) zaharkiturik geratzen dira, eta azkar ahazten dira.

Gaitasunak zein trebetasunak ahazteko zailagoak izaten diren estrukturak dira, nahiz eta aldizkako ariketak eta berrikusketak behar, eta erabateko egonkortasuna eta erabilgarritasuna daukaten (bai maila handiagoko trebetasunen oinarri gisa, bai banaka erabiltzeko).





Eskolan lantzeko hainbat trebetasun mota adierazi ohi izaten dira:

a) horietako batzuk orokorrak dira; hala nola, komunikazio trebetasunak, arazoak konpontzeko trebetasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, etab.

b) besteak trebetasun bereziagoak dira, eta ezagutza-esparru askotan agertu ohi dira: trebetasun artistikoak, trebetasuna materialen tratamenduan, curriculum esparru desberdinetako teknikak dominatzea, etab.


Trebetasunek eskolatik kanpora aplikazio zein garapen esparrua edukitzen dute. Ikasleek euren eguneroko bizitzan ikasten eta garatzen dituzte. Baina ez da gauza bera gertatzen trebetasun guztiekin. Badira esparru batzuk ustiatzeko aukera urriak dituztenak, eta horiekin guztiekin ere ez da maila berean gertatzen. Trebetasun batzuk asko garatzen dira, beste batzuk, ordea, baztertuagoak geratzen dira. Hori dela eta, eskolan baino landu ezin daitekeen lan sistematikoa egin behar da.

Heziketa-prozesuan, eskolak trebetasunen garapena graduatzeko aukera eskaintzen du.

8.4.3.- Iturri psikologikoa *Nori zuzendua dago curriculum?*

Curriculumaren iturri psikologikoak curriculumaren praktikak eta diseinuak kontuan izan beharreko subjektuen ezaugarriak eta eboluzioa ikertzen ditu. Eskola-ekintzari esker, subjektuek eskolak eskaintzen dituen baliabideak lortzeko aukera daukate; eskolak ematen dituen bitartekorik gabe lor ezin ditzaketenak, hain zuzen.

Planteatu ohi diren baldintza psikologikoetan oinarritzko lau aspektu agertu ohi dira, eskola-curriculumen alde aurreko kontsiderazio gisa



a) Subjektuen **beharrak**. Curriculumak gizarteko exigentzia kulturalen eta subjektuen beharren arteko oreka egokia bermatuta egin behar dira.

b) Subjektuen **interesak**. Curriculumak subjektuen interesak sartzeko gai izan behar du. Ikasleen interesen gaia aniztasunaren kapitulu orokorrari dagokion ataletako bat da. Gaitasunen, aldez aurreko garapenaren, etorkizuneko itzaropenen, interesen eta abarren aniztasuna dago. Hala, aniztasunak erantzun globala eta balio anitzekoa behar du. Eta curriculum ekintzen aspektu ugari eragiten dio: metodologiak, materialak, lehentasuna duten heziketa-esparruak, ibilbide alternatiboak eta berdintzaileak.

c) **Motibazioa**. Eskolak lortu beharreko helburu garrantzitsua ikasleei ikasteko eta etengabe ikasten jarraitzeko nahia da. Motibazio gaia, curriculumean, ikasleen irakaste-ikaste prozesuak jarrera, erritmo eta interes



aniztasunera egokituta landu behar dira. Egokitzapen horiek egiteko aukerak bi motatakoak dira:

- duten aplikagarritasunarengatik edota garrantziagatik motibagarriak diren edukiak aukeratuta.

- subjektuen jarduera handia eskatzen duten estrategia-motak bilatuta, metodologiaren bidez. Metodologiaren esparru honetan bertan irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanen gaia landu behar da

d) subjektuen **trebetasunak**. Kontuan izan beharreko beste aspektu interesgarrietako batzuk eskolara joatean ikasleek izan ohi dituzten trebetasun desberdinak dira. Nahita nahiez, martxan jarritako eskolak eta curriculumak homogeneo bihurtzeko efektuak sortuko dituzte. Horrek, ordea, ez du esan nahi subjektuen oinarrizko desberdintasunak oharkabean geratzen direla edota euren curriculum antolaketan kontrapartidarik ez daukatela.

Bi era nagusitan curriculumaren garapenean trebetasunak integratu behar dira:

- a) horiek eskola-ekintzaren abiapuntu gisa kontsideratzea. Horretarako hasierako ebaluazio ona behar da aurretik subjektuek garatutako gaitasunen aurrean kokatzeko.

- b) eskola-praktikan landu beharreko garapen esparru berezi gisa hartuta. Trebetasun bakoitzak garapen estrategia bereziak behar ditu. Irakasleak ez du itxaron behar subjektu bakoitzak "gaitasuna duela eta aurrera jarraitzeko prest dagoela" adierazi arte. Trebetasuna bera heziketa-edukia da, eta heziketa-ekintzen helburu berezi bilakatu behar da.

8.4.4.- Iturri pedagogikoa

Modu sinplean, esan daiteke curriculumaren *iturri pedagogikoak* ondoko ildoak betetzen dituela:

- 1) "Hezkuntza" eta ideia horretako balore gisa ulertzen denarekiko eskolaren konpromisoa, nolabait interpretatuta: heziketa-modeloa.




2) Eskolak bete nahi dituen heziketa-espazioak zehazteko modua eta horietan sartzen diren aspektuak: eskolan egin beharreko lanean eragina izan beharko luketen pertsonaren dimentsioak zehaztea.

3) Ikastetxearen estruktura zein dinamika instituzionala, eskolako heziketa-jarduera garatzeko eszenatoki berezi gisa. Eskola antolaketaren garrantzia nabarmentzen da.

4) Emandako heziketa-lana burutzeko, eskolek zein irakasleek onartzen dituzten estrategia metodologikoak.

5) Irakasleen figura eta lana, edukiekiko eta instituzioarekiko harremana, eta horien lana burutzeko aurreikusten den modua. Hasierako eta etengabeko prestakuntzak bere biziko garrantzia dauka.



8.5.- Zertarako balio du curriculuma.

Curriculum diseinuak forma ematen die heziketa-helburuei. Curriculum erabakiek sustatu nahi diren esperientziak, edukiak, jarduerak eta gaitasunak adierazten dituzte. Diseinuarekin batera garapen curricularra jorratzen da. Teoria eta diseinua ez dira gauza garrantzitsu bakarrak, heziketa-praktika ere hor dago.

Praktikak irakaste-ikaste prozesuetara garamatza, gela/tailer/laborategi jakin batean, irakasleen eta ikasleen arteko interakzioan, heziketa-materialetan zein edukietan lan eginda, giza giroan zein giro sozialean.



Zertarako balio du curriculumak

- Curriculumak heziketa-helburuei forma ematen die
- Curriculumaren praktika irakastean eta ikastean oinarritzen da.
- Curriculum praktika analizatuta, eskola analizatzen dugu.

Ikastetxe bat aztertzeko, elaboratzen zein garatzen duen curriculumak kontuan izatea garrantzitsua da. Curriculumak elementu nuklearra da heziketa-instituzio bat zer den analitzatzeko.

Sortzen duen giroaren eta curriculumak garatzeko antolatzen dituen jardueren bitartez, heziketa-instituzioak hezi eta gizarteratu egiten du. Bere funtzioa sustatutako edukien eta egindako praktiken bidez betetzen da.

Curriculumean garrantzia handia daukate azpian egon ohi diren ideiek, egiteko zein garatzeko ideiek eta curriculumak berak sortzen dituen prozesuek. Horrek guztiak hezkuntza-sistemak zein zentroek nola pentsatzen eta lan egiten duten adierazten digu: testuinguru politikoa zein administratiboa, erabakien banaketa, planifikazioa eta diseinua, gizarte eragileen parte hartzea, materialak, irakasleen garapena, emaitzen ebaluazioa, ikasleen ikasteko lanak, antolaketa-baldintzak eta baldintza materialak, irakasleak ematea.

8.6.- Curriculumaren zeregin bereziak


Curriculumak karakterizatzen saiatuko gara, betetzen dituen hainbat funtzioen bidez. Curriculum orientazio bakoitzak funtzio bat ala bestelakoren bat nabarmenduko dute.

A) Ez dago hezkuntza-irakaskuntzarik eduki kulturalik gabe (etika, kultura, zientzia, teknika), eta horiek curriculumean forma jakina hartzen dute. Curriculum aukera bakoitzak aukera kultural bat ematen du. Giza aspektuetatik, aspektu sozialetatik zein kulturaletatik (elkarbizitza, etika, arau sozialak, hizkuntzak, etab.) hasi eta zientzia desberdinetan kodetutako aspektuak arte (informazioak, kontzeptuak, legeak, arauak, aplikazioak, teknikak, etab.).



Garrantzitsua da eskolan sartzea giza-edukiak (garapena, etika), sozialak (gizarteratzea), kulturalak (kultura landua eta herrikoia; adierazpen linguistiko eta historikoak) eta lan-aurrekoak (lan mundurako prestaketa urruna edo hurbila).

Praktikarako eta praktikan, curriculuma proiektu kulturala da (etika, zientzia, kultura, teknika). Era horretako proiektu batek sentsibiltate desberdinak integratzen eta ikasleen zein gizartearen beharrei erantzuten saiatu behar du. Eskeman ikus daitekeen moduan, elkarri eragiten dioten hiru elementuk zehazten dute curriculumaren errealitatea:



B) Curriculuma plan edota gida gisa balio du. Martxan jarri beharreko proiektu kulturala aukeratutakoan, Euskal Herrirakoko curriculuma hezkuntza-jarduerarako plan edota gida izango da. Planean edota gidan garrantzia ematen zaie edukien helburuei, jarduerari, ebaluazio modeloei, bitartekoei zein antolaketa-baliabideei, administrazio kontrolei, eta abarri. Gure ustean, Euskal Herrian plan honek irekia eta malgua izan behar du aniztasunaren adierazpena eta ikastetxeko proiektuen eraketa errazteko. Planak oinarrizko gaitasunen lorpena edo eraikuntza bermatu behar du, kultur edo hizkuntza adierazpen propioengan arreta berezia jarritz. Oinarrizko gaitasunen lorpenari dagokionez, erreferentzia garrantzitsua da Europar Parlamentuaren planteamendua, zeinetaz aurrerago hitz egingo baita.



C) Benetako praktikan, eskolako eragile pertsonalen interakzioan, hezkuntza-instituzioak ikasleengan esperientziak sortzen ditu (intelektualak, teknikoak, sozialak, kulturalak, harremanekoak, afektiboak, etab.). Ikasleek esperientzia ugari bizitzen dituzte ikastetxeko ikuskaritzapean lan egiten duten bitartean. Ikasleek bizitza pertsonalerako, kulturalerako, sozialerako zein laboralerako garrantzitsuak diren gaitasunak lantzen dituzte.

Laburbilduz, curriculuma edukia eta prozesu pedagogikoak zein didaktikoak dira. Horien bidez, ikasleak ezagutzak hartzen ditu, gaitasunak lantzen ditu, jarrerak, apreziazioak zein baloreak aldatzen ditu, eta ikastetxean hainbat prozedura ikasten ditu. Hitz batean esanda, lortu nahi diren gaitasunak lantzen laguntzen du.

Curriculum eskolarako antolatutako proiektu kulturala da	eta planifikatu egiten da eta gida bilakatu
--	---

hainbat esperientzia etiko, sozial, kultural, zientifiko zein tekniko estimulatzeko.


8.7.- Lehenengo zehaztasun maila.

Gure gizarte demokratikoetan hezkuntza-administrazioetatik egindako curriculum definizioa dago. Curriculum horiek eskola ikaste prozesuan dauden herritarrentzat zein eskolentzat proiektu komunak dira. Definizio administratibo hau garrantzitsua da, Euskal Herrikoaren moduko gizarte konplexuarentzat zein anitzarentzat, partekatutako gutxieneko helburuak zein edukiak izateko, desadostasun ideologikoetatik eta kulturaletatik harago.


Definizio administratibo horiek herritarrentzako gutxieneko kulturaren eta kultura komunaren berme dira, erreferentzia komunak izateko aukera ematen dute, bazterketak albo batera utzita gizarteratzea sustatzen dute, lan mundurako urruneko zein gertuko prestaketa ematen dute, bai eta kalitatezko gutxieneko oinarriak ere, beste hainbat gauzaren artean.



Euskal Herrirako curriculumak ikaslearen ikaskuntzan eragiten duten erabaki curricular guztiak hartzen ditu barne. Ikastetxetik, gelatik, administrazio eta testu liburuetatik eta beste iturri curricularretatik hartzen diren erabakiak, alegia.



Curriculum ofiziala ez da Euskal Herriarentzat izango den curriculum osoa. Beste gauza bat curriculum ofizialaz hitz egitea da. Euskal curriculum ofizialetaz ari garenean, administrazio zein gobernu agintarizetatik aurreikusten diren curriculumez ari gara; Euskal Herriko ikastetxe guztietan irakatsi eta ikasi beharreko curriculumak. Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, curriculum ofizialean Europa eta bertako ildoak, Hezkuntza Ministerioa eta Hezkuntza Saila daude konprometituta.




Hori dela eta, bada erabaki ofizialaren lehenengo maila bat, eta bertan hainbat aspektu agintzen eta proposatzen dira:

1) euren ordenamendu juridikoarekin kontsonantzian dauden administrazioek eta, parte-hartze prozesuen bidez, helburuak, instituzio esparruak, curriculum mota, eta abar adierazten dituzte.



2) Curriculumari ematen zaion barne antolaketa ere adierazten du: curriculum arloak, ikasgai zein eduki batzuen aukeraketa, diseinu curricularra, antolaketa-printzipioak (arloan iraupena...), irakasleen funtzio orokorrak, etab.


Curriculum ofizialak Europatik, Hezkuntza Ministeriorik eta Hezkuntza Saitetik egindako araudiak barnean hartzen dituela esan ohi dugu. Bi araudiak ez dira izan behar zentroetarako curriculumeko bi partzela desberdin. Integrazio lana burutu behar da. Euskal Herriko administrazioak egindako araudiak Europatik Hezkuntza Ministeriotik eta Hezkuntza Saitetik datozen araudiak interpretatu eta integratu behar ditu, araudi guztiak ikastetxe jakinetarako koherenteak izan daitezzen. Integratzeak ez du esan nahi desitxuratzea, ez eta Ministerioko araudien kopia literala egitea ere.



9.- Eskola-curriculumaren hedapena



Eskolako lehenengo urteetan, curriculumak hezkuntza-proiektu globala eta integrala islatu ohi du. Kulturako, garapen pertsonaleko zein sozialeko, gizartean aritzeko behar garrantzitsuetako, oinarrizko trebezieetako zein gaitasunetako alor jakin batzuk biltzen ditu. Azken urte hauetan, hezkuntzak gizarte funtzioa ere badauka.



Eskolako ikaskuntzak izaera global hori hartu du hainbat arrazoi direla medio:

a) Eskolak gizarteratzeko lehentasunezko eragile bilakatzen ari dira: nortasuna garatzea, eskubideetan eta betebeharretan oinarrituta heztea, ohitura intelektualak eta lan teknikak hartzea, gaitasun profesionala, aniztasun linguistikoa zein kulturala errespetatzea, parte-hartze sozialerako prestatzea, garbiketa pertsonala sustatzea, kontsumorako heztea, sexu heziketa, drogaren kontsumoa saihestea, hedabideetara modu kritikoa irekitzea, teknologia berrien erabilera, kulturaren dimentsio estetikoaren berreskuratzea, ingurumen heziketa, bakerako heztea.

Lan hauek aurrera eramateko ezinbestekoak dira eskolaren prestigioa eta irakasleen duintzea.



b) Ikasleak ulertzea eta ikasle hori bizitza sozialean sartzea nahi da (eta ondoren lan munduan), eskola-prestaketaren bidez. Horrek curriculum konplexuago bat egitea eskatzen du.

c) Curriculumaren diseinuak zein garapenak guztiei eskolan arrakasta izateko aukera berak ematea lortu nahi da. Lan zaila da. Oinarrizko eta derrigorrezko curriculum a da azken helburua. Ikasleen artean bereizketarik ez egoteko, ikuspuntuetan, metodoan, materialean egin beharreko aldaketak zeintzuk diren pentsatu behar dugu, ikasle guztiek ongi pentsatutako curriculumaz gozatu ahal izateko. Helburua gaur egun eta etorkizunean herritarrek izango dituzten beharrei erantzutea da.

Curriculumean herritar guztientzat komunak diren elementuak zehazten dira. Kontu handia izan behar da edozein klasetako eta baldintzatako herritarrentzat curriculum bera egin behar denean. Edozein eremu zein aspektu sozialek balorazio sozial desberdinak izango ditu, eta modu desberdinean eragiten diete pertsona desberdinei. Zientziako, kulturako eta teknikako edozein alorrek gizartean balorazio desberdinak izan ditzake, eta alor horiek klase zein talde sozial desberdinek modu desberdinean baloratuko dituzte. Batzuetan, oso interes desberdinak egon ohi dira jokoan. Eskolak ondo pentsatutako irizpideak eskaini behar ditu, adostasun zabaletan oinarrituak eta pertsonen garapenean laguntzeko helburu nagusiarekin. Hauek ikuspegi etikoak edukiz sozial, kultural eta lan arlotik gizarteratuak egon ditzaten.

10.- Curriculumaren edukiak


Euskal Herrirako curriculum ofizialak eskumena duten administrazio publikoek araututako edukiak biltzen ditu.

Euskal Herrian irakatsi eta ikasi beharreko curriculum edukiak erakundeen eta administrazio publikoen curriculum proposamenak dira eta, horietaz gain, zentroetan, bertako curriculum proposamenetan jasotakoak zein irakasleek ikasgeletan, tailerretan eta laborategietan emandako interpretazio eta zehaztasun programatikoak dira.



Kultura, zientzia eta teknika etengabe berreraikitzen ari dira, eta beharrezkoa da curriculum edukiak eguneratuak edukitzea eta horiek irekiak zein malguak izatea.

Curriculum edukia arlo edota gai jakin batean (zientifikoa, kulturala, metodologikoa, jarrera, ekiteko trebetasuna...) zer eta zergatik irakatsi eta ikasi behar den ezartzen saiatzen da.



Arazo garrantzitsu batek eduki kulturalen (zientzia, kultura, teknika, zibismoa) eta behar pertsonalen arteko harremanari egiten dio erreferentzia. Badira ikuspuntuak garrantzia ikasleak jakin beharreko edota egiten jakin beharreko ezagutzei garrantzia ematen dienak (kontzeptuak, teoriak, prozedurak, trebetasunak, jarrerak). Beste aldean, curriculum ikuspuntuak daude; horiek ikaslearen beharrei erantzuteko proposamenak biltzen dituzte. Ikaslea testuinguru soziokultural jakin batean bizi den subjektu gisa hartzen da, bere historia propioarekin eta ezaugarri pertsonalekin. Ikaslearen eskola-espereintziako gailentasunari eta esanahiari garrantzia handia ematen dioten proposamenak dira.

Bi ikuspuntu horiek eskolaren eta hezkuntzaren kontzepzio desberdinei erantzuten diete: modelo kulturalak eta modelo espresiboak. Egun, bi ikuspuntu horiek harmonizatzen ari dira. Ikuspuntu horietako batera gehiegi hurbilduz gero, multzoa desitxuratzeko eta hezkuntzan oreka apurtzeko arriskua sortzen da.




Diotenez, batzuetan curriculumean eduki gehiegi daude. Hipertrofia, edukien alorreko material gehiegi, askotan kritikatu izan dute. Egun, eskoletara zuzendutako eskaerak handitzeko tendentzia dago. Eskola zuzendutako aurrerapen zientifikoak eta exijentzia berriek (bide-hezkuntza, hezkuntza zibikoa, atzerriko hizkuntzak, hedabideen ikerketa, gertuko bitartekoen ezagutza...) edukiak aukeratzea exijitzen dute.

10.1.- Edukia, zientzia, kultura, diziplina.

Zientzia, kultura, teknika, zibismoa eta etikako baloreak dira irakatsi beharreko edukien iturri nagusiak.

Zientzia egiaztatutako ezagutza da, errealitatea azaltzeko aukera ematen duen metodologia zientifikoaren bidez egina. Errealitatearen funtzionamendua eta zentzua deskubritu nahi ditu, teoriak sortuz, hipotesiak proposatuz, errealitatea ordezkatzeko aukera ematen duten modeloak diseinatuz, izateari eta giza jardueraren izan beharrekoari buruz justifikatutako proposamenak aurreratuz.

Kultura esperientziaren eta bizitzaren sintesia da, eta bertan ikusteko zein bizitzeko moduak elkartzen dira, baita giza talde baten ekintza-patroiak ere. Kulturaren kodeak, ohiturak, arauak, rolak, interakzioak daude, konpromiso mota batzuk ikusteko eta babesteko moduekin batera.




Curriculum esparruek edota diziplinek ezagutza-eremuetan egituratutako ezagutzari egiten diote erreferentzia. Irakaskuntzari eta ikaskuntzari lotuak daude. Helburua irakaskuntza-esparruak ezartzea da (eta ikerketakoak). Koherentzia, hedapen eta muga egokia eduki behar dute, ikasleei ezagutzen gorputz organizatua zein sistematikoa eskaintzeko.



Curriculumak gizakiaren oinarriko hiru esparru biltzen ditu: pentsatzea, ezagutzea eta ekitea. Curriculumak ondokoak lantzeko diseinuak zein praktikak sortu nahi ditu:

- a) pentsamendu zorrotzen zein irekien estiloak;
- b) pentsamenduko, ezagutzako eta ekintzako baloreak zein espresioak garatzen lagunduko dutenak (teknika);
- c) eta pentsatutakoarekiko koherenteak diren jokaera sozialaren zein etikoaren oinarri direnak. Horrekin ez dugu esan nahi jokaera etikoa zein soziala zientziaren eta teknikaren deribazio soil direnik.

Pentsamendu eta ekintza ikaslearen heziketako osagaiak dira. Ezagutza pentsamenduaren produktua eta prozesua da, eta edukia, berriz, ezagunak diren teoriaren, datuen, eskemen eta modeloen multzoa da.



Curriculum aukeraketan, kultura ez da ahaztu behar. Curriculumean Euskal Herrian garatutako kulturak egon behar du. Kulturak lekuren batean eta beste kulturekiko harremanetan sortzen dira. Kultura dimentsio askotan errealitatea ikusteko, ordezkatzeko eta berriro elaboratzeko modu berezia da. Hezkuntza-instituzioek bermatu behar dute komunitateak asimilatutako, sortutako eta erakutsitako kulturaren aberastasuna hurrengo belaunaldiei era dinamiko eta irekian transmititua izan dakiela. Herriaren ondarea gizarte osoaren ondasun eta aberastasuna da.



10.2.- Edukien aukeraketa

Curriculumaren egitekoetako bat edukiak aukeratzea da. Gai horren inguruan eztabaida handia egon izan da. Edukiak aukeratzeko oinarritzko irizpide batzuk proposatu dituzte: a) Ezagutza zientifikoaren eta kulturalen egungo garapena; b) diziplinen estruktura logikoa; c) Eboluzio garai bakoitzeko ezaugarri psikologikoak eta pedagogiaren zein didaktiken aurrerapena; d) Gizarte komunitatearen exijentziak eta beharrak (kultura, teknika, jokaerako patroi sozialak).

Irizpide bati, beste batzuk ahaztuta utzita, garrantzi handiagoa ematen badiogu, muturreko joerak izango ditugu. Curriculumean irizpide psikozenetrikoak (ikaslea, ezaugarri psikosozialak), logozenetrikoak (kultura, zientziak, teknika) eta soziozenetrikoak (behar sozialak eta lan beharrak) agertu behar dira, aurrerapen pedagogikoez eta didaktikoez ahaztu gabe.

Edukiak aukeratzeko irizpideak	<ul style="list-style-type: none">- Psikozenetrikoa (ikaslea, ezaugarri psikosozialak).- Logozenetrikoa (kultura, zientziak, teknika)- Soziozenetrikoa (behar sozialak eta lan beharrak).
--------------------------------	---

Edukiak aukeratzeko irizpide zehatzago batzuk proposatu dituzte: a) Ordezkatze irizpidea; b) Eredutasun irizpidea: gai bakoitzeko nukleo pribilegiatuak, zentzu instrumentalagatik edota zentzu logikoagatik; c) Esanahi epistemologikoa: diziplina bakoitzaren estruktura errespetatzean datza; d) Transferigarritasuna: orokor daitezkeen ikasgaiak, ikasitako garaiari eta beste garai batzuei aplika daitezkeenak; e) Iraunkortasuna; f) Konbentzionaltasuna eta akordioa: eskola-komunitatean garrantzia duen guztia errespetuarekin biltzea. g) Berezitasuna: beste esparru edota diziplina batzuetatik lantzeko zailak diren datuen edota aspektuen aukeraketa kanpoan ez uztea



10.3.- Edukiaren antolaketa.

Ohitura didaktikoetan, edukiak biltzeko zein antolatzeko hainbat modu egon dira:

1- Diziplinak. Lortutako ezagutza sistematizatzen ahalegintzen dira. Diziplina bakoitza ezagutza sekuentzian banatzeko, antolatzeko eta mugatzeko ahalegin gisa sortzen da. Garapen zientifikoaren sintesi gisa, diziplina bakoitzak ikasleei eskaintzen zaien ezagutza antolatzen du.

Diziplina zientifikoaren ikuspuntutik, edukiaren koherentziagatik kezka handia dago. Historian, barne logikak eta sistematizitateak aukera honen aldeko lana egin dute. Ezagutza zientifikoan, beste aspektuetako bat ikerketa-metodologiaren ikaskuntza da, eta horrek kontzeptu, modelo, teoria, sintesi horiek eta beste hainbat sortzen ditu.

Integrazio psikologikoa	Diziplina-esparruak
Diziplina artekoa	Diziplinak

2- Diziplina-esparruak. Zientziako barne estrukturan oinarritutako ahaleginak dira. Pentsamendu zientifikoaren zein kulturalaren integrazioa lortu nahi dute, hainbat diziplinatan komunak diren elementu integratzaileetan oinarrituta, baina euren artean nolabait ere bereizita. Adibide gisa, hainbat irizpideren arabera, taldeak egin daitezke: bizidunak- bizigabeak, gizakia-natura, izaki naturalak- izaki idealak.

3- Diziplina artekoa. Curriculumaren ezagutza antolatzeko modua da eta diziplinen edukien analisi formalean oinarritzen da. Helburua ikasgaietako azpiko elementu formal komunak aurkitzea da.

4- Integrazio psikologikoa. Ikasten diren edukien integrazio psikologikoarekiko kezka biltzen da. Interes zentroen inguruan eduki nukleoak





ezartzeko ahalegina, proiektuen sistema, zailtasunen sistema, curriculum experimentalak, izango lirateke edukien ordenazio mota honen adibideak.

Edukiak biltzeko modu desberdinak bateratzeko hainbat ahalegin egin dituzte. Horieta bat grafikoan ageri dena da.

Adin gutxiago
dutenetik.
Lehenengo kurtsoak

Adin gehiago
dutenerantz.
Kurtso aurreratuak



10.4.- Diziplina artekoa

Sustatzen ari den beste kontzeptu moderno bat diziplina artekoa da. Diziplina arteko curriculumak planifikatzeak hainbat aspektutan erabakiak hartu



beharra sortzen du: pertsonen inplikazioa, edukiak, esparru antolatzailea, baliabideak, etab.

Diziplinen arteko curriculum a ondoko galderari erantzuten saiatzen da: ikasleei behar adinako arreta jartzea, aurreko interesak eta esperientziak kontuan izatea, bere giro soziokulturaleko eta ingurune arazo espezifikoek ez ahaztea, galdera garrantzitsuak estimulatzea, pertsonen arteko harremanak sustatzea, curriculumaren akomodazioa erraztea arazo edota gai praktikoagoi eta garrantzitsuagoi, eta ikaslearen ekimena eta ikerketa sustatzea.

Diziplinei eta horien arteko konexioei buruzko eztabaida, oraindik ere, zabalik dago. Irakasleek zailtasun handiak dituzte diziplinen arteko unitate instruktiboak sortzerakoan. Teorikoki, diziplina artekoaren gaia ez dago itxita.

Diziplinen handikeriari (ikasgai bakoitzeko informazio edukia ikastea) diziplinen hausturarekin erantzun zitzaion (edukiak ez dira garrantzitsuak, horien bidez pizten den prozesua ez bada; irabazi formatiboek informatiboek baino garrantzi handiagoa daukate). Esperientzia aberatsak sortzen zituen edozein eduki baliozkoa zela uste zen. Baina, gaur egun, posible al da informaziorik gabeko formazioa (heziketa)? Kontrajarritako gaiak baino, nahiago da gaiak elkarren artean osagarriak izatea.

Gobernuak ezin du eztabaida hau amaitutzat eman bere erabaki baten bidez; izan ere, Gobernuak egin beharrekoa ez da ikastetxeen zein irakasleen erabakietara eta eztabaidetara irekiak dauden gai zientifikoetan eta pedagogikoetan parte hartzea edota horiek konpontzea legezko eztabaida batean.

10.5.- Diziplinak.

Ikasgai bakoitzak pentsatzeko modu jakin bat dauka bere barnean. Ikasgaiak aldatu egiten dira ikasleei ezarritako exijentzia logikoetan: laborategiko kimikak era bateko zehaztasunaren analisisa behar du, baina hori ez zen egokia izango literatur analisirako. Estatistika-grafiko baten interpretazioan eta poema edota margolan bat interpretatzeko erabiltzen diren prozesuak zein irizpideak desberdinak izaten dira.



Diziplinen arazoa

- Ikasgai bakoitzak bere exigentzia logikoak eta kognitiboak dauzka
- Maila altuagoetan, beldurra dago edukiak desitxuratzeko, maila jaisteko.
 - Instrukzioa eta hezigarria dena elkartu egin behar da.
 - Ona da diziplinen arteko eta diziplinen uneak elkartzea.
 - Didaktika aktiboen eta motibatzaileen beharra dago.

Ideiak kontsideratzeko, inferentziak zein dedukzioak erabiltzeko moduan, konfiantza-mailan eta orokortasunetan ordezkaturako unibertsalitatean desberdintasunak daude. Oso desberdina da zientzietan orokortzea eta gertaera sozialen edota historikoen iritzia orokortzea.

Diziplina bakoitzak bere logika, interpretatzeko modua eta lantzen dituen gertaerak zein fenomenoak antolatzeke modua dauka.

Zientzia batetik bestera, abstrakzio mailak aldatu egiten dira. Pentsamenduaren prozesu logikoen esanahia aldatu egiten da testuinguru zientifiko batetik bestera. Argumentu politiko batean, ustezko kasuak ez dira espezieen eboluzioari buruzko argumentu bat analizatuko litzatekeen modu berean analizatuko.

Maila altuagoetan (batxilergoa, goi mailako heziketa-zikloak) edukien desitxuraketa gertatzeko beldurra dago, diziplina bakoitzaren berezitasun kontzeptuala edota metodologikoa murriztuta, nahasketen, justaposizioen, maila beherakadaren edota hutsune garrantzitsuen bidez. Espezialisten planteamendu diziplinarioetan ikasleen interes falta edota zailtasun tekniko sinpleak egon daitezke (denbora falta, baliabideen urritasuna).

Diziplinen irakaskuntzan irizpide pedagogikoak sartu behar dira: teoria eta praktika lotzea, hainbat eremutako aplikazioak ikustea, fenomeno garrantzitsuak interpretatzen laguntzea, laborategietara eta tailerretara joatea, aurreko esperientziarekin gaiak lotzea.

Kontrajarritako exigentziak baino exigentzia osagarriak dira. Egun, mendebaldeko herrialde gehienetan, edukien axolagabetasunaren ideia baztertzen da. Hezigarria eta instrukzioa denaren artean sintesi bat egitea da, espresiboaren eta kognitiboaren artean, formatiboaren eta informatiboaren



artean; izan ere, pentsamenduaren ariketak ez dira hutsean egiten, ezagutza-
edukien zimenduen gainean baizik.

Eskolaratzea aurrera doan heinean, hainbat irakaslek eduki desberdinak
irakasten dituzte; ezagutza-esparru bateko edota ikasketetan landutako
gaietako espezialistak dira. Baina posible da ikasgai bakoitza ikuspuntu
globalizatuago batetik ematea ere, beste zientzien ekarpenak erabilita.

Unitate didaktikoen eduki globalizatuen ikuspuntu globalizatzaileak
plantea dezake esparru desberdinetan aurreikusitako eduki guztiak sartzea.
Esparru desberdinetako edukiak barnean hartzen dituzten gaietatik abiatzeak
ez du baztertzeko diziplinen edukiei dagozkien curriculum proiektuak egiteko
beharra. Eduki guztiak gai edota proiektu batean kokatzeko ahaleginak, posible
izango balitz, ikuspuntu globalizatzailea justifikatzen duten arrazoen aurkako
artifizialtasun maila eragingo luke. Horregatik, planteamendu globalizatzaileekin
batera egin daitezke gaikako eskuhartzeak. Diziplina arteko ikuspegi ondoan
alderi partzial eta espezializatuak azter daitezke.

Horrek garbi desberdindutako bi denbora ezartzea ekartzen du: bata, gai
edota proiektu globalizatu batetik abiatuta lan egiten den denbora; eta bestea,
diziplinen eduki espezifikoei buruzko curriculum proiektuak egitekoa. Curriculum
proiektu horiek sistematizazio ordenatua izatea exijitzen dute, eta testuinguru
globalizatzaileetan kokatuak daude (arazoetatik abiatuta matematika-
eragiketak, komunikazio beharren arabera espresio teknikak, espazioaren
errepresentazio grafikoa fenomenoaren ulermenari dagokionean, etab.)

Oro har, lehenengo mailen lehentasunezko globalizazioak ikasgaietan
banatutako ondorengo irakaskuntzari ematen dio lehentasuna, nahiz eta
interesgarria izan koordinazioa eta diziplinen arteko lankidetzak formak egotea
(adibidez, antzezlan batean literaturak -gidoiak-, adierazpen plastikoak -
dekoratuak-, historiak, eta abarrek hartzen dute parte).

11.- Eskolako zein eskola kanpoko kultura



Ikasleak harremanetan egon ohi dira kulturarekin eskola kanpoko esparruei esker: aldizkariak, hedabideak, bisitaldiak, eskolaz kanpoko hezkuntza. Hainbat informazio sare daude. Batzuetan, eskolan ikasten denak ez du loturarik izaten eskolaz kanpoko esperientzietatik ikasitakoarekin; izan ere, eskolak hainbat edukiren aukeraketa egiten du, eta horiek lantzeko eskola-moduak egoten dira. Beste batzuetan, eskolaz kanpo jasotzen duenak alienaziorako zein kontsumorako elementuak izan ohi ditu.

Baina ezagutzen demokratizazioan ere izan dute eraginik. Telebistako programa batzuei esker, animalien zein begetalen bizitza-degradazioaren aurrean sentikorragoak gara. Ez du, ordea, gauza bera lortu eskolan natur zientziak irakatsi izanak.

Kultura komunikatzeko teknologia oro (prentsa, informatika, telebista...) kultur eragile bilakatzen da. Eskolak kontuan izan behar ditu informazio iturri desberdinak. Kultur espazio zabalago batean sartu behar da, eta horrek eskolaren eraldaketa gauzatzea eskatzen du, metodoei, informazio iturriei eta edukiei dagokienean. Ikasgeletatik kanpo, modu paraleloan, bada beste mota bateko eskolaratzea, eta horietara hainbat moduren bidez irits daiteke (hizkuntzak, plastika, musika, informatika...). Eskolak bere buruari galdetu behar dio ea egokia ote den eskolatze paralelo horietan eskari handia duena bere curriculumean sartzea.

12.- Euskal Herrirako curriculumaren gaitasunak



12.1.- Gaitasunak: kontzeptua eta definizioak

Curriculum gaiak lantzean, kontzeptu, termino zein planteamendu berriekin egiten dugu topo. Gaitasun horiei buruzko gogoeta egitea ez da moda soil bat. Euskal Herrian badira aurrekariak, batez ere, lanbide heziketan. Badira urte batzuk Europar Batasuneko hainbat herrialde kontzeptu hori lantzen hasi zirenetik, trebakuntza soziolaboralean eta derrigorrezko hezkuntzan.

Espainiako Estatuan gaitasunen ohitura lanbide heziketari erabat lotua egon da, eta, denbora pasatu ostean, hainbat aurrerapen txiki egin dituzte diskurtso hau oinarrizko hezkuntzaren etapetara sartzera (lehen hezkuntza eta DBH), normalean, etapa horretako "gaitasun nagusiak" izenpean.

2000. urtetik aurrera, hezkuntzari buruzko diskurtsoak eta mezuak bateratzeko hainbat modu egon dira. Europar Batasuneko erakundeek hainbat eztabaida egin dituzte gaitasunei lotutako gaietan (Lisboako Kontseilua 2000; Europar Batasunaren Hezkuntza Kontseilua 2001; 2002). Europako Parlamentuak ere hainbat aholku eman ditu (2005).

12.2.- Gaitasunen eztabaida Europar Batasunean. Joera nagusiak

Europar bada erabilitako terminoen batasunaren zein bat-etortzearen aldeko mugimendua. Helburuetan eta zehaztapen mailan desberdintasun handiak ageri dira, eta Hezkuntzari buruzko diskurtsoetan batasunaren aldeko mugimendua sortu da. Hala, *oinarrizko gaitasunen* aldeko mugimendua hedatu da.

Laurogeiko hamarkadan, Batasuneko kide ziren herrialde batzuek hainbat gaitasun bateratzeko beharra aitortu zuten. Gaitasun horiek erreferentzia gisa erabiltzeko izango ziren derrigorrezko hezkuntzaren kalitate egoera ebaluatzeko. Erreforma horri esker, hezkuntza-sistemetan egindako ikerketen emaitzen parekatzea gauzatu zen. Eta herrialdeek hainbat gogoeta-bide sustatu dituzte joerak eta ikuspuntuak argitzeko (Eurydice, 2002).

Oinarrizko hiru joera zehaztu dira termino horiek estatu kideen hezkuntza-helburuetan erabilitakoan:



* Batetik, euren hezkuntza arloko legeak *ezagutzak*, *“gaitasunak”* edota *“trebakuntzak* izenekin izendatzen dituzten herrialdeak (herrialde nordikoak, Italia, Espainia...).

* Bestetik, lege testu horietan *gaitasuna* kontzeptua erabiltzen dutenak, ezagutzak testuinguru desberdinetan aplikatzeari erreferentzia egiteko (Frantzia, Belgika, Suitza, Luxenburgo, Alemania...).

* Hirugarren ikuspuntu batek *oinarrizko gaitasunak* zehaztearen aldeko apustua egiten du; hau da, ikasleak gizartean gizarteratze aktiboa eta parte-hartzea izan dezan, irakaskuntza-sisteman garatutako gaitasunen aukeraketa (Ingalaterra, Irlanda, Portugal eta Holanda) (Eurydice, 2002).

12.3.- Gaitasunak eta oinarrizko curriculum.

Oinarrizko curriculumak derrigorrezko eskolaldiko etapa bakoitzeko oinarrizko gaitasunak zehaztu behar ditu


Curriculum komunak derrigorrezko eskolaldiko etapa bakoitzeko oinarrizko gaitasunak zehaztu behar ditu. Hizkuntzen zein lengoaien menderatze solidoa, matematika-eragiketa nagusiak ezagutzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntza bat ulertzeko eta hitz egiteko gai izatea, ordenagailua erabiltzea, herritarren komunitatean bizitzen jakitea eta osasuna zaintzea. Hori guztia oinarri bikaina izan daiteke oinarrizko curriculum hori ezartzeko. Proposamen ugari daude oinarrizko gaitasunak zehazteko.

Adibidez, Frantzian, Europako Parlamentuaren ildo nagusiei jarraiki, oinarrizko zazpi gaitasun ageri dira: Hizkuntza menderatzea, (gure kasuan hizkuntza koofizialak), atzerriko hizkuntza bat praktikatzea; matematikaren, kultura zientifikoaren eta teknologiararen oinarrizko printzipioak; informazioko eta komunikazioko ohiko teknikak menderatzea; kultura humanista; gaitasun sozialak eta zibikoak; eta autonomia zein ekimena.

12.4.- Herritarren oinarrizko gaitasunak



Oinarrizko ezagutzak zehazteko, Europako Batzordeak proposatutako bideetarikoa bat *oinarrizko gaitasunak* dira. Egun, eskola-curriculumaren logikak ez du goi mailako ikasketetarako soilik balio behar, baizik eta bizitzarako oinarrizko jakinduria izan behar duenerako.



Gaitasunak lortzeko ikuspuntutik, ezagutzak lantzeak curriculum komuna diziplinetako ezagutzen gehiketa soil bat izatea eragozten du –askotan gertatu izan ohi den bezala–.

Gaitasunak pertsona batek dituen baliabideak dira, eta, horiei esker, pertsona horrek "funtziona" dezake hainbat jarduera arrakasta handiarekin gauzatuta. Berdintasuna pertsona baten oinarrizko gaitasunetan oinarritzen da, eta horiek bakoitzak egin ditzakeen "jarduera"ren bidez lor daitezke.

Burutu nahi diren jarduerak gauzatzeko aukera eraginkorrek (jarduera bat egin ahal izatea, osasuna, zorientasuna, duintasuna, komunitatean parte hartzeko aukera, inguruaren gaineko kontrola, lanbide bat izatea, etab.) osatzen dituzte gaitasunak. "Gaitasuna" pertsona batek lor ditzakeen funtzionamenduen multzoa da, eta era berean pertsona horren askatasuna zein bizi kalitatea neurtzen ditu.

Denei bermatu beharreko oinarrizko gaitasunak gizarteko oinarrizko akordiotik edota adostasunetik etorri behar dira, beharrezko eztabaida gauzatu ondoren. Hutsetik ez abiatzeko, baditugu, gutxienez, oinarrizko hainbat



gaitasun oinarrizko gaitasunei buruzko eztabaida gauzatzeko. Hainbat herrialdetan martxan jarritako proposamenen zein esperientzien akatsetatik eta abantailetatik ikas dezakegu (Eskozia eta Ingalaterra, Portugal, Frantzia, AEBetako Estatu batzuk, Europako Kontseilua, IEA, etab.).

12.5.- Gaitasunaren kontzeptu bat

Europako Parlamentuaren (2005) arabera, hezkuntza-sistemak lan egin behar du hasierako hezkuntzak zein heziketak gazte guztien eskuragarri jarriko dituzten oinarrizko gaitasunak garatzeko bitartekoak ezartzean. Helburua bizitzarako prestatzea eta ikaskuntza osagarriko zein lan mundurako oinarriak ezartzea da.

Euskal Herrirako curriculumean gaitasuna kontzeptua sartzeak bere esanahiaren definizioaren analisia zein proposamena behar ditu. Eurydiceren txosten batek (2002) "gaitasuna testuinguru jakin batean lan bat burutzeko ahalmena izatea da" proposatzen du. Bi elementu garrantzitsu konbinatzen ditu: jarduera eta ekintzaren testuingurua.

Gaitasuna testuinguru jakin batean lan bat
burutzeko ahalmena izatea da

Gaitasuna egoera jakin batzuetan modu eraginkorrean jarduteko ahalmena da, eta ezagutzetan oinarritzen da, nahiz eta horietara soilik ez mugatu.

Egun, gaitasunen ikuspegi integratuak eskaintzen dira, adibidez, gaitasuna pertsona batek bere heziketan garatutako ezagutzetan (teorikoak), esperientzietan (praktikak) eta baloreetan (jarrerak) oinarritutako ahalmen nagusia dela esatean.

Gaitasuna trebetasuna edota ahalmena baino zerbait gehiago da. Azken horiek gaitasuna izateko bete beharreko baldintzei egiten diete erreferentzia, baina zehaztutako testuinguruetan eragiketa espezifikoei aplikatzen zaizkie. Gaitasuna zabalagoa da eta hainbat baliabide mugitzen ditu (horien artean ahalmenak). Trebetasunak bakarkako plano batean egoten dira (ahalmenak



edota ezaugarri pertsonalak), eta gaitasunak, berriz, *sozialki kokatutako* kontzeptua da, eta aurretik emandako eskari batzuen menpe dago.

Europako Parlamentuak honako definizioa ematen du: “gaitasunak testuinguruari egokitutako ezagutzen, ahalmenen eta jarreraren konbinazioa dira. Oinarrizko gaitasunak pertsona orok bere egite zein garapen pertsonalerako behar dituenak dira, bai eta herritar aktiboak, gizarteratzea eta enplegua lortzeko ere”

Gaitasuna testuinguru jakin bateko eskari konplexuen aurrean modu egokian erantzunak aurkitzeko ahalmena da. Ez die erreferentzia egiten ezagutzei edota egiten jakiteari soilik; eskari konplexu horiei erantzuteko eta testuinguru jakin batean baliabide psikosozialak mugitzeko ahalmena ere bada. Ahalmenak zein ekintza eraginkorrak ezagutzak, trebetasun kognitiboa eta praktikak mugitzea eskatzen du, bai eta osagai sozialak zein jokaera ez kognitiboak ere; hala nola, jarrerak, emozioak, baloreak eta motibazioak.

Gaitasuna, beraz, baliabide kognitiboak zein ez kognitiboak mugiarazteko ahalmena da, etikotasun eta eraginkortasun osoarekin, egoera jakin batzuetan jarduteko. Horiek bizitzan zehar hartzen dira hezkuntza formalaren edota esperientziaren bidez.

Ikuspuntu horiek oso ñabardura interesgarriak dauzkate:

-Gaitasun batek ahalmen batzuk izatea eskatzen du; pertsonak indarrean daukan trebetasuna da baliabide multzo bat mugiarazteko eta normalean konplexua izan ohi den eskaera zein egoera baten aurrean arrakasta handiarekin erantzuteko. Hezkuntzak haren garapenean konpromisoa hartzen du.

-Gaitasunak ezagutzak zein ahalmenak izatea eskatzen du eta jarduera-eremu batean “*egiten jakite aplikatua*” da.

-Gaitasunak jakinduria ematen du; hau da, ezagutza teorikoak, prozedurak edota jarrerak izatea esan nahi du.

Gaitasunak elkarrekin lotuak daude. Esparru bateko oinarrizko aspektuek beste batean gaitasuna izatea ziurtatzen dute. “Hizkuntzaren, irakurketaren zein idazketaren, kalkuluaren eta Informazioaren zein Komunikazioaren Tekniken oinarrizko ahalmenetan gaitasuna izatea beharrezkoa da ikaskuntza sustatzeko, eta ikasteko jarduera guztiak ikasten ikasteko ahalmenean oinarritzen dira”. Badira esparru osoan aplikatu daitezkeen gaiak eta zortzi



gaitasunetan eragiten dutenak (Europako Parlamentuak proposatuak): pentsamendu kritikoa, sormena, ekiteko ahalmena, arazoak konpontzea, arriskua ebaluatzea, erabakiak hartzea, eta sentimenduen kudeaketa eraikitzailea. (Europako Parlamentua, 2005)

12.6.- Ikasleen gaitasunak eta garapen integrala: modeloak eta motak

Ikasleen garapen integrala lantzeko beharrezkoa da hezkuntzaren helburuei erreferentzia egitea. Horiek pertsonaren esparruak edota dimentsioak sustatzera eta pertsona horiek gizarteratzera bideratuta egon behar dira. Hala, giza hobetzearen, espazio sozialen eta jakinduriaren esparru zabalak zein konplexuak sustatu eta landu behar dira.

Hezkuntzaren ikuspegi integrala

Pertsonaren dimentsioen garapena

Komunitate esparruetan integratzea:
familia, gizartea, kultura, lana...

Gazteak gizarteratzeak, beste aspektu batzuen artean, komunitate esparruetan aktiboki parte hartzea eskatzen du (esparru soziala, ekonomikoa, politikoa, kulturala, laborala, harremanetakoa, etab.), ahalmen zein interes pertsonalak eta sozialak sustatzeko.


Egite horrek pertsona-garapenaren esparrurik garrantzitsuenak kontuan izatea eskatzen du. Garapen espazio horien identifikazioak ez die eragiten zuzenean ikastetxeetan martxan jarritako curriculum planteamenduei.

XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak kaleratutako txostenak (Delors, J. 1996) ezagutzak jasotzea, eguneratzea, erabilera eta konexioa ekarriko duten heziketa-prozesuen garrantzia nabarmentzen du. Hezkuntzaren oinarriko zutabe gisa ondoko esparruak zehazten dira:



- ezagutzak ikastea,
- egiten ikastea,
- batera bizitzen ikastea
- izaten ikastea.

Ezagutzen ikuspuntutik eta beste lengoia bat erabilita hori bera planteatu da:



12.7.- Oinarrizko gaitasunak aukeratzeko irizpideak

Gaitasunek ez dute balio lan mundurako soilik, baita bizitza pertsonala zein soziala ongi eramateko ere, edota, DeSeCo proiektuak adierazten duenaren arabera, gizarteak berak ongi funtzionatzeko ere. Gaitasun batek, “oinarrizko” izateko, ondoko hiru irizpideak izan behar ditu:

- a) emaitzak, bai maila indibidualean, bai sozialean, ongi baloratu behar dira;



b) instrumentalki oso garrantzitsuak dira, testuinguruaren espektroan, eskaera konplexuei eta aldaketei erantzunak bilatzeko;

c) gizaki ororentzat beharrezkoak eta garrantzitsuak dira.

Hala, *herritarren gaitasunek*: bizitza modernoaren eskariei erantzuten diete eta ongizate pertsonalerako zein sozialerako ekarpen gisa ikusten dira, hainbat balore unibertsalek adierazita; hala nola, giza zein ingurumen eskubideen errespetua, garapen soziala eta prozesu demokratikoak.

12.8.- Derrigorrezko hezkuntza sailkatzeko hasierako sailkapena.

Ondoren ageri den sailkapenak ikaslearen hazte zein hobetze prozesuko oinarritzko esparruak lantzea du helburu. Sailkapen erabilgarria da derrigorrezko hezkuntzarako, eta, agian, baita oinarritzko gaitasunetan eragiten duten eta beste hezkuntza maila batzuetara zuzendutako orientazio propedeutikoa duten ikasleentzat ere.

Hala, ondoko kategorietan ikasleen heziketako esparru handiak laburbil genitzake:

- Esparru kognitiboa: giza adimenaren eta kognizioaren garapenari lotutako aspektuak, informazioaren kudeaketa, ikasten ikastea, txostenak analizatzea, sailkatzea...
- Esparru sentsoriala eta motrizia: garapen fisikoari zein osasunari lotutako gaitasunak, gorputz koordinazioa, trebetasun motrize finak, orientazioa, gorputz dosifikazioa, denbora zein espazio antolaketa...
- Esparru afektiboa: estimu pertsonalaren, sentimenduen zein jarreraren garapenari lotutakoak, aprezioa, gozatzea, autokritika.
- Komunikazioaren esparrua: adierazpen gaitasuna sustatzeko, hizkuntzak, ahozko lengoaiak, ahozkoak ez direnak, informazioaren teknologiak...
- Harremanen eta gizarteratzearen esparrua: besteekiko harremanei buruzko gaitasunak, taldeetan zein erakundeetan antolatzea eta norberaren zuzendaritza (erlazionatzea, parte hartzea, errespetatzea, laguntzea, kolaboratzea, solidarizatzea...).



-Ekintzailtzaren esparrua: berrikuntzari, hobekuntzari, sormenari eta egoera zailen konponketari lotutako gaitasunak (jarraitzea, gainditzea, ideiak sortzea, kudeatzea, imajinatzea, hobetzea, ikertzea...).

Pertsonaren banakako esfera. Gaitasunak:

- Kognitiboak
- Afektiboak
- Sentsorialak eta

Komunitate espazioarekiko lotura. Gaitasunak:

- Komunikazioa.
- Gizarteratzea
- Ekintzailtza

Sei espazio horietan bi dimentsio zabal nabarmen ditzakegu: lehenengo hirurek (kognitiboa, sentsoriala, motrizeta eta afektiboa) pertsonaren banakako esferari egiten diete erreferentzia. Komunikazio, harreman eta gizarteratze gaitasunak eta ekintzailtzari dagozkionak komunitate espazioan sar daitezke.

Proposatutako gaitasunen sailkapena oinarrizko bi kontzeptutan laburbil daiteke: ikaslearen garapen pertsonala eta taldeekiko, erakundeekiko eta, oro har, komunitatearekiko proiektio soziala.

12.9.- Europa eta gaitasunen aukeraketa

Europar (Europako Parlamentua, 2005) *oinarrizko zortzi gaitasunek* osatutako erreferentzia markoa ezarri da. Europar definizio honek hezkuntza sistema guztiengan eragina izango du. Funtsezko gaitasunak honakoak lirateke: ama-hizkuntzan komunikatzea; atzerriko hizkuntzetan komunikatzea; matematika-gaitasuna eta zientzietan zein teknologian oinarrizko gaitasunak; gaitasun digitala; ikasten ikastea; pertsonen zein kulturen arteko gaitasunak, gaitasun sozialak eta gaitasun zibikoa; espiritu ekintzailea; eta adierazpen kulturala.



Ama-hizkuntzan komunikatzea. (Gure kasuan hizkuntza koofizialetan).

Ahoz zein idatziz pentsamenduak, sentimenduak eta gertaerak adierazteko edota interpretatzeko (entzun, hitz egin, irakurri eta idatzi), eta linguistikoki modu egokian testuinguru sozial zein kultural guztietan jarduteko (hezkuntza, heziketa, bizitza pribatua eta profesionala, zein aisia) trebetasuna da.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzea. Ama-hizkuntzan komunikatzeko behar diren ahalmen nagusiak partekatzen ditu. Eta honakoa gehitzen du: atzerriko hizkuntzetan komunikatzeak bitartekaritza eta kulturen arteko ulermena bezalako ahalmenak izatea exijitzen du. Pertsona bakoitzaren menderatze maila desberdina izango da lau dimentsiotako bakoitzean, eta aldatu egingo da hizkuntzaren zein oinarrizko hezkuntza-mailaren, inguruaren eta beharrezan zein interesen arabera.

Matematika-gaitasuna eta zientzietan zein teknologian gaitasunak.

Matematika-gaitasuna gehitzeak, kenketak, biderketak, zatiketak zein frakzioak egiteko trebetasuna da, buruz edota idatziz kalkulatuta. Helburua egunerokoan sor daitezkeen arazoak konpontzea da. Matematika-gaitasunak-maila desberdinetan- pentsatzeko (pentsamendu logikoa eta espaziala) eta errepresentatzeko (formulak, modeloak, eraikuntzak, grafikoak eta diagramak) modu matematikoan erabiltzeko ahalmena zein gogoia hartzen du barne.

Gaitasun zientifikoak natura azaltzeko erabilitako ezagutzak eta metodologia erabiltzeko ahalmenari zein gogoari egiten dio erreferentzia, galderak egiteko eta frogetan oinarritutako ondorioak ateratzeko. Teknologia gaietan gaitasuna izateak ezagutza zein metodologia horiek aplikatzeko gai izatea esan nahi du, nahi zein giza behar gisa ulertzen denari erantzuteko. Gaitasun honen bi aldeak giza jarduerak sortutako aldaketen ulermena eta gizabanako bakoitzak herritar gisa duen ardura dira.

Gaitasun digitala. Gaitasun digitalak informazio gizarteko teknologien (TSI) erabilera segurua zein kritikoa esan nahi du lanerako, aisiarako eta komunikaziorako. TSI alorreko oinarrizko gaitasunetan oinarritzen da: informazioa lortzeko, ebaluatzeko, biltzeko, sortzeko, aurkezteko zein



trukatzeko ordenagailuak erabiltzea, eta Internet bidez, lankidetzeta-sareetan komunikatzea eta parte hartzea.

Ikasten ikastea: Ikasten hasteko eta jarraitzeko trebetasuna da. Pertsonak beren ikastaldia antolatzeko eta denbora zein informazioa modu eraginkorrean kudeatzeko gai izan behar dute, banaka edota taldeka. Ezagutza zein ahalmen berriak jasotzea, prozesatzea eta asimilatzea esan nahi du, baita orientazioak bilatzea zein horiek erabiltzea ere. Motibazioa eta konfiantza beharrezkoak dira gaitasun hau lortzeko.

Pertsonen zein kulturen arteko gaitasunak, gaitasun sozialak eta gaitasun zibikoa. Gaitasun hauek pertsonak, modu eraginkorrean eta eraikitzailean, bizitza sozialean zein profesionalean parte hartzeko jokaera-moduak biltzen dituzte, batez ere gero eta anitzagoak diren gizartean, gatazkak konpontzeko. Gaitasun zibikoak pertsonak bizitza zibikoan parte hartzeko prestatzen ditu. Hori kontzeptuen zein estruktura sozialen eta politikoen ezagutzari, edota parte-hartze aktiboa zein demokratikoa lortzeko konpromisoari esker gauzatzen da.

Espiritu ekintzailea. Ideiak ekintza bihurtzeko pertsonak daukan trebetasuna da. Sormenari, berrikuntzari eta arriskuak nor bere gain lotua dago, baita helburuak lortzeko proiektuak planifikatzeari zein kudeatzeari ere.

Adierazpen kulturala. Hainbat bitartekoren bidez (musika, arte eszenikoak, literatura eta arte plastikoak), ideien, esperientzien zein emozioen adierazpen kreatiboaren garrantzia da.

Beste proposamen asko ere badaude. Kontzepzio holistikoan, DeSeCo proiektuak hiru domeinutan banatutako sailkapena proposatu du (*sozialki heterogeneoak diren taldeetan parte hartzea, autonomikoki zein gogoeta gauzatuz ekitea, eta baliabideak modu interaktiboan erabiltzea*), oinarri edota erreminta kontzeptual gisa, funtsezko gaitasun potentzial guztien mapa egiteko zein deskribatzeko.



a) Lehenengo taldeak ezagutzarekin parte hartzeko beharrezkoak diren instrumentu soziokulturalak menderatzeko gaitasunei egiten die erreferentzia; hala nola, lengoaiari, ikurrei eta zenbakiei, informazioari eta alde zuzeneko ezagutzari, eta ordenagailuei bezalako instrumentu fisikoei.


b) Bigarrenak talde heterogeneoetan parte hartzeko gaitasunak ezartzen ditu; hala nola, besteekin erlazionatzea, kooperatzea eta taldean lan egitea, eta arazoak kudeatzea zein konpontzea.

c) Hirugarrena, berriz, modu autonomoan ekitea ahalbideratzen duten gaitasunek osatzen dute; hala nola, jarduerak egiten diren eta erabakiak hartzen diren testuingurua ulertzea, bizi-planak eta proiektu pertsonalak sortzea eta administratzea, eta eskubide, interes, behar zein muga propioak defendatzea eta baieztatzea.

Baliabideak modu interaktiboan erabiltzea	Sozialki heterogeneoak diren taldeetan parte hartzea	Autonomiaz ekitea
<ul style="list-style-type: none"> - Lengoaia, ikurrak eta testua modu interaktiboan erabiltzea. - Ezagutza eta informazioa modu interaktiboan erabiltzea - Teknologia modu interaktiboan erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Besteekin ongi erlazionatzea - Besteekin kooperatzea - Gatazkak kudeatzea eta konpontzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Marko edota testuinguru zabalago batean parte hartzea - Bizitza-planak eta proiektu pertsonalak sortzea eta martxan jartzea - Eskubide, interes, muga zein behar propioek defendatzea eta baieztatzea.

12.10.- Lanbide heziketan, gaitasunen beste eredu bat

Sailkapen ugari egon dira, eta, agian, ondoren azaltzen dena erabilgarria da lanbide heziketarako. Lanbide heziketan, ezagutzei zein gaitasunei forma emateko, hainbat gaitasun erabili dituzte ondoko kontzeptu klasikoak lotuta: jakitea, egiten jakitea, egoten jakitea. Curriculum proiektio bat era honetara itzul daiteke:



A) **Oinarrizko gaitasunak** (jakinduria, ezagutzak). Ezagutzen orden kognitiboa daukate, abstrakzio maila desberdinetan kokatzen dira, eta gauzek, errealitateak nola funtzionatzen duten horiek nolakoak diren azaltzen dute (sistema fisikoak, sozialak, etab.). Objektibotasun, soziabilitate eta transferibilitate maila handia daukate. Egun, ezagutza hauei oinarrizko gaitasun deitzen zaie.

Kulturako oinarrizko zein ezinbesteko elementuak sartzen dira, eta, gainera, ikasleak lanerako beharrezkoak diren ezagutza zientifikoak eta teknikoak menderatu behar ditu: Instrumentu kultural garrantzitsuak (lengoaia, irakurketa- idazketa, matematika-erremintak, ikurrak, etab.), oinarri kultural edota zientifiko komunak edota orokortuagoak, laneko oinarri teorikoak; lanean ahozko, idatzizko kodeak edota kode sinbolikoak erabili, garatu edota interpretatu behar dira; Lan arloko ezagutza espezifikoak: araudia, garbitasuna eta segurtasuna, langilearen eskubideak eta betebeharrak.

B) **Gaitasun orokorrak** edota zeharkakoak. Egoten jakiteari egiten diete erreferentzia. Ondoko jarrerak, baloreak eta trebetasunak dira: ikasteko ahalmena, taldean lan egiteko ahalmena, ekintza-ahalmena, arauen barruan lana antolatzeko ahalmena, arauak errespetatzea, ongi egindako lana baloratzea, etab. Etengabe aldatzen doan gizarte batean gaitasun horiek garrantzitsuak dira.

Baloreak, harremanak, lan antolaketa, eta abar antolatzeko aldagarrien edota bizi dimentsioen multzoa da.



C) **Gaitasun espezifikoak**, egiten jakiteari, trebetasunei edota lan abilezia espezifikoei lotuta. Jakintza praktikoak (egiten jakitea) ezagutzen diren gauzetan ekiteko ahalmena ematen duten ezagutzak dira. Hasitako egiteko eta arrakasta izateko trebetasuna da, arazo praktikoak modu egokian konpontzeko. Ezagutza, esperientzia eta teknika horiek transmiti daitezke. Jakintza praktikoek lanbide batean beharrezkoa den egiten jakiteari egiten diotenean erreferentzia, gaitasun espezifikoak menderatzen dira.

Hori dela eta, lanbide bateko trebetasunei edota abileziei buruz ari gara. Lanbide batean beharrezkoak den ekite egokiari egiten diogu erreferentzia, batez ere profesionala den esparru teknikoan.

- Beharrezko instrumentuak antolatzeko ahalmena.
- Denbora eta espazioa antolatzeko ahalmena.
- Ekoizpenerako, zerbitzuak eskaintzeko edota arazoak konpontzeko teknikak zein metodoak aplikatzea.

12.11.- Gaitasunak eratzeko oinarritzko elementuak

Giza ahalmenen garapena eta mundu soziolaboralean sartzea oinarritzkoak dira hezkuntza-helburuak zehazteko. Hau da, hezkuntza-sistemaren helburu nagusia ikasleengan euren garapen pertsonala eta gizarteratzea lortzeko gaitasun egokiak sustatzea zein garatzea da. Bizitza pertsonaleko, sozialeko eta produktiboko hainbat arlotan gai diren herritarrak hezi behar ditu.

GAITASUN MOTAK

GAITASUNAREN DEFINIZIOA


Jakinduria bat (teorikoa, praktikoa, jarrerak) testuinguru batean aplikatzea



Noiz esan daiteke ikasle bat gai dela? Oro har, galdera horren erantzuna honela laburbiltzen da: "gutxienez, **jakinduria** mota bat **aplikatzen** duenean (jakinduria teorikoa (kontzeptuak, informazioa...), jakinduria praktikoa (prozedurak, teknikak), izaten jakitea (jarrerak, baloreak), arrakastarekin eta etikoki, **testuinguru** jakin batean".

Gaitasuna = testuinguru batean aplikatutako jakinduria

Ondoko eskema honek ulertzen lagun dezake:



Adibide bat jarriko dugu gaitasun bateko oinarriko elementuak aurkezteko edota azaltzeko. Lanbide heziketako ikasle batek jakinduria batzuk aplikatzen ditu (diagnostikatzea, analizatzea, motorra ebaluatzea, erabakiak hartzea...) praktiken tailer batean (testuingurua, ibilgailu baten motorra) ikasitako ezagutzen arabera (teorikoak, prozedurak eta jarrerak). Ikasle horrek motorraren akatsak analizatzen eta konpontzen baditu, esan daiteke funtzio horiek betetzeko gai dela. Bere lana arrakastarekin burutu du.

Ikasle horren gaitasunaren oinarriko elementuak bereizteko, ondoko elementuak nabarmen daitezke:

-Motorren, ibilgailuen,... funtzionamenduaren eduki (jakinduria) teorikoak.



- Aplikatutako prozedura-jakinduria (diagnostikatzea, ebaluatzea, analizatzea, erabakiak hartzea, motorrak konpontzea...).
- Arazo bat konpontzeko jarrera positiboa izatea.
- Ekintza-testuinguru bat (ibilgailuaren motorra, tailerra...).

Hiru jakinduria motak hezkuntza-praktikan daude. Adibide gisa, bitartekariaren ezagutza-eremuko gaitasun baten erredakzio esplizitua eskain daiteke:

Modu kritikoan (jarrera) analizatzea eta gogoeta egitea (prozedurak) azken hamarkadan (kontzeptua) Europan gertatutako hondamendi klimatikoaren inguruan, natura (gaitasuna) kontserbatzeko kontzientziazioa garatzeko.

Nola prezia dezakegu:

- Gogoeta egitea eta analizatzea (prozedura jakinduria).
- Modu kritikoan (izaten jakitea-jarrera).
- Hondamendi klimatikoak (jakinduria kontzeptuala).
- Europan (testuinguru).
- Naturaren kontserbazioari buruz kontzientziatzeko (gaitasuna).

12.12.- Trebakuntza maximoa eta gizarte-justiziaren nahia batzea

Helburua ez da ikastetxeetako edukiak minimora murriztea. Bestalde, ez zaio rol utilitarista eman behar ikastetxeetan ikasten denari. Gure gizarteak beharrezkoa dela uste duena bermatu nahi da, herritarrak baztertuta ez sentitzeko eta gizartean integratzeko. Oinarrizkoa ez da gutxienekoa, inork alde batera utz ezin dezakeena baizik. Kontua ez da mailak txikitzea, oinarrizkoa bermatzeko kontua baino.

Oinarrizkoa eskatzea, trebakuntzako ezagutza komun gisa, beraz, ezin daiteke izan heziketa mailak txikitzea. Frantziako Parlamentuak (2006), Hezkuntza Ministerio nazionalak proposatuta, honakoa baieztatu du: "Derrigorrezko hezkuntza ez da oinarri (*socle*) komuna soilik. Ikastetxeek bakoitzari gaitasun guztiak garatzeko baliabideak eman behar dizkio, horretarako, adimen eta ahalmen era guztiak baloratuta. Funtsezkoa den arren,



ez ditu lehen mailako hezkuntzaren, ikastetxeen, eta abarrekoen programak ordezkutzen. Horren berezitasuna funtsezko eskolako kulturari zentzu bat ematearen nahian oinarritzen da, ikaslearen ikuspuntutik eta diziplinen eta programen arteko funtsezko puntuak eraikiz. Derrigorrezko hezkuntza amaitzean, baztertutako egoeran ez egoteko, inork alde batera utz ez dezakeena zehazten du”.

Guztiek oinarrizko curriculuma menperatu behar dute, baina hori ez da identifikatzen derrigorrezko hezkuntzako amaierako helburu guztiekin

Ikasle guztiek oinarrizko curriculuma menperatu behar dute, baina hori ez da identifikatzen derrigorrezko hezkuntzako amaierako helburu denekin. Zabalagoak eta kulturari dagokionez zorrotzak izan behar dute.

Jakintzako oinarri komun baten ideia eta funtsezko gaitasunak serio hartzea, eskolaren bi funtzio historikoen arteko tentsioari aurre egitea da: a) herritar guztiena den heziketa ematea; b) goi heziketarako prestatzea.

Guztientzako curriculuma gai bat da eta, oinarrizkotzat jo direlako, herritar guztiek menperatu behar dituzten jakintzak beste bat. Hori dela-eta, oinarrizko curriculuma ezin da nahastu programekin edota ikasgaiekin. Inork ezin du ikasle denek programa guztiak menperatu ahal izatera konprometitu, ezta funtzio kultural nabarmena duten ikasgaiak desagertzera ere; oinarrizko gaitasunak eta guztientzako jakintzak bermatzera, ordea, bai.

Funtsezko oinarri horrek ez du eskoletan edo institutuetan irakasten den guztia osatzen. Hautatutako beste oinarrizko jakintza komun eta osagarri batzuekin artikulatu behar da. Aipatu dugun bezala, oinarri komuna hautatutako gaitasunek osatzen dute, zeintzuk esanguratsutzat jo baitira. Hauek beren baitan dauzkate testuinguru errealetan bizitzeko ezagutzak, balioak/jarrerak eta trebetasunak.

12.13.- Gaitasunen diskurtsoa eta berdintasuna.



Gizartean eta lan merkatuan beharrezkoa da gizarte eta lan etorkizun aldakorrera egokitzen ahalbideratzen dien gaitasun aktiboa duten gizabanakoak heztea, bizitza osoko ikaskuntza baten bidez.

Gai izateak edonoiz gerta litezkeen aldaketetara eta aurreikusi gabeko zirkunstantzietara egokitzeke ahalmena errazten du. Antolamendu ekonomiko berrian, jakintza indar produktibo nagusia da, hortaz, langileek jakintzaren gizartean mugitzeko gaitasun handiak izatea eskatzen die. Gizarte horretan, lanak egitea ez da bereizten lanen diseinutik.

Curriculumaren diseinuak gaitasunak kontuan hartuta, ez du esan nahi enpresen munduaren eta lan merkatuaren menpe dagoenik. Pedagogia on guztiak ikasitako jakintzak transferitzeko arduratuta egon dira. Horregatik, metodo aktiboek, pedagogia berriak edota ikuspuntu eraikitzaileak defendatutako ikuspuntuekin bat dator.

Lortu beharreko gaitasuna (“curriculum komuna”) finkatzen eta lorpen maila ebaluatzen bada, denentzat ikasteko eskubidea hobe bermatzen da. Herritar guztientzat gaitasun garrantzitsuenak zehaztea berdintasuna eta aukera berberak helburuen arteko eta desberdintasun sozialak, kulturalak eta ekonomikoak erreproduzitzen dituzten jarduera hezitzaileen hutsunea murrizteko modua izan daiteke.

Hezkuntza politikak herritarrek gaitasun horiek lortzeko beharrezko baliabideak lortu behar ditu, baldintza beretan. Estandar horiek lortzeko ikastetxeak eta gizarte-erakundeak aldi berean trebatzen ez badira, horiek izateak gutxi balio du. Jarduera horien artean, lehena diskriminazio positiboko politika erasotzaileak izango lirateke, inguru pobreetako ikastetxeak konpentsatzeko.



13.- Curriculumaren egokitzapenak

13.1.- Curriculumak egokitzeko premisa batzuk.

Oinarrizko heziketa konprentsiboa eta derrigorrezkoa da. Derrigorrezko heziketak ikasle guztiek (eskolako adina duten herritarrak) heziketako jakinduria bera izatea eta sozializazio inklusiboa bermatu behar du. Ezaugarri pertsonal eta soziokultural ezberdinek, esaterako, kokapen soziala, ekonomikoa, sexua, arraza, kultura, eta abar, ezin dira izan aukera berdintasuna ez egotearen arrazoia. Baina hezkuntzako behar desberdinen analisia eragin dezakete eta eragin behar dute.

Aniztasuna gizakien oinarrizko ezaugarria da eta heziketako talde denetan islatzen da; izan ere, berez da heterogeneoa. Heziketako prozesuan, gaitasun, motibazio, interes, itxaropen, ikasteko erritmo, maitatzeko eta harremanak izateko eredu desberdinak daude.

Komunitateetako, ikastetxeetako eta ikasgeletako egoera soziokulturalen aniztasunaren ondorioz, oinarrizko curriculum komuna horien beharretara eta aukeretara egokitu behar da.

Helburua denek ikasketa funtzionalak eta adierazgarriak izatea da. Egokitzapenak ez du eragiten esparru komuna galtzea. Egokitzapenak pertsonen ikasteko eskubidea eta betebeharra duela aipatzen du eskubide osoko pertsona gisa bere inguruan aritu ahal izateko.

13.2.- Curriculumaren egokitzapenaren ondorioak.

Zer ondorio ditu modu konprentsiboan eta prozesuka egindako curriculumaren egokitzapenak? Sistemako agente eta heziketako arduradun guztien jardura koordinatua eragiten du. Bakoitzak, bere eskumen arloetan, curriculumeko elementuei buruzko erabakiak hartu behar ditu, hasierako egoera eta helburua kontuan hartuta. Administrazioak barrutietan errealitate soziokulturalera egokitzen zeregina du. Ikastetxeak, berezko proiektu baten diseinuaren bidez, heziketako eskaintza osatzen du.




Administrazioak antolakuntzako eta curriculumeko jarduerak diseinatu eta egokitu behar ditu, jarduerako esparru komuna antolatzen ahalbideratzen dutenak, baina horrek ezin du ikastetxeen beharrezko autonomian eragin. Bestalde, horren eskumena da ikasle guztien beharren aniztasunari nahiko erantzuteko neurri ematea. Neurriak egokitutako curriculum komunen antolatutako prozedurak dira. Administrazioak ikastetxe guztien eskura jartzen ditu.

Curriculumaren egokitzapenak ikastetxea osotasunean hartzea dakar, curriculumeko eta antolakuntzako elementuei buruzko erabakiak hartzen dituen erreferentzia esparru gisa.

Lan hori progresiboki eta egoeraren barnean egiten den prozesua da. Egokitzapena heziketako tresna da. Horren bidez, ikastetxe bakoitzak aniztasunarentzat erantzunak diseinatzen eta ematen ditu, hezkuntzaren helburu orokorren lorpena ahalbideratzeko, kalitatezko ikuspuntu inklusibo eta zuzen batetik.

13.3.- Curriculumaren egokitzapen mailak



Ikuspuntu ulerkor horretatik, curriculumaren egokitzapen mailak (ikastetxea, ikasgela, gizabanakoa) oinarritzko curriculum *gizarte-heziketa*



egoerara, talde-ikasgelara eta ikasle bakoitzera egokitzen den prozesua bideratutako eta artikulatutako une gisa ulertu behar dira.

Orokorretik zehaztasunera doan sekuentzia logikoa dago. Lehenengo, erabaki orokorrak eta arruntak hartu beharko lirateke. Ondoren, beharrezkoak diren zehatzak, eta, azkenik, lehenengo neurriak agortu direnean, egokitzapen zehatzenak. Dena den, prozesuaren natura sistematikoa dela-eta, edozein mailatan has daiteke, besteetan duen eragina aztertzeke segimendu eta ebaluazioa kontuan hartuz.

Curriculum egokitzeko prozesua egoera arruntetan planteamendu didaktikoak hedatzeko prozesua da. Curriculumaren egokitzapenak ikasleen hezkuntzako beharrak (komunak eta bereziak) erantzutea ahalbideratzen du. Hala, beste balio bateko curriculum paraleloak egotea saihesten da.

Ohitura txarrak daude eta gehiegi zabaldu dira. Baina egokitzapen prozesua ez da curriculum minimo batzuetara murriztea eta debaluatea; ezta zailtasunak dituzten ikasleentzat bide baztertzaileak sortzea ere. Ikasleentzako aukerak aberastea da beharrezko ikasketak lor ditzaten.

Curriculum egokitzeko prozesua amaitu gabe dago, eta mailen artean sistematikoa da. Irakaskuntza eta ikasketa prozesuen eguneraketa eta hobekuntza ahalbideratzen du, heziketa sistemaren berrikuntza erraztuz.

13.4.- Ikastetxearen eta profesionalen eskumena da

Ikastetxeko profesional guztien eskumena da. Curriculumaren egokitzapen prozesua irakasle-talde guztien (irakasle arruntak eta talde edo pertsona batekin lan egiten duen irakasle bereziak) eskumena da.

Ikasturte akademiko osoan egiten da, eta ikastetxeko zuzendaritzaren eta barneko eta kanpoko laguntzako irakasleen laguntza izan behar du eta erreferentzia gisa, hezkuntzako eta curriculumeko proiektua hartu behar da. Horregatik, irakasleek prozesuan parte har dezaten beharrezko trebakuntza eta babesa izatea garrantzitsua da.

Prozesuan, ikastetxeek bakoitzaren errealitatearen arabera, pentsatutako proiektu bat eratzeko autonomia eta ardura izan behar dira. Ikasgeletan abian jartzeko egokia izan behar da, irakasle-taldeak ikasgeletako



errealitatearen egokitu behar dituzte akordioak, eta beharrezko kasuetan, ikasle bakar batera.

14.- Curriculumaren garapena


14.1.- Curriculumaren garapena prozesu bat da

Agiri batean idazten den curriculum ofiziala egoera errealean garatu behar da, edukietako ildo nagusiak zehaztu behar ditu, eragile jakin batzuekin, eta ikasleentzat ikasteko aukerak sortu behar ditu.

Curriculumaren diseinuaren eta garapenaren artean berezitasun klasiko bat dago. Curriculumaren diseinuak ekintza ildo nagusiak zehazten ditu, curriculumeko arloak identifikatzen ditu, printzipio metodologikoak eta jarduteko estrategia nagusiak adierazten ditu eta ikastetxeetan jarri beharreko hezkuntza planeko ezinbesteko osagaiak aipatzen ditu.

Curriculumaren garapenean, ordea, erreferentzia praktika da. Pertsonak, egoerak, inguruak, elkarreraginak, hezkuntza materialak, eta abar dira garrantzitsuak.

Curriculum ofiziala abian jartzeko hezkuntzako ikuspuntua hobetu duten hainbat ekarpen historiko izan dira; ikastetxeak eta hezkuntzako komunitateak protagonismo gutxi zuten batzuetan, beste batzuetan, aldiz, askoz ere handiagoa.





a) Curriculum ofiziala hartzea. Ikastetxeek eta irakasleek curriculuma hartu behar dute eta horren arauak eta orientazio ofizialak aplikatu behar dituzte.

b) Curriculum ofiziala egoerara egokitzeko prozesua. Prozesu horien bidez, curriculuma tokian tokiko egoerara eta ikastetxearen errealitateara egokitzen da. Irakasleek beren teorien, ohituren eta errutinen bidez interpretatzen dutenean aldaketak izaten dira. Ikasleen interesak eta jakintzak ere kontuan izaten dira.

c) Curriculuma ikastetxeetan abian jartzea. Diseinu ofizialaren eta egoera erreal anitzen eta ezberdinen arteko elkarreragina dago. Plan ofizialak herrialdeentzat proiektu komuna proposatzen du, sistematizazioa errazten du eta inprobisazio hutsa gainditzen laguntzen du. Egoera errealak errealitatearen baldintzak nabarmentzen ditu. Eragina duten zenbait baldintza daude: egoera ekonomikoa eta soziala, irakasle mota, zuzendarien jarduera, hezkuntzako ohiturak, gurasoen eragina, hezkuntzako ekipamendua eta materiala, ikasleen inguruko itzaropenak, elkarreragina ikasgeletan, tailerretan, laborategietan, etab.

Curriculumaren garapena

- Zer ekarpen du ikasketan?
- Nolakoa da irakasteko – ikasteko prozesuen kalitatea?
- Egoera kontuan izaten al da? Eta ikasleen mailenganako egokitzapena?
- Nola lantzen dira eduki garrantzitsuak?
- Zer ikuspuntu metodologiko jartzen da abian?
Zer laguntza ematen dute materialek?
Nolakoak dira ebaluazio prozesuak?



Curriculumaren diseinu eta garapen onerako, hainbat erakunderen elkarlana ezinbestekoa da:

a) Curriculum egoera baterako planifikatzeak Hezkuntzako Administrazioaren eta eskolako Erakundearen arteko elkarlaneko ereduak eskatzen ditu. Ardurak batzeaz hitz egin da: alde batetik, Administrazioak curriculum komuna eta ofiziala egin behar du; bestetik, eskola bakoitzak proiektu pedagogiko batez arduratu behar du.

b) Ikastetxeetako curriculum sortzea eskola osoaren lana da, baita irakasleena ere. Egun, erakundeko ikuspegia dago. Eskolako hezkuntzaren profesionalek, irakasleen taldeek curriculumaren ardura hartu behar dute, eta ardura horrek hainbat lan ditu; hausnarketa, aplikatutako azterketa, profesionalen etengabeko trebakuntza eta curriculumaren garapenetik etorritako lanak (planifikazioa, materialen aurreikuspenak, gelaren antolaketa, etab).

14.2.- Curriculumaren garapena errazten duten baldintzak

Baldintza batzuek curriculum ofizialaren diseinuan agertzen diren orientazioak hartzea, egokitzea eta abian jartzea errazten dute. Baldintza horiek Euskal Herriko autoritate administratiboentzat lan bilakatzen dira, baita profesionalentzat eta hezkuntzako beste agente batzuentzat ere:

**Curriculum ofizialaren diseinua onartzeko
eta abian jartzeko:**

- Uste teorikoa behar da
- Erabakiak progresiboki hartzea
- Artikulazio teknikoa
- Irakasleak trebatzea
- Ikastetxeko prozesuak pentsatu behar dira



a) Curriculum berriaren justifikazioa eta legitimazioa, proiektu berriak ezagutzea, hezkuntzarekiko dituen abantailak ikustea, bateragarritasuna, etab.

b) Jarduerak aurreikustea, saio aukerak (entsegua), irakasleei eskatutako eskumen berrien prestaketa, baliabideen hornikuntza eta erabilera, administrazio eta antolamendu egituren birmoldaketa proiektua errazteko, atzeraelikatzea eta irakasleen zein gurasoen parte-hartzea.

Inplementazioa eta deribatutako curriculumaren garapena aztertuz gero, eman beharreko pauso zehatz batzuk daude: beharren analisia eta ebaluazioa, helburuak eta gaitasunak konkretatzea, hasierako eta amaierako egoerak ebaluatzeneko diagnostika, ikasketak ikasleei egokitzeko horiek ebaluatzea, edukiak aukeratzea, estrategiak eta jarduerak hautatzea, baliabideak prestatzea, lorpenak aztertzea eta planifikazioa berrikustea.

Parte-hartzea programen arrakastarako baldintza da: a) Beraz, ikastetxeetako planifikazioak bertako agente hezitzaileen laguntza izan behar du. b) Inplementazioaren garapenean eskola erakundearen beharrak kontuan izan behar dira, benetako arazoetatik abiatu behar dira eta irakaskuntza-ikasketa prozesuetako partaideen arteko lankidetzaren sustatu behar da.

Curriculumaren berrikuntzak argiak, ukiezinak eta egingarriak izan behar dira. Hausnarketarako eta elkarrizketarako ingurua erraztu behar da; baliabideen, lankidetzaren, laguntzen baliabideen aurreikuspena egin behar da.

Egoera zehatz batean ikasten da:

- Eduki batzuk lantzen
- Irakaskuntza-ikasketa jarduerak
- Egoera fisiko eta soziala
- Denbora mugatua
- Material batzuekin eta metodologia batekin



Eta hurrengoetan emaitzak lortzen dira:

- Oinarrizko gaitasunak
- Lorpen akademikoak
- Helburu sozialak
- Jarrerak, balioak

15.- Curriculum a eta orientazioa

Orientazioa erabat lotua dago curriculum gaiei. Behar pertsonalak, akademikoak, sozialak eta laboralak zehazteko balio behar du. Irakasleei, ikasleei eta gurasoei planak garatzeko, erabakiak hartzeko eta hezkuntza-prozesuetan sor daitezkeen arazoak konpontzeko estrategiak ematen dizkiete. Plan edota erabaki horiek ikaste akademikoaren arabera ematen dituzte lanbidea aukeratzeko, gaitasun sozio-pertsonalen eta harremanetakoaren garapenera lotuta.

Tradizionalki, orientazioa zailtasunak ebaluatzean eta horiei aurre egiteko parte hartzean oinarritu da. Gero eta garbiago dago orientatzailearen lanak ez lukeela zailtasunetara mugatu behar. Orientazio lanean leku garrantzitsua izan beharko lukete prebentzioan parte hartzeko planek zein plan positiboek.

Hala, lan guztiak gauzatzeko, beharrezkoa da orientazioa curriculumarekin harremanetan egotea. Orientazio jarduerak ez dira tutoretza ordu batzuetara mugatu behar. Horiek eguneroko zereginean lan sistematiko batek lagundu behar ditu eta gurasoekin elkarlanean gauzatu behar dira, gelan edota bertatik kanpo.

Orientatzailearen zeregina zehaztu ostean, burutu beharreko hiru funtzio nagusi azaltzen dira, esandakoak kontuan izanda:



1) Aholkularitza eta laguntza-funtzioak. Sarri, nahikoa izango da orientazio taldetik aukerei, zerbitzuei, eta abarrei buruzko informazio zuzena ematea, edota egoera lagundu ahal dezakeen pertsonarengana bideratzea. Beste kasu batzuetan, orientazio taldea arduratu beharko da heziketaz, burutu nahi diren hainbat programa martxan jartzeko; hala nola, ikasteko tekniken garapena edota gatazkak konpontzeko trebetasunak ontzea.

Orientazioa curriculumera hurbildu nahi dugunean, hori beharrezkoa da. Agian erraza irudituko zaigu lana tutoreei ematea eta tartetxo bat bilatzea. Ikasteko teknikak edota gatazkak konpontzeko trebetasunak curriculum esparruko zereginen barrutik landu nahi badira, ikasgaietan orientazio lana zertxobait konplexuagoa da, baina, inolako zalantzarik gabe, dezente eraginkorragoa.

Beharrezkoa izango da beste ikastetxeetan egindako esperientziak eta programa posibleak bilatzea, irakasleek hainbat erabaki hartu ahal izateko; hala nola, nola sartu gaitasuna –modu ulerkorrean ikastea, pertsonen arteko arazoak indarkeriarik gabe konpontzea, taldean lan egitea modu kolaboratzailean- edota euren ikasgaietan. Gurasoei informazioa eta jarraibideak emanaz gero, lan garrantzitsua burutu dezakete.

2) Ebaluazio funtzioak. Ekintza-planak erabaki ostean, orientazio taldeak ebaluazio bat egin beharko du, aukeratutako programa martxan jarri aurretik eta jarri ostean. Ez dira ahaztu behar bete beharreko bi aldeak. Batetik, abiapuntuen mailak ebaluatu behar dira. Bestetik, diagnostiko lan honen bidez, zailtasun handiak izan ditzaketen eta arrisku egoeran egon daitezkeen pertsonak zein diren ikusi behar da, ikasgelatik kanpo plan osagarriak egiteko. Horretarako, gurasoei jarraibideak emango dizkiegu lanak eraginkorragoak izan daitezen.

3) Erraztasun zein koordinazio funtzioak. Orientazio eta curriculum planteamendu batean horiek dira lanik konplexuenak; izan ere, orientazio taldeak programa kolaboratzailea aktibatutakoan sortzen diren zailtasun ugari gainditu beharko ditu. Hemen, ezagutza teknikoek gain, orientatzaileek trebetasun sozio-pertsonalak izatea beharrezkoa da. Irakasleen zailtasunak eta erresistentziak ulertu behar dituzte, euren lekuan jarri, alternatibetan pentsatzen



lagundu, gurasoak inplikatu beraiek direlako programaren arrakasta edota porrota azalduko dutenak.

16.- Hizkuntzen irakaskuntzaren proiektu integratua

16.1.- Helburuak

EAEko hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelera, ezagutzea zein menderatzea beharrezko baldintza da eskola-integrazioa, eskola-arrakasta, eta ondoren, integrazio sozial edota laboral ona lortzeko.

EAE egoera diglosikoa bizitzen ari da. Bertan, euskara normalizazio prozesuan dago, baina, betiere, gaztelera baino baldintza ahulagoetan eta prekarioagoetan.

Hori dela eta, hezkuntza-sistemak indartsu eragin behar du euskararen aurrerapenean, egungo atzerapena konpentsatzeko eta gaztelerearekiko oreka handiagoko egoeran egoteko. Hori guztia esanda, gaztelera ere modu sistematikoan eta progresiboan irakatsi behar dute eskolan, nahiz eta ia guztiek ezagutzen duten.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak agertzen duen helburu hau jasotzea garrantzitsua da: "Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz".

Beharrezkoa da atzerriko hizkuntza bat ezagutzea, Europar Batasunean integrazio hobea lortzeko, eta lan merkatuaren informazio beharrei zein eskaerei erantzuteko.



Posible den kasuetan, behintzat, etorkinen hizkuntzak sartu behar dira eskola-markoan, ikasle guztiengan aniztasun linguistikoaren zein kulturalaren kontzientzia garatzeko, etorkinak diren ikasleen nortasun keinuak lantzeko eta euren autoestimua ontzeko.

Aipatutako lau hizkuntzetan, gaitasun linguistikoari dagokionean, ondoko helburuak lortu nahi ditugu:

Hizkuntza	Lehen Hezkuntza amaitutakoan lortu beharreko helburuak
Euskara	Ahoz zein idatziz menderatzea Irakaskuntza sistematikoa
Gaztelera	Ahoz zein idatziz menderatzea Irakaskuntza sistematikoa
Atzerriko hizkuntza	Komunikazio maila eta zehaztu beharreko maila instrumentala
Etorkinen hizkuntzak	Horietako batzuen kontzientziazioa Errespetuan oinarritutako jarrera Hala dagokionean, gutxieneko ezagutza

16.2.- Metodologia

Beharrezkoa da ikuspuntu gramatikalak zein funtzionalak baino ez direnak albo batera uztea hizkuntzaren irakaskuntzan, eta hizkuntzaren komunikazio aspektuetan zein aspektu esanguratsuetan oinarritutako irakaskuntza sustatzea. Hizkuntzaren irakaskuntza gramatikala zein funtzionala gutxietsi gabe, irakaskuntza horrek, batez ere, ikasgelan komunikatzeko, ongi pasatzeko, lana egiteko zein ikasteko balio behar du. Lantresna izan behar du.

Komunikazio eta instrumentu ikuspuntu hori oso gomendagarria da ikasgelan nagusi den hizkuntza irakasteko, baita gainerako hizkuntzentzat ere. Adin batetik aurrera, gure ikastetxeetan hiru hizkuntza izateak (eta batzuetan, lau) hizkuntza horien irakaskuntzan integratutako ikuspuntua garatzeko beharra



sortzen du. Ezin da hizkuntza guztietan dena ikasi. Hizkuntzen irakaskuntzarako modelo bat egin beharko da; Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan integratutako proiektu linguistikoa. Hor, hizkuntza bakoitzaren irakaskuntzaren mailakako sekuentziazioa egingo da 3 urtetik 16ra arte.

Euskara ikasteari dagokionez, metodologia aktiboa zein parte-hartzailea izateak proiektuak elaboratzeko aukera ematen du (irratia euskaraz, aldizkaria euskaraz, bertsoak eskolan, etab.), ikasle guztiak euskara ikastera bultzatzeko. Era berean, bere kasuan, teknika bereziak zein material egokiak erabilia ere sustatu behar da euskara H2 bezala irakastea.

Eskolako hezkuntzaren espaziozko zein denborazko egungo mugak gainditzea modu antolatua izan daiteke hizkuntzak ikasteko, batez ere, zailtasun handienak dituzten ikasleen kasuan. Denbora luzeagoa behar duten ikasleentzat (baita etorkinen kasuan ere) ikasgelako orduak gehitzeak lagun dezake ikasgela horretarako ezarritako helburuetara heltzen. Era berean, espazio markoa gaindituta, formala ez den hezkuntzarekin modu estuan lan egitea pentsatu behar da.

Literaturak, bai herrikoak, bai eta egile ezagunenak ere, leku berezia izan du hizkuntzen irakaskuntzan. Literaturak, sormenezko adierazpena eta adierazpen artistikoa den heinean, aspektu kultural garrantzitsuak ezagutzeko eta preziatzeko balio du, baita modu interesgarriagoan zein kreatiboan hizkuntzetara hurbiltzeko ere. Euskal Herrirako curriculumean Euskal Herriko euskaraz, gaztelera zein frantsesez idatzi duten egile garrantzitsuek lekua izan behar dute,.

16.3.- Hizkuntzen irakaskuntzarako modelook

Euskal Herriko ikastetxeetan euskara zein gaztelera ikasteak izan duen emaitzen balantzea ez da oso arrakastatsua izan.

Hizkuntzak ikasteko zein irakasteko curriculumama eratzeko, ondoko proposamen sinpleetatik abiatuko gara:

- Eskolan irakasten diren hizkuntzak modu sistematikoan zein formalean irakatsi behar dira, derrigorrezko hezkuntzaren etapa guztietan.



- Hizkuntza guztiek curriculuma ikasteko zein irakasteko balio behar dute, hizkuntza bera irakasteko balio izateaz gain. Curriculum esparru hori edota curriculum esparruren bat ikasteko zein irakasteko instrumentua denean, hizkuntzen ikasketa indartu egiten da. Eguneroko bizitzan eta elkarbizitzan erabiltzea ere ez da ahaztu behar.
- Ziurrenik, eskolako hizkuntzak instrumentu gisa erabiltzeak ez du tratamendu bera izango. Era horretan, euskara eta gaztelera Lehen zein Bigarren Hezkuntzan erabili beharko dira, eta, atzerriko hizkuntza, berriz, DBHko uneren batean erabili beharko da, gutxienez.
- Ikastetxeko hezkuntza-proiektuetan proiektu linguistikoa jarri beharko da martxan. Hala, ikasleek curriculum esparru linguistikoetan ezarritako ikasketa-helburuak lortuko dituzte.

Ikasle etorkinen kasuan, bi egoera bereizten ditugu: sarrera arrunta denean, beste ikasleena bezalakoa, tratamendu linguistikoa adineko taldearen berdina izango da. Sarrera beranduago egiten denean kasu bakoitza aztertuko da, eta sarrerako adinaren zein unearen arabera, hainbat irtenbide planteatuko dira, aniztasunaren markoan. Euskara bere ikasketa ibilbidearen atal gisa sartuta geratuko da. Euskara ikasgaiaren exentzioa salbuespenetarako soilik dago aurreikusita legedian.

16.4.- Atzerriko hizkuntza

Euskal Herriko curriculum proiektuetan atzerriko hizkuntzaren derrigorrezko irakaskuntza formala (ingelesa, frantsesa, etab.) **Lehen Hezkuntzatik** aurrera egingo da.

16.5.- Baliabideak

Badakigu hizkuntzen irakaskuntzari buruzko era honetako planteamenduak, batez ere, euskara maila guztietan eta ikasle mota guztientzat (baita etorkinentzat ere) jartzeak, hezkuntza administrazioaren erabateko inplikazioa eta **esfortzu pertsonal zein material** handia exijitzen duela.



16.6.- Komunitatearen inplikazioa

Anbizio handiko lan hau burutzea ezinezkoa izango litzateke gurasoen inplikaziorik eta gogorik gabe. Gainera, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearen lankidetzaren ere. Horretarako, gurasoek, ikasle ohiek, boluntarioek, erakundeek, profesionalek, zerbitzuek, sindikatuek, alderdi politikoek eta abarrek bat etorri behar dute hizkuntzen irakaskuntza hobea sustatzeko. Badira eredu gisa erabil daitezkeen adibideak (Ikasketa Komunitateak eta antzeko beste proiektu batzuk) eskolak inguruarekin aliantzak egiteko.

16.7.- Denbora librea

Beharrezkoa da hezkuntza-sistema formalaren eta ez formalaren arteko lankidetzaren estua; hots, gure gizartean lan egiten duten eragile sozioedukatiiboak: animazio soziokulturala, kirol monitoreak, hedabideak, kultur elkarteak, etab. Hezkuntza ez formalaren esparruak babes handia eman behar du hizkuntzen ikasketan aurrerapenak sustatzeko eta finkatzeko, batez ere euskararen kasuan.

16.8.- Irakasleak trebatzea

Irakasleen lankidetzarekin eta gogoarekin baino ezingo da burutu egiten ari garen bezalako proposamen bat. Hori dela eta, hizkuntzen proiektu linguistiko integratuak martxan jartzeko irakasleak trebatzea eta sustatzea ezinbesteko adierazgarria izango da hau bezalako planteamendu baten martxa ona aurreikusteko.



17.- Hezkuntza interkulturalaren proiektua.

17.1.- Helburuak

Baloretan eta elkarbizitzarako heztea, arrazismoa zein xenofobia eragozte, beste kulturak errespetatzea, eskolako sektoreen arteko lankidetzaz zein elkartasuna, eta ikasleen arteko elkartasuna izango dira **ikasle guztientzat**, autoktonoentzat zein etorkinentzat, lortu beharreko ezinbesteko zein oinarritzko helburuak.

Aniztasuna lantzeko planteamendu baten barruan, euskal eskolak, gutxieneko komun batzuetan oinarrituta, Euskal Herriko ezaugarri kulturalak bilduko dituen proiektu kulturala garatuko du, eta ikasketa horrek ikasleen hezkuntza-prozesua gauzatzen lagunduko du.

Beharrezkoa da ikasle guztien eskola-arrakasta bermatzea, baita etorkinena ere, irakasten diren hizkuntzen ezagutza egokia lortuta.

Ikasle etorkinaren **gizarteratzea** errealitate izan dadin, eskolak horretarako bitartekoak eman behar ditu.

Era berean, hezkuntzak kontuan izan behar du ikasle etorkinaren errealitate linguistikoa zein kulturala, **bere ezaugarri propioak zein autoestimua** lantzeko.

Etorkinen hizkuntzari zein kulturari dagokionez, beren nortasun propioa duintzeko eta lantzeko, ikastetxean horiek duten presentzia zainduko da. Hori guztia, gutxieneko lekukotasun planteamendutik modu instrumental gisa egin beharreko erabilerara joango da, etorkinen kolektiboen kopuruaren eta aukeren, ikastetxearen lekuaren, baliabideen eta abarren arabera. Gauza bera egingo da ikastetxeko edota komunitateko taldeen jaiekin, ospakizunekin, gertaerekin, eta bestelakoekin ere. Erakundeen dokumentuek zehaztuko dituzte aspektu horiek.

Kultura arteko praktiken analisitik saihestu beharreko arrisku batzuei buruzko irakaskuntzak atera ditzakegu: desberdintzen gaituena berdintzen



gaituena baino gehiago nabarmentzea, folklorismoa, exotismoa, estereotipoak indartzea, eta gune bereziak sortzea.

17.2.- Metodologia

Hezkuntza interkulturalaren metodologia ikasgelan aniztasuna lantzean oinarritzen da. Benetako hezkuntza interkulturala aniztasunaren tratamendu egokiaren jarraipen naturala baino ez da.

Hori esanda, hezkuntza interkulturalaren edota aniztasunaren ezaugarriak honakoak dira: lankidetzeta, kolaborazioa, proiektuetan parte hartzea, ikasleen eta taldeen arteko komunikazioa, topaketak, elkarrizketa, erritmo pertsonalizatuak, ikaslearen interesak zaintzea, ikasketetan nolabaiteko malgutasuna izatea, etab.

Hori dela eta, banakako lanean, lan lehiakorrean edo liburuetan oinarritutako ikasketa ez da hezkuntza interkulturalarekin bateragarria, bereziki, ikasgela trukaketarako aukerarik ematen ez duten taldeetan antolatua baldin badago, elkarrekin parte hartzeko proiekturik gabe. Ezinezkoa da hezkuntza interkulturala egotea talde lanik, elkarrizketarik eta trukatzetik gabe.

Eskola-hezkuntzaren **egungo espaziozko zein denborazko mugak gainditzeko** tresna hizkuntzen eta curriculumeko beste ikasgaien irakaskuntzan lagun dezakeen antolaketa-modua izan daiteke, baita eskolan zein gizarteratzean arrakasta handiagoa lortzeko ere; batez ere, zailtasun gehien dituzten ikasleen kasuan. Denbora luzeagoa behar duten ikasleentzat (baita etorkinentzat ere) ikasgaien ordutegia zabaltzeak ikasgelarako ezarritako helburuetara iristea lagun dezake. Era berean, espaziozko markoa gaindituta, hezkuntza ez formalarekin lankidetzeta harreman estua sortu behar da.

17.3.- Baliabideak

Ikasle etorkinek sarri izan ohi dituzten oztopoak gainditzeko, EAEko hizkuntza ofizialak ikastea, eskola-arrakasta lortzea eta gizarteratzea oso erronka handiak dira, eta horretarako beharrezkoa da hezkuntza-



administrazioaren inplikazio osoa eta **esfortzu pertsonal zein material** **ikaragarriak** lortzea.

17.4.- Komunitatearen inplikazioa

Anbizio handiko lan hau ezin izango da burutu gurasoen inplikaziorik eta parte-hartzerik gabe. Gainera, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearen lankidetzak, gurasoak, ikasle ohiak, boluntarioak, elkarteak, profesionalak, zerbitzuak, eta abar bat etorrira, hizkuntzen zein beste gaien irakaskuntza sustatzeko, eta gizarteratzea bideratzeko. **Ikasketa Komunitateen** adibideak eta antzeko beste proiektuek eredu gisa balio dezakete eskolak inguruarekiko aliantzak aurki ditzan.

17.5.- Denbora librea

Beharrezkoa da hezkuntza-sistema **formalaren eta ez formalaren** arteko lankidetzak estua; hots, gure gizartean lan egiten duten eragile sozioedukatiiboak: animazio soziokulturala, kirol monitoreak, hedabideak, kultur elkarteak, etab. Hezkuntza ez formalaren esparruak babes handia eman behar du hizkuntzen ikasketan aurrerapenak sustatzeko eta finkatzeko; batez ere, euskararen kasuan.

17.6.- Irakasleak trebatzea

Irakasleen lankidetzarekin eta gogoarekin baino ezingo da burutu egiten ari garena bezalako proposamen bat. Hori dela eta, hizkuntzen proiektu linguistiko integratuak eta interkulturalitate proiektuak martxan jartzeko irakasleak trebatzea eta sustatzea ezinbestekoa izango da.



18.- Gizarte Zientziak Euskal Herrirako curriculumean

18.1.- Gizarte Zientzien irakaskuntzaren testuingurua.

Gizarte Zientzien curriculumari buruz hitz egitean, kontuan izan behar dira hezkuntza-sistemaren helburu guztiak zein esparru jakin honetarako bereziki pentsatuak; hots, gizarteak eta ikastetxeek lortu nahi dituztenak, transmititu nahi dituzten gizarte baloreak.

Gaur eta hemen, badago hezkuntzaren nolabaiteko akordioa. Hainbat gauza zehazten dira; hala nola, pertsona askeen, zintzoen eta konprometituen garapenerako ekarpena; oinarrizko eskubideak zein askatasunak errespetatzea; balore demokratikoak; bakean oinarritutako elkarbizitza; lankidetzeta eta elkartasuna; ingurumena errespetatzea; bizitza sozialean parte hartzea. Gizarte Zientziek helburu horiek lortzeko egin dezaketen ekarpena nahiko nabarmena da. Gizarte Zientzietatik –herritarrentzat hezkuntza-esparrua egon ala ez – berebiziko garrantzia duen rola ematen zaie, ikasleari mundua, errealitate soziala hobeto ulertzeko oinarrizko instrumentuak (kontzeptuak, trebetasunak, baloreak) emateko edota modu eraginkorragoan konprometitzeko.

Hezkuntzaren eta, era berean, Gizarte Zientzien ikasketa-irakaskuntzaren helburuak honakoak dira: egungo mundua ulertzea, komunitatean integratzea, esperientzia pertsonala zabaltzea, gizarte prozesuak ulertzea, jarrera kritikoa, tolerantzia eta errespetuzkoa garatzea, jasotako ondarea baloratzea, eta informazioaren tratamenduan trebezia jakin batzuk lortzea.



Une historiko bakoitzean, gai jakin batzuk garrantzia berezia hartzen dute. Hori dela eta, curriculuma lantzean albo batera ezin utz daitezkeen egungo gizartearen ezaugarri batzuk daude. Adibidez, une honetan:

- Munduaren globalizazioa.
- Berezia dena baloratzea, balorazio unibertsalarekin batera.
- Gero eta nahasiagoak eta anitzagoak diren gizarteak osatzea
- Hezkuntza planetan Euskal Herriko historia eta kultura berreskuratzea curriculumean.
- Gure kode moralen aniztasuna, errealitatea analizatzeko modu desberdinak, gizarte eta giza zientzietan egia absolutu eza.
- Sarri, interes ezkutuek baldintzatutako eskolaz kanpoko gehiegizko informazioa.

18.2.- Gizarte Zientzien curriculumerako ondorio batzuk.

Esan berri dugunak ondorioak izaten ditu Gizarte Zientzien irakaskuntzan.

A) Sistematikoki gaitasun kritikoa lantzearen garrantzia. Ikuspuntu desberdinak eman behar dira; iturri desberdinak lantzea; gertakarien edota historiaren irakurketetan, baliozko aspektuak zein partzialak ezagutzea eta eztabaidatzea; zalantza sustatzea, edozein gezurren edota fundamentalismoren aurrean zalantza egitea; doktrinatzeko ahaleginen aurkako defentsa. Hori guztia ez da zerbait berria, baina, ziurrenik, egun balio berezia hartzen du. Rousseau-k ere, *Emilion* hala zioen (1762): “Gazte batentzat historialaririk txarrenak epaitzen dutenak dira. Gertakariak, gertakariak! Eta berak epai dezala nahi duen bezala: hala, gizakiak ezagutzen ikasiko du. Egilearen iritziak etengabe gidatzen badu, egingo duen gauza bakarra besteren baten begiradaren bidez ikustea da; eta begirada hori falta zaionean, ez du ezertxo ere gehiago ikusiko”.



B) Zalantza egitea edota “ingurua”ren kontzepzio berria. Ikaslearengandik gertuen dagoena bezala ulertzen den ingurutik abiatzea, edukiak antolatzeko edota sekuentzian banatzeko irizpidea izan da. Eta, ziurrenik, hala izaten jarraitu behar du errealitate hurbila hobeki ulertzeko. Teknologia berriek gertutasunaren zentzua birplantearazten digute. “Gertutasun” horrek ezin du geografikoa soilik izan. Ikaslea iris daiteke geografikoki urrun kokatutako lekuen informazio eta komunikaziora, pantailan gertu baitauzka. Egungo edozein ikasle senti daiteke gertuago, edota horietako edozeinek izan dezake Amazonas edota Amazonari buruzko informazio gehiago (adibide bat jartze aldera) gertuago dituen udalerrri zein leku batzuei buruzkoa baino, nahiz eta leku horiek gertukoak izan. Telebistari edota Interneti esker, lehen urrunagoak eta ezezagunagoak iruditzen zitzaizkigun lekuak, orain presente dauzkagu gure bizitzan zein ikasgelan.

C) Giza buruaren joera errealitatearen ikuspegiak zein kontzepzioak analizatzeko eta sintetizatzeko, berezitik orokorrera edota orokorretik berezira abiatuta. Errealitatea ulertzeko eta interpretatzeko bidea xehetasunaren eta orokorraren, bereziaren eta unibertsalaren, gertukoaren eta urrunekoaren artekoa da. Gizarte Zientzietan beharrezkoa da bide kognitibo horri jarraitzea.

D) Ikasgelako aniztasuna ahalik eta gehien aprobetxatu eta baloratu behar da. Egun, ikasgela berean jatorri desberdineko haurrak egon ohi dira. Ikasle autoktonoekin batera, atzerriko ikasleak egoten dira; etorkinak, hain zuzen ere. Ikasle horiek eta kultura arteko sentsibilitatea informazioa jasotzeko balio handiko iturriak izan daitezke. Jatorri desberdin horiei esker, beste herrialdeen erreferentzia ugari izango ditugu.

E) Historian eta egungo munduan, ezkutatu egin dituzten errealitate, gertaera zein interpretazio kulturalak, sozialak eta ekonomikoak daude. Botere soziala zein ekonomikoa dutenei lotutako interpretazioek eta gertaerek oihartzun handiagoa izaten dute. Irakasleak esfortzu berezia egin behar du ezkutuko errealitate horiek ikasgeletara hurbiltzeko eta agerrarazteko. Askotan ahaztu ohi dugu eguneroko bizitza eta jende xumearen bizitza. Ziurrenik, ikasleen alde aurreko ezagutzen artean daude gehiengoaren ikuspegiak edota



botere gehien duten taldeen interesei erantzuten dietenak. Ikaste “hobea” lortzeko, horiek zalantzan jartzen laguntzen duten kontraesan txikiak edota gatazka kognitiboak sustatu beharko dira.

F) Ingurumen ikuspuntuaren garrantzia. Historian lehenengo aldiz, gizakiak Planetaren ekosisteman aldaketa handiak egiteko aukera dauka. Gero eta ahots gehiago dira ingurumen hezkuntzaren aldekoak. Argitalpen ugari, kongresuen erabakiek eta nazioarteko araudiek ingurumen hezkuntza martxan jartzearen garrantziaz dihardute.

F) Balore demokratikoeiko gatazkak izan behar du edozer gertaera sozial (batez ere denboran gertuago daudenak) analizatzeko irizpidea. Balore horien promozioak curriculum planifikazioaren, diseinuaren eta garapenaren objektu izan behar du. Herrialde aurreratuetan garrantzia handia ematen diete balore demokratikoei eta gizarte demokratiko batean bizitzeko prestaketari.

18.3.- Gure kultura curriculumean sartzea

Ikasleak bere inguruan daukan mundua kritikoki ulertu ahal izateko elementuak bereganatu behar ditu.

Euskal Herrirako Curriculumean euskal kultura, geografia eta historia sartu behar dira. Besteengana irekitzeko kultura norbera ulertzean hasten da, baina norbera ulertzea zaila izango da besteengana irekitzen ez bagara.

Ikuspuntu zabalak aurkezteko esfortzua egin behar da; hau da, ikuspuntu inklusiboak, eta ez baztertzailleak. Euskal kulturaren kontzepzio irekiaren, dinamikoaren eta integratzailearen aldeko apustua egin behar da; ahalik eta ikuspuntu zabalenaren aldekoa. Interakzioaren perspektiba kontuan izan behar da.

Kultura guztiak beste kulturekiko harremanetan garatu dira. Eta interakzio hori dela eta, giza generokoak, mendebaldeko zibilizaziokoak eta eremu geografiko zein kultural jakin batekoak gara. Adibidez, Aristotelesek, kristautasunak, humanismo errenazentistak, arkitekturaren bilakaerak (erromanikoa, gotikoa...) mendebaldeko kultura guztiak osatzen lagundu dute. Badira gertaera bereizgarriak (euskara, adibidez) eta antzeko fenomenoak



edota fenomeno komunak. Eta interakzio honetan, genesian eta kulturen garapenean berezia dena eta komuna dena epaitu behar dira. Hori dela eta, norbere kulturaren eta beste testuinguruaren arteko harremanean, aspektu komunak eta bereziak nabarmendu behar dira, interakzioaren ikuspuntutik.

Hala ere, Euskal Herrirako Curriculumaren diseinuan euskal kulturaren elementu garrantzitsuak hartu behar dira beren eskola-garapenerako.

Curriculum diseinuan kontuan izan beharreko arazo batzuk badaude. Curriculum irizpideak, orientazioak eta zehaztasunak ezartzerakoan, bada kontuan izan beharreko kontu bat. Kulturari buruzko ikuspegi ugari daude, euskal kultura berarekiko zein beste kulturekiko harremanean aurkeztutakoan, euskal kulturaren (horien artean, Euskal Herriko geografia eta historia) ikuspuntu ugari azaltzen dira.

Kultura guztiek merezi dute errespetua, giza eskubideen aurka doazenak albo batera utzita. Errespetuan kontuan izan behar da aniztasuna kulturen artean eta kultura bakoitzaren barnean gertatzen dela. Aztertu eta ezagutu beharreko aniztasunak dira. Ezin da norberaren homogenotasuna defendatu, eta besteekiko dauden desberdintasunak nabarmendu. Era berean, ezin da barneko aniztasuna nabarmendu eta urruneko aniztasuna ezkutatu. Gure kulturaren barneko aniztasuna nabarmendu behar da, bai eta beste kulturen barneko aniztasuna ere. Berezi, norberaren edozein balorazio erlatibizatzea komeni da, urrunekoa baino "hobea" dela ez pentsatzeko.

18.4.- Beste aspektu didaktiko batzuk.

Eskolan ezin da dena irakatsi, ezin da dena jakin. Edukien beharrezko aukeraketan horien garrantziak, hezkuntzaren helburuetan ekarpenak egiteko erabilerak (kontzeptu garrantzitsuak, oinarrizko kontzeptu nukleoak, beste egoera batzuetan ikasitakoa transmititzeko edota orokortzeko gaitasuna, oinarrizko baloreak...) izan behar dute garrantzia.

Eta Gizarte Zientzietan edukiak sakabanatzea eta sekuentziantan banatzea planteatzen dugu. Denbora eta espazioa dira eta izango dira ezinbesteko bi aldagarriak. Etengabe, bilakaera zein garapen psikologikoan, espazioak eta denborak zabaltzen ari dira. Eta zabaltzearekin batera, sakontzeko ere aukera handiagoa dago. Une honetan, ziurrenik, hezkuntzaren



etapa guztietan nahiz etapa bakoitzean, eskala guztiak (udalerria, lurralde historikoa, autonomia erkidegoa, estatua, Europa, mundua) eta denbora desberdinak (iragan historikoa eta oraina) landu behar dira, nahiz eta eremu geografikoaren zein historiaren pisua aldatzen joan, adinaren eta ulermen gaitasunen arabera.



Etapak

19.- Haur Hezkuntza

1990. urtetik aurrera, legalki, errealitate bilakatu da 0 eta 6 urte bitarteko garaia barruan entitatea duen hezkuntza etapa izatea, bizitzako edozein garai ere hezigarria dela kontuan izanda. Dimentsio garrantzitsuetan eta helburu bat jarraituz hezten da.

Zalantzarik gabe, lege errekonozimendu honetan ekarpen handia egin zuten bizitza sozialeko aldaketek; hala nola, emakumea lan munduan sartzeak, beste familia eredu batzuk sortzea (aita edo ama bakarrekoak), etab. Ez dira gutxietsi behar hezkuntza-mundutik datozen eskariak, adin horietan hezteko aukeraren ziurtasuna. Gai horiek zaintza eta babespe funtzio eskusiboak gainditu zituzten, eta hezkuntzara bideratu zituzten.


Autonomia Erkidego guztietan, haur eskolak haurtzaindegiak eta eskola aurreko garaia ordezkatzeko hasi ziren, eta eskolan hasteko adina etengabe jaisten ari da. Gure erkidegoak eskolaratze goiztiarraren tasa handienetako bat dauka. Gutxi gorabehera, haurrak bi urte dituztenean eskolaratzen dira.

Zein abantaila dauzka eskolaratze goiztiarrak? Ikerketen arabera, esparru kognitiboan ez da ezertxo ere antzematen baztertuak izateko arriskurik ez duten biztanleengan. Beste modu batera esanda, ez du ematen inolako desberdintasunik dagoenik eskolara goiz hasi diren haurren eta ez direnen artean. Baina goiz sozializatzeak duen garrantziaz ohartarazten gaitu. Bera bezalakoak direnekin kontaktua izateak elementu desberdin gisa NIaren ulermena lortzeko aukera ematen du, baina, betiere, BESTEAREN balio berean. Bera bezalakoak direnekin eta familiakoak ez diren helduekin komunikatzeko trebetasunak garatzen ditu. Azken finean, biziko diren gizartea islatzen duten testuinguruetan kokatzen da haurra.



19.1.- Curriculumaren helburuak eta ezaugarri batzuk

Hezkuntzako etapa honetan norantz bideratu behar dira esfortzu profesionalak? 0 – 6 urte bitarteko haurrak apurka-apurka joaten dira beren *nia* eta inguru naturala eta soziala ulertzen-azaltzen. Horretarako, beste baliabide batzuen artean, ingurune horrekin komunikazioa erabiltzen dute (adierazpena eta ulermena). Arlo honetan, hiru nukleo edota esparru horietara zuzendu beharreko helburuak ez dira aldatu modu sustantzialean:



1. Subjektua: ulermena, kontrola, norbere gorputzaren erabilera ona, norbere emozioak errekonozitzea.
2. Objektua: besteak bereiztea eta ulertzea, horien balorea errekonozitzea; munduarekin identifikatzea eta “esperimentatzea”.
3. Komunikazioa: ahozko eta ez-ahozko hizkuntza desberdinak erabiltzea (ulermena eta adierazpena). Ikasleak bi hizkuntza ofizialak ikasi behar ditu. Haurtzaroko plastizitatea dela eta sasoi egokia da hizkuntzen ikasketa eta kultur adierazpenetarako.

Esparru horiek guztiek autonomiaren lorpen etengabearen eragiten dute.

Jardueraren (fisikoa eta mentala), indibidualizazioaren (subjektuen aniztasuna erabat errespetatuta), sozializazioaren (pertsonekin elkarrekin gizarteratzea erraztuta), jolasaren zein imitazioaren printzipioak, oraindik ere, indarrean daude.

Esparru horiek aboratzeko globala errazten duten metodologietatik lantzen dira (haur hauen pertzepzio globala errespetatzeko). Haurrak ikaste desberdinak lortzeko testuinguru esperientzialetan kokatzen dituzte. Haurren ikasteko moduak errespetatzen dituen esperientzia-esparruaren kontzeptua hartzen da berriro kontuan.



Nabarmendu behar da jakintzaren alorreko aurrerapenak oso bizkor ari direla ugaritzen eta hedatzen. Errealitate honek, pertsona orok bizitzako edozein garaitan hezkuntzarako duen eskubidea kontuan izanda, hezkuntzaren dinamika etenik gabe ikasten jarraitzeko kokatzen du; bizitza osoan zehar ikasten ikasteko, malgutasunetik zein egokitzeko gaitasunetik.

19.2.- Proposamen zein aurrerapen ildo posibleak

Berez, 0-6 urte bitarteko haurrek jakin-min handia izaten dute. Munduan kokatu behar izaten dute, mundua eta beren burua ulertzeko, mundu horrekin bi norabideko komunikazioa gauzatuta. Aurkitzen garen egoeran; hau da, desberdina errespetatuta bateratasuna lortu nahi duen Europan, erronka berriak jarri beharko genituzke hezkuntza-etapa honetarako. Ez da inoiz ahaztu behar integrazio sozial eta familiarraren garrantzia.

Gure dinamikak, Europako testuinguruan dagoen herrialde anitzak, beste balore batzuk izatera pasatzen ari garela frogatzen du (tolerantzia, errespetua, herritarren promozioa), eta Haur Hezkuntzak hezkuntza-ekintza horretarako lehen pausoa izan behar du.

Guztion Europa osatzea onartzean, ulermenean eta errespetuan oinarritutako baloreak behar dira, eta, horretarako, etapa honek berebiziko garrantzia dauka. Haur Hezkuntzan, badaude Europako hizkuntzak irakasten hasteko asmoak. Eztabaidatu eta esperimendu beharreko gaia da.

Haur Hezkuntza hezkuntza-eragile desberdinen arteko harreman onagatik bereizi izan da (hezitzaileen artean, hezitzaileen zein familien artean). Harreman honek jarraitu ez ezik, indartu ere egin behar du. Agian, beharrezkoa izango da hezitzaileen taldea nabarmentzea eta indartzea (irakasleak, laguntzaileak,...).

Haur Hezkuntzan, asistentziazko ekintza bat, batez ere, hezigarria da. Zaila da, ezinezkoa ez bada, etapa honetan hezkuntza-ekintzak direnak eta ez direnak bereiztea. Administrazioak eta ikastetxeek hezkuntza-talde horiek finkatzen lagundu behar lukete; horretarako, eskura dituen baliabide guztiak emanda. Hezkuntza-taldeen eta familien arteko harremanak elkarlaneko etapa garbia izan beharko luke, truketzea eta elkar aberastea ahalbideratzeko, gizartean ageri diren erronka berrien aurrean.



Gure komunitateko curriculumuma etapa honetan hasten da, baina ez da hemen hil behar. Hori dela eta, beharrezkoa da planteamendu serioak egitea ikastetxeko proiektuetan. Helburua honakoa da: Haur Hezkuntzan hasi eta eskolaratzea amaitu arte, ikastetxe horietan hezkuntza ildo koherentea ikustea zein eskaintzea.

20.- Lehen Hezkuntza

20.1.- Ikastetxea ez da nahikoa.

Curriculum baten helburuak zehazterakoan, kontuan izan behar da eskola bakoitza sistema, gizarte eta kultura zehatz batean dagoela, eta eskola bera ere sistema bat dela. Hortik honakoa ondoriozta dezakegu, sistema emankorra izan dadin: eskoletako kideek elkarlanean ari behar dutela kanpoan zein barruan. Hezkuntzaren helburu garrantzitsuena ikaslea erabat garatzea bada, beharrezkoa da garapen horretan parte hartzen duten eragile guztiek elkarrekin lan egitea. Elkarlana ez da legezko aipamen soil bat, baliabideak diseinatu behar dira, eta horiek gero legetan zehaztu. Eskolak, irakasleek eta gurasoek elkarlanean jardun behar dute, indarrak batuz. Eskola prozesuan gurasoek daukaten parte hartzeak korrespondentzia izan behar du familiek irakasleen lanari buruz egiten duten balorazioan.

Badira bidean esperientzia batzuk; ongizate zerbitzuekin, kaleko hezitzaileekin, unibertsitateekin eta gelako boluntarioekin batera osatutako



koordinazio mahaiak, esaterako. Diseinu globalean lan egin behar da, eta erakundeek konpromisoa hartu behar dute, esperientzia horiek irauteko eta hedatzeko. Horrek esan nahi du erakundeen planetan zehazten badira soilik lortuko dugula elkarlana, orduan emango dituela fruituak. Bestela anekdota xume bat besterik ez da izango, orain gertatzen den moduan.

Eskola barrura begira, irakasleek familiak aintzat hartu behar dituzte. Azken urteetan aldaketa handiak izan dira, horietako batzuk familia egituretan. Lehen irakaslearen lana ikasgelara mugatzen zen, baina orain gelan zer gertatzen den ulertzeko, eta gero hango ongizatea eta emaitzak hobetzeko, familien laguntza lortu behar dute. Batzuetan zaila izango da, komunikazioan gizarte eta kultura mugek eragin handia baitute, eta zailtasuna familia egituren bertan baitago.

Instituzioan kontenplaturako eta zehazturako bide berriak bilatu beharra dago, ikasle guztiek, berdintasunean, eskola sarean leku duina izan dezaten. Horrek ez du esan nahi, ordea, ikasle guztiek estandar bakar bati erantzun behar diotenik, ez eta ezarritako parametroen barruan sartzen ez direnak egokitu behar direnik ere. Horrek esan nahi du eskolaren barneko eta kanpoko egitura egokitu behar dela. Horretarako, nahitaezkoa da guztiok gogoeta serioa egitea. Irakasleek ikasleen irudi perfektua zein den galdetu behar dute, zein den eskolen xede perfektua, eta zein guk lan egiten dugun eskola zehatzarena. Baina, batez ere, helburuak nola lortu zehaztu behar dugu, eta eragile guztiek zer egin beha duten jomugara iristeko.

20.2.- Lehen hezkuntzako helburuak.

Lehen Hezkuntzan helburu pertsonal, sozial eta etikoak landu behar dira. Horregatik, Lehen Hezkuntzak ikasleei lagundu behar die gaitasun batzuk hartzen: balio sozialak eta bizikidetzaren arauak barneratu behar dituzte, herritar gisa jarduteko; lan ohiturak garatu, norberak edota taldean, kultura desberdinak ulertu eta errespetatu, generoagatik edo ezgaitasunagatik ez dute baztertu behar; gatazka-egoera dagoenean gaitasun sozialak modu egokian erabili behar dituzte; informazioa bilatu eta egokia dena hautatu, horretarako iturri



desberdinak erabilia; lan bat planifikatu, ezustekoen aurrean sormena erabiliz inprobisatzen jakin.

Derrigorrezko hezkuntza denez, eta beste helburuak ahaztu gabe, eskolak autonomia bultzatu behar du; bai nortasunaren aldetik, bai ikasketen aldetik. Ikasle autonomo batek, ikasketa eta lan tresnak menderatzeaz gain, egoera bakoitzaren aurrean estrategia egokienak hautatzen eta erabiltzen jakin behar du. Eskolak aukerak eman behar ditu prozedurak ezagutzeko, probatzeko eta konparatzeko. Egoera horietan gaitasun kognitiboak eta afektiboak aktibatzen dira. Ikasgelako lana horrela kudeatzeak beste ikuspegi bat ematen du, baita irakaslearen begirada luzatu beharra ere. Eskolaren helburu nagusietako bat ikasle autonomoak lortzea da; hala, autonomo izanda, askea eta eragile sozial aktiboa izan daiteke.

Tradizioz akademikoagotzat hartu izan diren beste helburu batzuk ere badira:

- Hizkuntza ofizialak ezagutzea, errespetatu eta erabiltzea; ahozko mezuak eta idatziak ulertzea; komunikabideetara jotzea (esaterako, gai ezagun baten gaineko informazioa irakurri ostean), euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egitea eta idaztea, eta baliabideak sortzea eta erabiltzea (kulturakoak barne; artea, esaterako); adinari dagozkion literatura ezagutzak izan eta baloratzea euskaraz nahiz gaztelaniaz.

- Arazo baten aurrean, hipotesiak sortu eta egiaztatzen, ondorioak ateratzen, eta ezagutza zein sormena erabiltzen jakitea arazoa konpontzearen.

- Oinarrizko matematika gaitasunak garatzea: zenbakitze sistema kontrolatzea: zenbaki naturalak eta zatikiak izendatzea, ezagutzea eta manipulatzeko; eragiketak egin eta gero problemak ebazteko erabiltzea: batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak; problemak ebazteko prozedura egokiena erabiltzea, horretarako landutako kalkuluak eginda eta neurri eta oinarrizko ezagutza geometrikoak erabilia.

- Ezagutza sozial eta naturalak bizi izatea, ulertzea eta interpretatzea; instituzio eta produkzio sozialaren zein kulturalen balioa estimatzea, eta ingurua ezagutzea, bertakoen ohiturak garatzeko.

Norbere gorputza onartzea eta egokitzea.



- Informazio eta komunikazio teknologiak ikasten hasia, ikasketarako baliagarria izan dadin, eta ikaslea igorritako mezuak eta iritziak baztertzen eta baloratzen has dadin.
- Artelanak eta antzezpenak ulertzea, eta horien adierazpenak garatzea (norberak nahiz taldean).
- Higienea eta osasuna baloratzea, ohitura osasungarriak sortzea, gorputz hezkuntza eta kiroltan aurrera egitea eta horrek garapen pertsonal eta sozialean dakarren onura baloratzea.

20.3.- Hobera egiteko proposamenak

Eragile guztien laguntza eta inplikazioa behar den arren, helburu guzti horiek lortzeko dokumentuetan nola egingo den eta zer baliabide erabiliko diren zehaztu behar da. Batzuetan indar, denbora eta baliabide ugari erabiltzen dira diagnostikoan, eta tratamendua aplikatzeko garaian imajinazioa agortu eta diagnostikoa zaharkituta gelditzen da. Hasitako gauzak amaitu gabe utzi, eta gauzak konpontzeko gai izango ez bagina bezala da.

Hezkuntzako eta irakasleen kontuetan argi dago aldaketak ikasgeletan islatu behar direla, eta, horretarako, irakasle bakoitzaren lan egiteko modua eta ikusmoldea aldatu behar dira. Berrikuntzak egiteko irakasleen ikusmoldea aldatu behar da.

Garrantzitsua da, halaber, irakaslearen koordinazio bertikala eta horizontala. Horrek esan nahi du ados jarri behar garela, dokumentuetan ez ezik, irakasteko moduan ere bai. Hizkuntza adosteaz gain, helburuak argi, zehatz eta egiteko moduan idatzi behar dira. Gainera, helburuekin batera pausoak azaldu behar dira, bidea nola egin nahi dugun.

Ikastetxeko curriculum proiektuan dugun esperientziak akatsak ez errepikatzeko balio behar digu:

- Helburu gutxiago eta zehatzagoak eta egiten errazagoak.
- Helburuak betetzeko proposamenak. Ereduak proposatzea.
- Irakasleak irakaskuntzako profesionalak garen arren, ez gara dokumentazioan adituak. Horregatik, berrikuntzak proposatzerakoan, irakasleen lana erraztu behar da, eta, batez ere, haien hezkuntza praktika.



Hezkuntzan bultzatu beharreko edozein berrikuntzaren aurrean, beharrezkoa da irakasleak laguntzea eta konpromisoa hartzea. Horretarako, aintzat hartu behar dira irakasleen lan baldintzak eta baldintza pertsonalak.

20.4.- Irakasleak prestatzea.

Irakasleak oreka behar du. Hezkuntzan, giza harremanek leku handia hartzen dute; izan ere, irakasleak egunero lankideekin, ikasleekin eta haien senideekin egiten du lan, eta harreman horietarako emoziozko gaitasunak nahitaezkoak dira. Gure eskoletara jatorri sozial eta kultural desberdina duten ikasleak etortzen dira. Irakasle bakoitzak bere biografia pertsonala du, eta bere aurreiritziak modelatzen ikasi behar du. Ikasleei gaitasun sozial eta emoziozkoak erakusteko gai izan behar du irakasleak: autoestimua, autokontrola, adierazpena, motibazioa. Ilusioa izanez gero soilik transmititzen da.

Gaitasun akademikoak irakasleen ohiko formazioan lantzen dira. Besteren artean, hizkuntzaren, matematikaren eta ingurumenaren ezagutza didaktikak izateaz gain, irakasleak gelako gestio onari dagozkion gaitasunak izan behar ditu. Ikasleek elkarren laguntzarekin lan egiteko eta beren kabuz nahiz taldean lan egiten ikasteko irakasleak prestatu behar dira. Gaitasunak dira, eta ez urritasunak, abiapuntu ona.

Ezin dugu ahaztu irakasleak etengabe prestatu behar direla. Eta prestakuntza horretan konpromisoa hartzeko, estimuluak, sostenguak eta baliabideak behar dira.

Jomuga zein den jakin beharra badugu, bide egokiena zein den, eta gehien behar diren erremintak, bidean adiskideak ere behar ditugu.

21.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



21.1.- DBHren karakterizazioa:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza orokortzeak guztientzako oinarrizko ikasketak luzatu ditu. Hasieran funtzionalitate eza ikusten bazen ere, kultura maila eta ikasleen akademia zein bizitzako prestakuntza hobetzeko aukera ezin hobe da. Herriaren hezkuntza maila handitzen dute, eta komunitateko garapen sozialari, kulturalari eta ekonomikoari laguntzen dio.

b) DBH duten ikastetxeek benetako balio psiko-pedagogikoak defendatu eta garatu behar dituzte. Horregatik, ikastetxeetan presente egon behar dute ikasketa esanguratsuen eta aipagarrien printzipioek, baita irakatsi eta ikasteko prozesu on bati erantzuten dioten pedagogia modernoaren eta aktibo parte-hartzailearen printzipioek ere.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak pubertaroan eta nerabezaroan daude. Egitura kognitibo zehatz batzuetatik egitura formalagoetara aurrera egiten ari dira. Zerbait zehatza denean, partikularra, errazago irekitzen da etengabe zerbait orokorrera, abstraktura, formalera, sinbolikora. Baina, biak behar dituzte, partikularra eta orokorra. DBHko lehen mailetan, zehatza dena, partikularra, gehiago landuko da funtzionamendu kognitiboan.

d) DBHk, jarduera pedagogikorako, ikaslea hartzen du ardatz. Ikasleak dira hezkuntzaren xede. Hori horrela, lehen erabakia ikasleari DBHn egoteko aukera ematea da, eta, horretarako, ikasketa aukera gehiago eman behar zaizkio. Guztiei irakasten diegu, eta DBHk eskaintzen duen ikastaldia luzatzea aprobetxatu behar da, demokratizazio sozialean eta sustapen pertsonalean eragina baitu.

e) Ikasleak DBHn sartzeak lehengo bizitzaren antolaketa egiturak aldatzea dakar. Irakasleak ikasgaika espezializatzeak ez du esan nahi ikasleak irakasle gehiegi izango dituenik, ez eta tutoretza jarduera erraztuko denik ere.



Tutoreak ikasleak ezagutu behar ditu, eta hori ez da erraza ikasleekin gutxieneko denbora batean ez bada egoten.

21.2.- DBHko helburu instituzionalak.

DBHko helburu instituzionalek oso jomuga eta xede orokorrak dituzte. Jomugek eta xedeek lortu nahi den balioen mundua eta bizi den antolakuntzaren kultura islatzen dute. Ikastetxeak errealitate bihurtu nahi duen egoera desiragarria dira. Era berean, ikastetxeen curriculum proiektuetan agertzen diren asmoak dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jomuga orokor garrantzitsuenen arabera, ikasleek kulturaren oinarrizko elementuan izan behar dituzte, ikasteko ohiturak eta teknikak landu, ikasten jarraitzeko prestatu, eta gizarteko kide oso diren aldetik, beren eskubideak eta betebeharrak izateko hezi.

Helburu zehatzenak ere kontuan izan behar dira:

- Euskal herritarren eskolatzeko maila handitzea; hezkuntza zerbitzuetara guztiak joan ahal izatea, eta eskubide berberak izatea.
- Bizitza pertsonala, familiakoa eta soziala, oro har, hobetzeko ikasketa esanguratsuak eta egokiak ziurtatzen dituen kalitatezko hezkuntza bermatzea.
- Gizabanakoari nortasuna ondo garatzen lagunduko dion hezkuntza ematea, balio pertsonalak, sozialak eta etikoak lantzean oinarritua.
- Pertsonen arteko eta gizarte komunikaziorako elementuak ematea. Eta komunikazio gaitasun honen barruan, bi hizkuntza koofizialak ongi ezagutu eta erabiltzea.
- Gizartearen garapenarekin eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin batera doan hezkuntza garatzea; hala, natura, gizaki, gizarte eta harreman mundua ondo ulertzeko, eta eragile kontziente zein eraldatzaile gisa jokatzeko.
- Ikasleei bizitzarako balio duten erreminta garrantzitsuak ematea. Oinarrizko ezagutzek gizartean behar den gutxiengo ezagutza bermatzen dute. Hizkuntza gaitasunek (ulermena eta adierazpena), matematika gaitasunek, ulermen kulturala, zientifikoa, teknikoa, artistikoa; gizarte bizikidetzarako balioak herritar guztientzat oso garrantzitsuak dira.



- Zeharkako gaitasun batzuk lantzea. Ikasgai guztietan ahozko ulermena eta idatzia, ikus-entzunezko komunikazioa, komunikazio eta informazio teknologiak eta balioen hezkuntza landu behar dira.

- Gaitasun afektiboak eta gizarte harremanetarako gaitasunak sendotzea; indarkeria, aurreiritzi arrazistak, jokabide sexistak baztertzeko eta gatazkak konpontzeko gaitasunak hartzea.

- Ikasleak bizitza produktiborako prestatzea (nolabait, oinarrizko gaitasunekin), autoestimua eta nortasun kulturala, sormenerako gaitasuna, espiritu autonomoa eta jokabide sozialak indartzea.

- Espiritu ekintzailea eta norbere buruan konfiantza garatzea, baita ekimen pertsonala eta ikasteko aukerak ere.

Alabaina, ikastetxe bat ez da mugatzen kopiatzera eta Ministerioko lege eta dokumentuetan ageri diren helburuak martxan jartzen saiatzera. Norbere definizio zehatza dagoenean garrantzitsua da gertuko ingurunearekin harreman estua izatea, baita osagai historikoen arabera ikastetxeko bertako berezitasunak, hezkuntza ereduak, gestio moduak, eta bertan lanean ari diren pertsonak kontuan hartzea ere.

21.3.- Bizikidetzaren ona jomugan.

Hezkuntza instituzio guztiek bizikidetzaren klima ordenatua izan behar dute. Bizikidetzaren gizalegezko ahalegina da ikastetxeen barruan, eta bizikidetzaren horiek gurasoekin eta beste komunitate eragileekin izaten diren harremanetan irudikatzen dira, baina, batez ere, irakasleen arteko, irakasleen eta ikasleen arteko eta ikasleen arteko harremanetan.

Indarkeria fisikorik, ahozkorik edo psikologikorik gabe errespetua eta gatazkak gizalegez konpontzeko gaitasuna dagoenean garatzen da bizikidetzaren.

Ikastetxeetan eta ikasgeletan, bizikidetzaren izateko diziplina ordenatua eta gizatiarra behar dira. Bizitza ordenatua izan gabe, zaila da hezkuntza lanak egitea. Diziplina egoki baten etsaiak dira indarkeria, gizatasun falta, errespetu eza, harremanetan bidegabekeria izatea, arauak ez barneratzea, ikasketak gutxi baloratzea, eta ikasgeletan bizitza ordenatu gabe izatea.

Bizikidetzaren ona izateko garrantzitsuak dira gestio ahaleginak, gurasoekin izaten diren harremanak, ikastetxeko irakasleen gogoetarako beharra,



irakasleen gaitasuna, harreman eta Zuzendaritza motak, hobekuntza metodologikoak, inguruarekin dituzten harremanak, bizikidetza batzordeak sortzea eta haiek lan egitea eta abar.

22.- Batxilergoa

22.1.- Ezaugarriak

Espainiar estatuaren kasuan, Batxilergoaren ordenazio berriak lehendik diseinatutako arau nagusiak jarraitzen ditu: bi urtez irauten du, hiru modalitate daude, irakasgai komunak, modalitatezkoak eta hautazkoak sailkatuta, ebaluazioa gaika egiten da eta abar.

Helburuak, berriz, honakoak dira: ikasleei prestakuntza, giza heldutasuna eta heldutasun intelektuala ematea, baita funtzio sozialak garatzeko eta erantzukizunez nahiz gaitasunez bizitza aktiboan sartzeko aukera emango dieten ezagutzak eta gaitasunak ere. Halaber, ikasleak goi mailako hezkuntzan ikasteko prestatzen ditu.

Hala, oinarrizko funtzio bat eratuko da: ikasleei lanean hasteko edota ikasketak jarraitzeko behar duten prestakuntza eta heldutasuna ematea, bai Lanbide Heziketarako bai Unibertsitaterako. Arauek bizitza aktibora sartzeaz hitz egiten badute ere, ez dute argi lanaren bizitza aktiboari buruz hitz egiten. Izan ere, beharrezkoa da zehaztea Batxilergoak ez dituela ikasleak lanerako gai egiten, eta, hori dela medio, gero eta gehiago nabarmentzen da haren izarea prestatzailea.

Hiru Batxilergo modalitate daude: Arteak; Zientzia eta Teknologiak; Giza eta Gizarte Zientziak. Era berean, irakasgaiak gai komunetan, modalitateko berezietan eta hautazkoetan bereiziko dira.

Legeak gai komunak soilik arautzen ditu: mundu garaikiderako zientziak, gorputz hezkuntza, Filosofia eta herritartasuna, filosofiaren historia, Espainiako historia, gaztelania eta historia, euskara eta historia, eta atzerriko hizkuntza.



Nabarmentzekoa da irakasgai horietako bat berria dela, “Mundu garaikierako zientzak”, alegia; filosofia, berriz, filosofia eta herritartasuna da orain.

Modalitateko gaietarako dagokienean, geroagoko ordenazioa jarri da, izaera malguagokoa; hala, modalitate bakoitzean ikasleen eskariak ase ditzaketen hainbat bide ezar daitezke. Hautazko gaien ordenazioa komunitate autonomoetako da.

22.2.- Aintzat hartzeko gauza batzuk

Batxilergoaren karakterizazioa aztertzeko gauza batzuk aintzat har daitezke.

a) Bigarren Hezkuntzako neurriak. Argi dago Batxilergoak gutxi irauten duela, eta horregatik, beste konponbide batzuen artean, hautatu da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailari (4. maila) izaera berezia ematea – orientzailea-. Hala, bi etapen arteko trantsizioa “errazago” egin nahi da, eta, horretarako, maila horretan beste irakasgai batzuk sartuko dira; hala nola, latina eta informatika. Ikasleari, gainera, nahien eta aukeren arabera, bidea eratzeko aukera emango zaio.

b) Modalitate bakoitzaren barruan ibilbideetan ezar daitekeen malgutasuna. Ikasketak amaitzeko asmoarekin Batxilergoko egiten duten ikasleentzat, nagusiki prestakuntza funtzioa bete behar du, eta beharrezko heldutasuna eman. Alabaina, ikasketak jarraitzeko asmoa dutenentzat (gehiengoa dira), etapa honetan arrakasta izateko, aldi berean Lanbide Heziketaren eta Unibertsitate ikasketen eskakizunei erantzuteko gaitasuna izan beharko dute.

Hori horrela, oso garrantzitsua da modalitate bakoitzeko irakasgai espezifikoak ordenatzea; izan ere, Unibertsitatera edota Heziketa Ziklo batera joateko erabakia beti ez dute argi izaten ikasleek lehen maila hasieran, eta erabakia aldatzeko aukera ezarri behar da.

Teorian, badira gutxienez bi aukera: Unibertsitate ikasketekin edota Heziketa Zikloekin lotutako irakasgaiak murriztea, eta erabat beharrezkoak direnak soilik uztea, edota horiek bigarren mailan murriztea. Bi kasuetan ere,



ezinezkoa da malgutasunaz hitz egitea, eta, era berean, ikasleentzako bide zorrotzak ezartzea.

Bestalde, Batxilergoari eskari asko egiten zaizkio, eta horrek esan nahi du ikasleen “aniztasunari arreta” jarri behar zaiola. Horrez gain, promozioaren eta titulazioaren gaineko erabakiak hartzerakoan kolegiatasuna izan behar da; aspektu horiek kontuan hartu beharko dira.

c) Batxilergoaren ordenazio berrian, bada oraindik landu ez den aukera berri bat. Batxilergoan elkarrenganako ezagutza erregimen bat egongo da Batxilergo ikasketen eta maila ertaineko heziketa zikloen artean; hala, gaitututako ikasketak kontuan hartuko dira, nahiz eta horri dagokion titulazioa ez izan.

d) Bestalde, gure ustez oso garrantzitsua da irakasgaien curriculumen kontua. Esaten dutenez, Batxilergoko heziketa jarduerak ikasleari bere kabuz ikasteko, taldean ikasteko eta ikerketa metodo egokiak ezartzeko gaitasuna hobetuko diote. Horrek esan nahi du irakasgaiak gaitutzea ez dela “ezagutzak metatzea” soilik izan behar, teknikak eta prozedurak alde batera utzita. Horri dagokionez, orain arteko esperienziak erakusgarri handikoak izan daitezke; izan ere, curriculumak egiteko garaian gehiegi hedatzea saihesten lagun diezagukete. Beraz, alde horretatik adierazgarria da titulua lortzen duten ikasleen ehunekoa handia den arren, ez direla gutxi etapa hori amaitzen bi urte baino gehiago igarotzen dituztenak.

e) Ezin dugu ahaztu erreforma guztiek politika orokorreko helburuak izan behar dituztela. Kasu honetan, Europar Batasunak ezarritako Lisboako Estrategian dute jatorria, eta Erreformen Programa Nazionalean zehazten dira. Programa horren hirugarren ardatzak, “Giza Kapitala handitu eta hobetzeari” buruzkoak, Goi Mailako Bigarren Hezkuntzako egungo egoera behar bezalakoak ez dela zehazten du diagnosian (Batxilergoa eta Maila Ertaineko Zikloak):

* Garaia baino lehen ikasketak uzten dituztenen ehunekoa.

* Titulazioen ehunekoak ez datoz bat Europako batez bestekoarekin.

Errealitate horrek ezarritako helburuak betetzen dituen Batxilergoa eratzeke gai izatea eskatzen du. Itxuraz adostasun handia dago, ikasleenak ez



diren interesak eta estereotipoak alde batera utzita. Orduan arituko gara, zalantzarik gabe, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzen.

23.- Lanbide Heziketa

23.1.- Etorkizuneko heziketa

“Nora zoazen ez badakizu, ez dio axola zer bide hartzen duzun, *noraezera* iritsiko zara”. *Mundu Miresgarriko Alice* liburuko esaldi horrek irakasgai interesgarria du atzean, nondik gatozen, nora goazen eta gure erreferentzia, gure iparra, zein den jakiteko beharra planteatzen digu.

23.2.- Nondik gatoz

Lanbide Heziketan egoera ona dugu Euskal Autonomi Erkidegoan. Azken hamarkadan hezkuntzako *Mari Errauskin* baino zerbait gehiago izatea lortu dugu. Eusko Jaurlaritzak Sailburuordetza jartzearen alde egin du, aldundiek eta beste erakunde batzuk babesa eman dute, baita enpresek ere, eta, batez ere, ikastetxeek konpromisoa hartu dute, eta horri guztiari esker, Euskadiko Lanbide Heziketa Espainiako beste komunitateentzat erreferentzia da, baita beste herrialde batzuentzat ere. Egoera horrek, ordea, baditu bere



zailtasunak ere. Demografia tasa txikia, hezkuntzako eskaintza atomizatzea eta irakasleen mugikortasuna dira zailtasun horietako batzuk.

23.3.- Nora goaz

Etengabe aldatzen ari den munduan bizi gara, enpresen artean lehiakortasuna dago, eta egun inbertsio handiagoak egiten dira Ikerketa + Garapena + Berrikuntzan, eta ekipamendu eta teknologia berri hobeak daude. Erronka horri aurre egiteko, ezinbestekoa da langilea egunez egun hobeto prestatuta egotea.

Lanbide Heziketako ikastetxeek oinarrizko eginkizuna dute; alde batetik, ikasleak prestatu behar ditugu, enpresetan sartuko diren etorkizuneko langileak, eta, bestetik, jada enpresetan daudenak trebatu behar ditugu. Beraz, beharrezkoa da prestakuntza ona, hasierako prestakuntzan dauden ikasleentzat (DBHtik eta Batxilergotik etortzen direnak), eta etengabeko prestakuntza egiten dutenentzat (langileak eta langabetuak).

23.4.- Heziketan zer landu jakitea

Lanbide Heziketaren asmoa ikasleen gaitasunak garatzea da, honakoa lortzeko:

- Ogibideak deskribatzean zehazten diren prestakuntzak lortzea; aldatzen ari den mundu honetan ikasleak lan jarduera ona egiteko behar dituen gaitasun zehatzak garatzea.
- Produkzio mundua ezagutzea, baita lan esparrua eta langileen eskubideak eta betebeharrak ere.
- Iniziatiba izaten ikastea, taldean lan egiten, eta gatazkak konpontzen; hala, jasotako gaitasunek lanean, familian eta gizartean bizitzeko balioko diote.
- Hainbat sektoretan lan egiteko prestakuntzara sartzeko emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea.
- Izan daitezkeen lan istripuei aurrea hartzen ikastea, eta lan segurtasun eta osasun baldintzak zein diren jakitea.



- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia zein den jakitea, eta zientzia, teknika eta gizarte beharren garapenak ekarritako lan baldintza aldakorretara egokitzea.
- Iniziatiba izatea, ekiten ikastea.

23.5.- Iparra argi izatea.

Beharrezkoa da gogoeta batzuk egitea. Lanbide Heziketak gai izan behar du etengabe aldatzen den munduan lan egingo duten pertsonak prestatzeko.

Egoera horretara egokitzeke beharrezkoa da motibazioa transmititzea. Gure ikasleek gai izan behar dute aldaketa horiei autoestimuekin aurre egiteko, pentsamolde irekiarekin eta positiboarekin, eta jarrera proaktiboarekin.

Ikasleei komunikazio gaitasuna ematen jakin behar dugu. Hizkuntza ofizialak jakitea bermatu behar dugu (euskara eta gaztelania), hirugarren hizkuntza erabiltzea sustatu, ikasteko baldintzak sendotu eta erabilera erraztu; horretarako, truke programak gauzatu behar dira (Leonardo proiektua...).

Horrez gain, ikasleak gai izan behar du IKTbak trebetasunez erabiltzeko. Horretarako, prestatzeaz gain, erabilera indartu behar dugu modulu desberdinetan, eta, hartara, baliabide horien bidez komunikazioan trebetasuna hartzeko aukera izango du ikasleak.

Heziketa Teknikoa lanbideetara egokitu behar da, eta ikasleei gaitasun batzuk eman behar zaizkie (teoria eta praktika) haiek ezagutza eta trebeziak izan ditzaten; azken finean, ziklo ertainetan, batik bat, "egiteko gaitasuna" sendotzen duen curriculum.

23.6.- Berrikuntzarako prest.

LH ahaleginak egiten ari da euskara bere ikasketa planetan sartzeko. Euskararen ezagutzak eta erabilpenak lagundu egiten du hainbat inguru sozial eta laboraletan hizkuntza honetan moldatzen.

LHk sektore ezberdinetan sortzen ari diren teknologietako prestakuntza eskaerei erantzun behar die. Horrez gain, punta-puntako ekipamendua lortu behar du, eta etengabe berritu; izan ere, enpresek handik langileak ondo



prestatuta irtengo direla ikusi behar dute. Horrek ikasle askori lan munduan sartzeko aukera ematen dio, eta, ondorioz, hurrengo promozioek motibazio handiagoa izango dute.

“Teknologia zaintza” LH zentroetako adierazpen modernoa baino zerbait gehiago izan behar da. Curriculumak irekia izan behar du, eta etengabe eguneratzeko aukera eman.

Hornikuntza Tekniko egokia izatea beharrezkoa da, baita “ikasten laguntzeko” metodologia parte-hartzaileak bultzatzen dituzten baliabide didaktikoak izatea ere.

Prestakuntza tekniko ona nahitaezkoa da, baina ezin da ahaztu zeharkako moduluen papera. Ezin dira hartu hezkuntza sistemako “bigarren mailako gai” gisa; izan ere, ikasleari kultura ekintzailea ezagutzeko aukera eman behar diote, erantzukizuna izateko ohiturak hartzeko aukera, planifikatzen ikasteko eta lanak antolatzeke, taldean lan egitearen abantailak ezagutzeko, “arau” gisa segurtasunez lana egiteko eta ingurumena zaintzeko konpromisoa hartzeko.

Horrez gain, modulu guztietan ezaugarri horiek indartzeko lan egin behar dugu.

Bide hori egiteko, etengabe hobetzeko konpromisoa duten langileak behar ditugu, erakusteko eta ikasten laguntzeko prest daudenak. “Dinamizatazaileak” izan behar dute, “motibatzaileak”, eta metodologia berriekin lan egiteko prest egon behar dute, IKTak erabiltzera egokitu, etengabe erreziklatzeko prest egon, “prestatzaile” ikuspegiarekin.

Ikasleek gaitasunak nola hartzen dituzten ebaluatzeko prest egon behar dute, eta eurak ebalua ditzatela onartzen edota beren burua ebaluatzen jakin behar dute. Halaber, irakasteko eta ikasteko prozesuetan hobekuntzei aukera eman behar die.

Laguntzeko espiritua izan behar dute, ikastetxe barruan eta kanpoan, eta “Laguntzea lehiakor izateko modurik onena dela” ulertu behar dute.

Euskal Autonomi Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitekoa ezinbestekoa da bidaia honetan, norabidea adierazi behar du, eta ondo zaindu. Baina, gainera, ikastetxeen eta irakasleen rola baloratu behar du, lanean babesa eman, eta lan baldintza onak sustatu: egonkortasuna, prestakuntza, baliabideak.



Era berean, enpresek beren antolamenduarekin jarraitu behar dute, eta, ahal bada, LP moduluaren garapena eta prestakuntza hobetu. Hori eginez gero, ikasleak benetako enpresarekin lehen harremana izateko aukera izango du, eta prestakuntza egiten duen bitartean, lan munduan sartu ahal izango da. Lan zentroek LHko institutuei erreparorik gabe ateak irekitzea sustatu behar du, eta proiektu bateratuetan laguntza eman.

Laburbilduz: Bidea ez da erraza, baina badakigu nora joan nahi dugun, eta bidean gaude.

24.- Curriculum lantzeko etengabeko prestakuntza

24.1.- Hainbat premisa.

Irakasleen etengabeko prestakuntza ulertzeko eta diseinatzeko, aurretik honako kontzeptuak eta praktikak argitu behar dira: gizartea, hezkuntza zerbitzu publiko gisa, hezkuntza administrazioa eta herritarrekin duen harremana, curriculum, ikastetxea, eta, azkenik, lan hori egiten duten irakasleak eta hezitzaileak.

Ezagutzaren eta ikasketen gizartea asmo sozial orokorra da. Etorkizunean, gizarte osoak ezaugarri batzuk izango ditu: informazioaren eta aldaketa teknologiko sakon eta azkarren gizartea, kultura anitzeko eta balio etniko eta erlijioso askoren gizartea, eta abar.

Ohitura eta bizimodu aldaketak (herritarrak, kontsumoa, moda, aisialdia, komunitatea eta abar) izugarriak dira, eta, ondorioz, eskolatze moduak ezin dira alde batean gelditu.



Gizarteak, oro har, eta irakasleek zein hezitzaileek hainbat aukera dituzte: a) “eskolatze mugatua” esan dezakeguna sortzearen alde egitea, isolatua eta laguntza beharrik ez duena, curriculum tradizionalan oinarritua; b) “Eskolatze irekia eta hedagarria”, malgua eta osagarria, ikasketen antolakuntza aldatzen duena.

Aldaketa horri esker, modu irekian eta beste zerbitzuei zein hezkuntza instituzioei lagunduz, curriculumean gizartearen eta herritarren prestakuntzaren gaineko arazoak konpon daitezke.

Bigarren aukera horrek irakaslearen beraren lan ikuspegiaren eragina du, baita ikastetxeen ikusmoldean ere.

24.2.- Hezkuntzako langileen eta ikastetxeen ikusmoldea.

Irakasleen ikusmoldeak aldatu behar dira: a) irakasleak gaitasun eta funtzio berriak garatu beharko ditu (diziplina anitzeko programen diseinuari eta gizarte eta hezkuntza profesionalekin duten koordinazioari lotuta); b) irakaslearen irudi berriaren definizioerantz egin beharko da (besteren artean, lanbidearen profilari, lanaldiari, eskubideei, betebeharrei dagokienean); eta c) seguru asko, eskolako lanbide profil gehiago agertuko dira (adib: lanbide anitzeko programen koordinatzaileak, eskolaz kanpoko heziketa programak eta programa osagarriak eta abar). Profil berriek lanbidea hedatuko dute, eta lan bitzita osoan etengabe ikasten jarraitzeko aukera eman.

Ikastetxeen ikuskerak errealitate horrekin bat etorri behar du: a) eskuratzen duten autonomiari esker beren organizazio garapena eta ikasteko gaitasuna duten erakunde bilakatzen dira. Gerora izango dituzten lanbide, organizazio eta taldeko ikerketa-akzio proiektuen garapen komunitarioko mailetan estrategiak planifikatzen aurrera egiten dute.

Hezkuntza zerbitzu publiko gisa hartzeak argi eta garbi eragiten du heziketan. Ahaleginak eta politikak ikastetxeak indartzera bideratu behar dira, ekonomia eta materia baliabideen komunitate gestioak aurrera egin behar du, sarean sinergiak sortu behar ditu, inguruko komunitate espirtua suspertu, eta oro har hezkuntza garapena bultzatu.

24.3.- Prestakuntzan inplikazioak.



A) Ikastetxearen ikuspegiak prestakuntza politikekin inplikazio zuzenak ditu.

- Ikastetxeak “administrazio unitate” edo erralitate “instituzional” soil gisa hartzen baditugu, autonomia eta garapen kulturalik zein antolatzailearik gabeak izango balira bezala, prestakuntza politikek administrazio edota instituzio unitate horretan eragin “osoa” izan behar dutela onartzera iritsiko gara, eta ez oso argi, baina ikastetxean oinarritutako eredu bultzatuko dugu. “Ikastetxean” egindako edozein formazio jarduera bultzatuko dugu, haren garapenaren eta hobetzeko beharraren ikuspegi osoa izan gabe. Ondorioz, jarduera horietako gehienak “unean unekoak” eta “koordinatu gabeak” izateko arriskua egongo da.

Ez da zuzena pentsatzea formazio jarduerak “ikastetxean” egiteagatik eta suspertzeagatik hobera egingo edota zuzenean antolakuntza garapena izango dela. Ez dugu esan nahi eredu horri jarraituz sustatutako jarduerak ikastetxeetan eta praktiketan eragin positiborik izan ez dutenik. Uste dugu haren potentziala ez dela ondo aprobetxatzen.

- Aldiz, guztiok ikastetxeak kultura errealtate gisa hartzen baditugu, hein batean autonomo, beren historia eta antolakuntza garapenarekin eta ikasteko gaitasunarekin, orduan hartu beharko dugu serioski garapen profesionalaren eta antolakuntza garapenaren planifikazio estrategikoa, eta ikastetxeak horretarako prestatuko ditugu.

Diagnostiko eta ebaluazio instituzionalaren ereduez ari gara; prestakuntzaren eta antolakuntza garapenaren egungo egoeraren (indarrak eta ahultasunak) eta etorkizuneko estrategia analisi zorrotz batekin planifikatzen laguntzeko gai diren ereduez, hain juxtu.

B) Hezkuntzako eta irakaskuntzako profesionalen artean partekatzen den ikuspuntuak ere berebiziko inplikazioak ditu formazio politiketan.

Ez da aski beste aditu batzuek curriculumaren eta pedagogiaren gaineko ezagutzak aplikatzea; izan ere, horrek teoria eta praktika bereiztea dakar. Formazio eta berrikuntza ere ez dira bereizi behar.

Ez da ahaztu behar noiz edo noiz formazioa (ikastaroetan) beharrezko izan daitekeela. Kontua da zer garrantzi ematen zaion bereizketa horri.



Irakaslea langile zuhur eta autonomo gisa hartzeak esan nahi du profesionala bere lanaren erantzule zuzena dela, baita hori hobetzearena ere.

Praktika zuhurra eginez, betiere adiskideen laguntzarekin, hobetze proiektuak sustatu behar dira, dauden beharrak oinarri hartuta eta teoriari zein praktikari erreparatu gabe. Prestakuntza programek ikastetxeko benetako arazoei erantzun behar die, arazo puntualak eta erakunde osoan eraginik ez duten lotura gabeko arazoak alde batera utzita.

24.4.- Azken ideia batzuk

Ikastetxeetan garapen profesionala eta antolatzailea sortu nahi duen formazioak ikastetxeetako gidaritzak sistemak indartu eta garatu beharko ditu (baita babeserako barne eta kanpo sareak ere). Gidaritzak ez du administraziokoa soilik izan behar, curriculumaren eta didaktikaren arazoetan ere egon behar du. Zuzendaritzako langileen lana profesionala dela ziurtatzeko politikak ezarri behar dira, koordinaziorako ikastetxeen barne babeserako funtzio profesionalak garatzeko. Aholkularitza laguntzailea eta gertukoa ere alde izan behar du, inguruko babes zerbitzuen bitartez.

Diseinatu nahi den prestakuntza politikak baliabide guztiak erabiliz curriculuma garatu behar du. Era berean, prestakuntza esperientziak eta sareko garapen instituzionala sendotu, bultzatu eta mimatu ere egin behar ditu. Guztiak ere curriculumaren eta antolakuntzaren jardunbide egokietan oinarrituak izan beharko dira; bai orain agertzen ari direnak, bai lehendik Euskal Herrian daudenak (ikasketa komunitateak, sareko ikastetxeen sistemak, proiektu bidezko ikaskuntza, eta hainbeste meritu duten beste asko). Hitz batean esateko, daukaguna aprobeztatu eta optimizatu behar dugu.



25.- Curriculumaren diseinu eta garapenerako galderak

Badira oinarrizko galdera batzuk curriculumaren proposamen berri bat diseinatu eta garatu nahi dugunean:

- Nola ikusten duzu sare eta eragileen parte hartzea curriculum ofizialean?

- Diseinu itxia izan behar du, non giza talde batzuk soilik sartuko diren?

- Uste duzu diseinu ofizialean elkarbizitza, aniztasuna, herritartasunaren eraikuntza eta abar txertatu behar direla?

- Interkulturalitatea kontuan hartu behar da curriculum ofizialean?

- Zer dira ikastetxeko baloreak, helburuak curriculum ofizialaren arabera?

- Zer dira gure ikasleen beharrak? Beharrak batez ere hezkuntzari lotutakoak dira.

- Nola erantzuten die hezkuntza erakundeak gizarteko, trebakuntzako, laneko beharrei?

- Zer da eduki etikoen, kulturalen, zientifikoaren eta teknikoaren hautaketa?

- Nola lotzen dugu eskola erakundearen curriculuma errealitate pertsonalarekin, sozialarekin, profesionalarekin eta produktiboarekin?

- Nola sartuko ditugu Euskal Herrirako curriculumean geografiako, historiako, kulturako eta hizkuntzako berezitasunak?

- Nola administratzen eta kudeatzen da gure ikastetxea curriculumaren garapenaren inguruan?

- Euskararen eta gaztelararen trataera nahiko irekia geratzen da aukera bat baino gehiago eduki ahal izateko, beti ere hizkuntzen ezagutza eta erabilera helburutzat edukiz?

- Nola ikusten duzu atzerriko hizkuntzaren trataera, eskola guztietarako oinarrizko curriculum dela pentsatuz?



- Gizarte Zientzien trataera era orekatuan egiten da?
 - Zer da egun ikastetxean garatzen den curriculuma? Curriculum ofiziala ezagutzen al da? Zer egiten ari da hainbat mailetan curriculuma inplementatzeko?
 - Zer baliabide didaktiko ditugu? Nola erabiltzen ditugu?
 - Zer da irakaskuntza eta ikasketa prozesuen protagonisten arteko espazioetan ezarritako giza komunikazioa eta komunikazio didaktikoa?
 - Zer dira estrategiak, teknikak, laneko sistemak, etab.?
 - Nola erabiltzen dira laborategiak eta tailerrak hobe lan egiteko?
 - Nola egiten da ebaluazioa? esanahia, helburuak, prozesuak, arloak...
 - Nola landuko da irakasleen egokitzapena curriculum berri batera?
- Zeintzuk dira bitartekoak, dagokion prestakuntza, laguntzak eta pizgarriak?